# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 5055

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 18koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak.*

Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 17ko eta 2022ko maiatzaren 24ko erabakien bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioen 2019. eta 2022. urteetarako enplegu publikoaren eskaintzak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu dira, eta 1.2 oinarrian dago xedatuta ezen hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen bidez arautuko direla eta, halaber, zehaztuta dago zer eduki izan behar duten oinarriok, hau hain zuzen: zenbat plazatarako deialdia egingo den, nola banatuko diren hizkuntza-eskakizunen, sarbide-modalitatearen eta, hala badagokio, txanden arabera, zer epetan aurkeztu ahal izango diren eskabideak, zenbatekoa izango den inskribatze-tasa langileak hautatzeko deialdietan, zer titulu beharko den sartzeko, zer merezimendu baloratuko diren eta zer baremo baliatuko den, zer data izango den erreferentzia euskara-ezagutzak egiaztatzeko, zer betekizun espezifiko izango duten deialdiko lanpostuek, zein izango diren gai espezifikoak enplegua finkatzeko prozesu berezietan, eta ea emakumeen lehentasunaren klausula aplikatuko den ala ez.

Agindu honen bidez, enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egin eta oinarri espezifikoak onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako zenbait kidego eta eskalatarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera, aintzat hartuta Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluko IV. kapituluan langileen hautaketaz xedatutakoa, eta bat etorriz lege horrek 6.1.i) artikuluan emandako eskudantziekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan ezarritakoarekin, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Deialdia egitea enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako, kidego eta eskala hauetan, plaza kopurua eta horietako bakoitzari dagokion eranskina adierazita.

| Kidegoa/Eskala | Prozesu-mota | Lanpostuak, guztira | Eranskina |
|---|---|---|---|
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Telekomunikazioetako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | I |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Meatzeetako Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | II |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Itsasontzietako Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | III |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Itsasontzietako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 2 | IV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Kartografiako Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | V |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Kartografiako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 2 | VI |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Industriako Eskala | Finkatzeko berezia | 12 | VII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Industriako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 29 | VIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Medikuntzako Eskala | Finkatzeko berezia | 28 | IX |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Medikuntzako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 47 | X |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Farmaziako Eskala | Finkatzeko berezia | 2 | XI |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Farmaziako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 14 | XII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Albaitaritzako Eskala | Finkatzeko berezia | 3 | XIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Albaitaritzako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 15 | XIV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Informazio-sistemetako Eskala | Finkatzeko berezia | 24 | XV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Informazio-sistemetako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 21 | XVI |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskala | Finkatzeko berezia | 11 | XVII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 19 | XVIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Ingurumeneko Eskala | Finkatzeko berezia | 5 | XIX |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Ingurumeneko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 41 | XX |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Kultura-administrazioko Eskala. | Finkatzeko berezia | 8 | XXI |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Kultura-administrazioko Eskala. | Finkatzeko salbuespenezkoa | 5 | XXII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Kiroletako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | XXIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala | Finkatzeko berezia | 9 | XXIV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 4 | XXV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Arreta Soziolaboraleko Eskala | Finkatzeko berezia | 47 | XXVI |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Arreta Soziolaboraleko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 236 | XXVII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala | Finkatzeko berezia | 3 | XXVIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 9 | XXIX |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Prentsa eta Argitalpenetako Eskala | Finkatzeko berezia | 4 | XXX |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Prentsa eta Argitalpenetako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 6 | XXXI |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Lan-arriskuen Prebentzioko Eskala | Finkatzeko berezia | 4 | XXXII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Lan-arriskuen Prebentzioko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 49 | XXXIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskala | Finkatzeko berezia | 3 | XXXIV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 12 | XXXV |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala | Finkatzeko berezia | 31 | XXXVI |

| Kidegoa/Eskala | Prozesu-mota | Lanpostuak, guztira | Eranskina |
|---|---|---|---|
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 57 | XXXVII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Laborategiko Eskala | Finkatzeko berezia | 8 | XXXVIII |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Laborategiko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 7 | XXXIX |
| Kidego Teknikoa. Arreta Soziolaboraleko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | XL |
| Kidego Teknikoa. Azpiegituretako Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | XLI |
| Kidego Teknikoa. Azpiegituretako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | XLII |
| Kidego Teknikoa. Laborategiko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 3 | XLIII |
| Kidego Teknikoa. Ingurumeneko Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | XLIV |
| Kidego Teknikoa. Ingurumeneko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 5 | XLV |
| Kidego Teknikoa. Lan-arriskuen Prebentzioko Eskala. | Finkatzeko salbuespenezkoa | 10 | XLVI |
| Kidego Teknikoa. Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala | Finkatzeko berezia | 2 | XLVII |
| Kidego Teknikoa. Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 11 | XLVIII |
| Kidego Teknikoa. Industriako Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | XLIX |
| Kidego Teknikoa. Industriako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 6 | L |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Kudeaketa-informatikako Eskala | Finkatzeko berezia | 10 | LI |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Kudeaketa-informatikako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 10 | LII |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskala | Finkatzeko berezia | 10 | LIII |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 8 | LIV |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Arrantzako eskala | Finkatzeko berezia | 4 | LV |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Arrantzako eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 2 | LVI |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Hazien Eskala | Finkatzeko berezia | 1 | LVII |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Hazien Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 1 | LVIII |

Agindu honen bidez egiten den deialdiko hautaketa-prozesuak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren arabera egingo dira, haren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Bigarren artikulua.– Onartzea agindu honen I. eranskinetik LVIII.era bitarteko eranskinetan adierazitako oinarri espezifikoak.

Hirugarren artikulua.– Epe hau ezartzea eskabideak aurkezteko: 2022ko azaroaren 24tik 2022ko abenduaren 23ko 14:00etara.

Laugarren artikulua.– Ezartzea euskara-ezagutzek 2023ko abuztuaren 1a baino lehenago egon behar dutela egiaztatuta.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 18a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

I. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO TELEKOMUNIKAZIOETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.- Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorretako 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hau da Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalan sartzeko titulua: Telekomunikazio Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Halaber, deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

- Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Telekomunikazio Ingeniaritzako teknikariaren kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Ingeniaritzaren aukerako

izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 061201 | Datu-baseen diseinua eta administrazioa |
| 061301 | Softwarearen eta aplikazioen garapena |
| 061304 | Adimen artifiziala |
| 061901 | Informatika |
| 071401 | Konputagailuen ingeniaritza |
| 071403 | Telekomunikazio-ingeniaritza |
| 071402 | Soinuaren eta irudiaren ingeniaritza |
| 071405 | Ingeniaritza elektronikoa |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko lan-poltsetan egoteagatik, Telekomunikazioetako Eskalan. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Telekomunikazioetako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

II. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO MEATZEETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hau da Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalan sartzeko titulua: Meatze Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Meatze Ingeniaritzako teknikarien kidego, eskala edo kategorietan edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatze Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta

gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatze Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053301 | Fisika |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 053101 | Kimika |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |

| | |
|---|---|
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatze Ingeniaritzako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Meatzeen antolamenduaren arloko legeria.

– Meatzeen Legea:

22/1973 Legea, uztailaren 21ekoa, Meatzeena.

– Meatzeen Legearen aldaketa, baliabide mineral energetikoei arreta berezia eskainiz:

– 54/1980 Legea, azaroaren 5ekoa, Meatzeen Legea aldatzen duena, baliabide mineral energetikoei arreta berezia eskainiz.

– Meatzaritzaren Araubiderako Erregelamendu Orokorra:

2857/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, Meatzaritzaren Araubiderako Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

– Meatzeen Legearen A) atala konfiguratzeko balorazio-irizpideak:

107/1995 Errege Dekretua, urtarrilaren 27koa, Meatzeen Legearen A) atala konfiguratzeko balorazio-irizpideak finkatzen dituena.

2.– Urei eta ur mineral eta termalen aprobetxamenduari buruzko legeria osagarria.

– Ur mineral medizinalen iturburuak ustiatzeari buruzko estatutua:

1928ko apirilaren 25eko Errege Lege Dekretua, ur mineral medizinalen iturburuak ustiatzeari

buruzko Estatutua onartzen duena.

– Gizakiek kontsumitzeko ontziratutako ur mineral naturalak merkaturatzea:

1798/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, gizakiek kontsumitzeko ontziratutako ur mineral naturalen eta iturburuko uren ustiapena eta merkaturatzea arautzen dituena.

3.– Meatzaritzan aplikatu beharreko industria-legeria

– Industriari buruzko Legea:

21/1992 Legea, uztailaren 16koa, Industriari buruzkoa.

– Industria Erregistro Integratuaren Erregelamendua:

559/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 7koa, Industria Erregistro Integratuaren Erregelamendua onartzen duena.

– Makinak merkaturatzea eta zerbitzuan jartzea:

1644/2008 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, makinak merkaturatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzen dituena.

4.– Meatzeen segurtasunaren arloko legeria.

– Langileen segurtasuna eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak:

1389/1997 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, meatze-jardueretako langileen segurtasuna eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak onartzen dituena.

– Meatzaritzako Segurtasunaren Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorra eta hura osatzen duten Jarraibide Tekniko Osagarriak eta Garapeneko Zehaztapen Teknikoak:

863/1985 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, Meatzaritzako Segurtasunaren Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

– Meatzarien Estatutuaren arau osagarriak:

1986ko martxoaren 19ko Agindua, zeinaren bidez arau osagarriak ezartzen baitira Meatzarien Estatutua onartu zuen abenduaren 21eko 3255/1983 Errege Dekretua garatu eta betearazteko, segurtasun- eta higiene-arloan.

– Erauzketa-industriaren segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentuaren gutxieneko edukia eta egitura:

ITC/101/2006 Agindua, urtarrilaren 23koa, erauzketa-industriarako segurtasunari eta osasunari buruzko dokumentuaren gutxieneko edukia eta egitura arautzen dituena.

– Atmosfera leherkorretan erabiltzeko babes-sistemei eskatu beharreko segurtasuna eta osasuna:

144/2016 Errege Dekretua, apirilaren 8koa, potentzialki leherkorrak diren atmosferetan erabiltzeko, babes-aparatu eta -sistemei eskatu beharreko oinarrizko osasun- eta segurtasun-baldintzak ezartzen dituena eta martxoaren 5eko 455/2012 Errege Dekretua aldatzen duena –errege dekretu horrek zerbitzuguneetan motordun ibilgailuak gasolinaz hornitzeko orduan atmosferara botatzen diren lurrunen kopurua gutxitzeko neurriak ezartzen ditu–.

– Meatzaritzako eta Metalurgiako Poliziaren Erregelamendua:

1934ko abuztuaren 23ko Dekretua (zuzendua), Meatzaritzako eta Metalurgiako Poliziaren Erregelamendua onartzen duena.

5.– Meatzaritzan aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeria orokorra.

– Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea:

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

– Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua:

39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena.

– Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak:

486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

– Lan-ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak:

1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lan-ekipamenduak erabiltzerakoan, segurtasunari eta osasunari dagokienez, bete behar dituzten gutxieneko xedapenak finkatu dituena.

– Eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak:

1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetarako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.

– Aldi baterako laneko enpresen alorreko segurtasunari eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenak:

216/1999 Errege Dekretua, otsailaren 5ekoa, aldi baterako laneko enpresen alorreko segurtasunari eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

– Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluaren garapena:

171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.

– Langileak babestea bibrazio mekanikoen eraginpean egoteagatik eratorritako arriskuetatik:

1311/2005 Errege Dekretua, azaroaren 4koa, bibrazio mekanikoen eraginpean egoteagatik eratorritako edo erator daitezkeen arriskuen aurrean dauden langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa.

– Laneko atmosfera leherkorretatik eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileak babestea:

681/2003 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, lantokiko atmosfera leherkorren ondorioz sortzen diren arriskuen eraginpean dauden langileen osasun-babesari eta segurtasunari buruzkoa.

– Langileak arrisku elektrikotik babestea:

614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

– Langileak eremu elektromagnetikoetatik babestea:

299/2016 Errege Dekretua, uztailaren 22koa, langileen osasuna eta segurtasuna eremu elektromagnetikoekiko esposizioaren ondoriozko arriskuetatik babesteari buruzkoa.

– Amiantoarekiko esposizioaren arriskua dakarten lanetarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak:

396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, Amiantoarekiko esposizioaren arriskua dakarten lanei aplikatu behar zaizkien gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

– Autobabeserako Oinarrizko Araua:

393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi-egoerak sor ditzaketen jarduerak egiten dituzten zentro, establezimendu eta egoitzen autobabeseko oinarrizko araua onartzen duena.

6.– Meatzaritzaren sektoreko lanaren eta gizarte-segurantzaren zuzenbide espezifikoa.

– Meatzarien Estatutua, hura osatzen duten garapen-arau osagarriak eta bat datozen errege-dekretuak:

3255/1983 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Meatzarien Estatutua onartzen duena.

– Hogeita bat urtetik beherakoen azterketa medikoa meategietan lurpeko lanak egiteko:

1973ko urtarrilaren 19ko Agindua, hogeita bat urtetik beherakoek meategietan lurpeko lanak egiteko duten gaitasunaren azterketa medikoari buruzkoa.

– Lanaldi bereziak eta horien aldaketak:

1561/1995 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, lanaldi bereziei buruzkoa.

7.– Lehergaien arloko legeria.

– Lehergaien Erregelamendua:

130/2017 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, Lehergaien Erregelamendua onartzen duena.

8.– Meatzaritzan aplikatu beharreko ingurumen-legeria eta metodologia.

– Erauzketa-industrietako hondakinak kudeatzea eta eraginpeko espazioa birgaitzea:

975/2009 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, erauzketa-industrien hondakinak kudeatu eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta birgaitzeari buruzkoa, eta haren aldaketak.

– Euskadiko ingurumen-legea:

10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

– Ingurumen-ebaluazioari buruzko legea:

21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

– Parke Nazionalen legea:

30/2014 Legea, abenduaren 3koa, Parke Nazionalena.

– Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea:

42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

– Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legea:

26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen-erantzukizunari buruzkoa.

– Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legea partzialki garatzeko erregelamendua:

2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea partzialki garatzeko erregelamendua onartzen duena.

– Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko Legea:

34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzkoa.

– Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa:

100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta hura aplikatzeko oinarrizko xedapenak ezartzen dituena.

– Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina:

1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

– Substantzia arriskutsuekin izan daitezkeen arriskuak kontrolatzeko neurriak:

840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena.

– Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legea:

7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta Lurzoru Kutsatuena, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko.

– Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legea:

7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta Lurzoru Kutsatuena, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko.

208/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Hondakinen Arloko Finantza Bermeei buruzkoa.

9.– Meatzaritza-jarduera mugatzen duen sektore-legeria konkurrentea.

– Kostaldeei buruzko Legea:

22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa.

– Kostaldeen Erregelamendu Orokorra:

876/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, Itsasbazterren Araudi Orokorra onartzen duena.

– Uren Legearen testu bategina:

1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen

duena.

– Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua:

849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia onartzen duena, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atarikoa eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzekoa.

– Mendien Erregelamendua:

485/1962 Dekretua, otsailaren 22koa, Mendien Erregelamendua onartzen duena.

– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko Legea:

34/1998 Legea, urriaren 7koa, Hidrokarburoen Sektoreari buruzkoa.

– Hidrokarburoen Ikerketa eta Ustiapenari buruzko Legearen Erregelamendua:

2362/1976 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Hidrokarburoen Ikerketa eta Ustiapenari buruzko Legearen –1974ko ekainaren 27koa– Erregelamendua onartzen duena.

– Karbono dioxidoaren biltegiratze geologikoari buruzko legea:

40/2010 Legea, abenduaren 29koa, karbono dioxidoaren biltegiratze geologikoari buruzkoa.

– Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legea:

7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena.

10.– Meatzaritzako kartografiaren arloko legeria.

– Espainiako erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa:

1071/2007 Errege Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duena.

– Hazkundea, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurrien legea:

18/2014 Legea, urriaren 15ekoa, hazkundea, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituena.

– Sistema geodesikoaren aldaketak eragindako meatzaritza-eskubideak eta hidrokarburoen jabari publikoaren eskubideak kudeatzea:

294/2016 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa, Erreferentziako sistema geodesikoaren aldaketak eragindako meatzaritza-eskubideak eta hidrokarburoen jabari publikoaren eskubideak kudeatzeko prozedura ezartzen duena.

– Espainian dauden informazio geografikoko azpiegiturei eta zerbitzuei buruzko legea:

14/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, Espainian dauden informazio geografikoko azpiegiturei eta zerbitzuei buruzkoa.

11.– Meatzaritzan aplikatu beharreko nahitaezko desjabetzearen arloko legeria.

– Nahitaezko desjabetzeari buruzko legea:

1954ko abenduaren 16ko Legea, nahitaezko desjabetzeari buruzkoa.

– Lurzoruari buruzko Legearen Balorazioen Erregelamendua.

1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legeko Balorazioen Erregelamendua onartzen duena.

12.– Meatzaritza sustatzeari buruzko legeria.

– Meatzaritza Sustatzeko Legea:

6/1977 Legea, urtarrilaren 4koa, Meatzaritza Sustatzeko dena.

– Sozietateen gaineko zerga. IX. kapitulua, Meatzaritzaren zerga-araubideari buruzkoa:

43/1995 Legea, abenduaren 27koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.

– Meatzaritza Sustatzeko Legearen II. kapituluko III. tituluaren garapena:

1167/1978 Errege Dekretua, maiatzaren 2koa, Meatzaritza Sustatzeko urtarrilaren 4ko 6/1977 Legearen II. kapituluko III. titulua garatzen duena.

– Lehentasunezkotzat jotzen diren lehengai mineralak eta horiekin lotutako jarduerak.

Uztailaren 5eko 647/2002 Errege Dekretua, lehentasunezkotzat jotzen diren lehengai mineralak eta horiekin lotutako jarduerak finkatzen dituena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 43/1995 Legean jasotakoaren ondorioetarako.

13.– Meatzaritzaren sektoreko nahitaezko ikus-onespenari eta elkargo profesionalei buruzko arauak.

– Elkargoaren nahitaezko ikus-onespena:

1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, elkargoaren nahitaezko ikus-onespenari buruzkoa.

– Meatzeetako Ingeniari Teknikoen eta Meatzeetako Fakultatiboen eta Perituen Elkargo Ofizialen Estatutuak:

1001/2003 Errege Dekretua, uztailaren 25ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira Meatzeetako Ingeniari Teknikoen eta Meatzeetako Fakultatiboen eta Perituen Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak eta haien Kontseilu Nagusiarenak.

– Meatzeetako Ingeniarien Elkargoen eta haien Kontseilu Gorenaren estatutu orokorrak:

1278/2003 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, Meatzeetako Ingeniarien Elkargoen eta haien Kontseilu Gorenaren estatutu orokorrak onartzen dituena.

14.– Meatzaritzan aplikatu beharreko teknika espezifikoak.

– Urteko meatzaritza-estatistika nazionala: aipamen berezia Euskadiko meatze-sektoreen egungo egoerari eta egiturari.

– Euskadiko geologia eta hidrogeologia.

– Meatokiak: kontzeptua, sailkapena, tipologia, prospekzioa eta ikerketa.

– Harri industrialak: kontzeptua, sailkapena, tipologia, erabilerak.

– Meatze-proiektua: kontzeptua, ezaugarri bereziak, garapen-faseak, meatze-ustiapenen dimentsionamendua, bideragarritasun-azterlanak, ebaluazio ekonomikoa.

– Meatze-jarduerek ukitutako espazioa lehengoratzeko finantza-bermeak kalkulatzeko metodologia.

– Tunelen proiektua: geometria, geologia eta geoteknia, indusketa-, euste- eta estaldura-sistemak, instalazioak (iragazgaiztea, drainatzea, estaldura, zerbitzu-sareak, argiztapena, aireztapena, segurtasun- eta kontrol-instalazioak, instalazio eta zerbitzu osagarriak), auskultazioa eta kontrol geoteknikoa, segurtasun-neurriak.

– Leherketen diseinua bankuan: tipologia, lehergailuak, detonagailuak, esplosoreak, aldagaiak eta parametroak, diseinua, segurtasun-neurriak, bibrazioak eta aire-uhina.

– Leherketen diseinua tuneletan: tipologia, lehergailuak, detonagailuak, esplosoreak, aldagaiak eta parametroak, diseinua, segurtasun-neurriak, bibrazioak eta aire-uhina.

– Meatze-ustiapenen teknologia: arrankatzeko, zulatzeko, kargatzeko eta garraiatzeko makineria eta makina osagarriak; birrintzea eta ehotzea; garbitzea eta sailkatzea; biltegiratzea eta manipulatzea; drainatzea; sare eta instalazio elektrikoa; hautsa eta zarata kontrolatzea eta prebenitzea; segurtasun-neurriak.

– Zundaketak: kontzeptua, sailkapena, zulaketa-metodoak, egonkortze-metodoak, neurketak eta kontrola, segurtasun-neurriak. Ezaugarri eta metodologia zehatzak ura, petrolioa eta gasa biltzeko zundaketetarako, meatze-ikerketetarako, geoteknikoetarako, mineralak in situ erauzteko eta lurpeko barrunbeak aprobetxatzeko, geotermikoetarako, lursailak sendotzeko eta hondakinak ezabatzeko injekziorako.

III. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ITSASONTZIETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, ingeniaritza- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Itsasontzietako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsas Makinetako lizentziaren, Nautikako eta Itsas

Garraioko lizentziaren edo Ontzigintzako eta Ozeanoko Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsas Makinetako lizentziaren, Nautikako eta Itsas Garraioko lizentziaren edo Ontzigintzako eta Ozeanoko Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, lizentzia, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Oinarri-lerroak. Itsas barne-urak. Jurisdikziopeko urak. Alboko gunea. Ekonomia-eremu esklusiboa. Itsasoko Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (1982). 10/1997 Legea, urtarrilaren 4koa, jurisdikziopeko urei buruzkoa. 20/1967 Legea, apirilaren 8koa. 2510/1977 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, oinarri-lerro zuzenen trazadurari buruzkoa.

2.– Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa. Atxikipenak. Dragatzeak. 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa.

3.– Portua. Kontzeptua. Portu motak: arrantzakoa, merkataritzakoa, ur-aisialdikoa, industriakoa, mistoa. Portuen zonakatzea.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko portuetako jabari publikoa. Portuetako zerbitzugunea. 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. 236/1986 Dekretua, urriaren 21ekoa, Portuko Lanei buruzko Araudia onartzen duena.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumenak portuen eta itsas garraioaren arloan. 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.

6. – Portu-zerbitzu orokorrak eta espezifikoak. Prestazio-erregimena. 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Merkataritza Itsasketari buruzko Legearen testu

bategina onartzen duena. 236/1986 Dekretua, urriaren 21ekoa, Portuko Lanei buruzko Araudia onartzen duena.

7.– Portuko jabari publikoaren erabilera pribatiboa. Emakidak. Baimenak. 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa.

8. – Aisiako ontziak, arrantza-ontziak eta merkataritza-ontziak. Zerrendak. Azpisektore bakoitzeko ontzi eta itsasontzi mota nagusiak. Eskatutako tituluak. Erregistroko tonaje gordina. Itsasontzien banderaztatzea eta erregistroa. 875/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa. 98/2016 Errege Dekretua, martxoaren 11koa. 1435/2010 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa. 1434/1999 Errege Dekretua, irailaren 10ekoa. 1969ko ekainaren 23ko nazioarteko hitzarmena, itsasontzien erregistroko tonajeari buruzkoa. 1027/1989 Errege Dekretua, uztailaren 28koa.

9.– Euskadiko Kirol Portuak zuzenbide pribatuko ente publikoa. Xedea, eginkizunak, araubide juridikoa, antolamendua. 2/2018 Legea, ekainaren 28koa.

10.– Praktikaje-zerbitzua. Gaikuntza. Izendapena. Zerbitzua eman beharra. Praktikoaren edo portuko pilotuaren erantzukizuna. 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa. 393/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Praktikajearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

11.– Itsas Kutsadurari Aurre Egiteko Sistema Nazionala Azpisistemak. Itsas barne-planak. 1695/2012 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa. 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa.

12.– Barne larrialdi-planak eta autobabesekoak Planen egitura. Ezarpena eta jarraipena. Ariketak eta praktikak. 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa. 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa. 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa.

13.– Itsasontzietatik datozen hondakinak eta karga-hondakinak jasotzeko planak. Arrantzan nahi gabe harrapatutako hondakinak. Hondakin motak. Jasotze-instalazioak. Hondakinak jasotzeko eta kudeatzeko prozedurak. Itsasontziek eragindako kutsadura prebenitzeko Nazioarteko 1973ko Hitzarmena. 1978ko protokoloa. (73/78 MARPOL). (EB) 2019/883 Zuzentaraua, apirilaren 17koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena. 128/2022 Errege Dekretua, otsailaren 15ekoa. Batzordearen urtarrilaren 21eko 2022/92 (EB) Exekuzio Erregelamendua.

14.– Portu-instalazioak babesteko planak. Babesaren ebaluazioa. Babes-planak. Ebaluazioen eta planen edukia. Babes-mailak. Portu-esparruan itsas babesari buruzko araudia betetzen dela ikuskatzeko sistema. Itsasontziak eta Portu Instalazioak Babesteko Nazioarteko Kodea (PBIP Kodea). 2005/65/EE Zuzentaraua, urriaren 26koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena. 1617/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa. PCI/1188/2018 Agindua, azaroaren 15ekoa.

15.– Zerbitzu orokor eta berezietarako portu-tasak. 1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa. Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako zerbitzu orokor eta berezietarako tasak. 2/2018 Legea, ekainaren 28koa.

16.– Dirulaguntza-programak. Dirulaguntzen kudeaketa. Dirulaguntza izendunak. 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa.

17.– Itsas arrantza. Estatuko itsas arrantza. 6/1998 Legea, martxoaren 13koa. 3/2001 Legea, martxoaren 26koa.

18.– Arrantza-jardueraren nazioarteko antolamendua. Oinarrizko nozioak. Organismoak: FAO, ICCAT, ICES/CIEM.

19.– Europar Batasunaren arrantza-politika erkidea. Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1380/2013 (EB) Erregelamendua.

20.– Politika erkidearen arauak eta arrantza-politika erkidea betetzen direla bermatzeko kontrol-araubide erkidea. Kontseiluaren 2009ko azaroaren 20ko 1224/2009 (EE) Erregelamendua. Batzordearen 2011ko apirilaren 8ko 404/2011 (EB) Exekuzio Erregelamendua.

21.– Arrantza-sektorearen egitura-funtsak. Itsas-arloaren eta Arrantzaren Europako Funtsa. Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 508/2014 (EB) Erregelamendua.

22.– Zer kostuk izan dezakeen Itsas-arloaren eta Arrantzaren Europako Funtsaren finantzaketa, arrantzaleen higienea, osasuna, segurtasuna eta lan-egoera hobetzeko, itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestu eta berreskuratzeko, klima-aldaketa arintzeko eta arrantza-ontzien energia-eraginkortasuna handitzeko. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 508/2014 (EB) Erregelamendua. (EB) 2015/531 Erregelamendu Eskuordetua, 2014ko azaroaren 24koa, Batzordearena.

23.– Merkatuen antolamendu erkidea arrantzako eta akuikulturako produktuen sektorean. 1379/2013 (EB) Erregelamendua, abenduaren 11koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena.

24.– Arrantzako eta akuikulturako produktuetan kontsumitzaileentzako informazio-transmisioa eta trazabilitatea kontrolatzeko programa nazionala. 1224/2009 (EE) Erregelamendua, azaroaren 20koa, Kontseiluarena.

25.– Arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren arloko eskumenak. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketa Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuan.

26.– Euskal arrantza-ontzidiak arrantzan harrapatutako merkataritza-espezie nagusiak. Harrapaketen banaketa eta arrantza-arte eta -modalitate nagusiak. Garrantzi ekonomikoa. AAA/2534/2015 Agindua, azaroaren 17koa.

27.– Arrantzako produktuen lehen salmenta. Arrantzako produktuak erakutsi eta saltzeko lonjan eta establezimenduak. Erregulazioa. 418/2015 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa.

28.– Arrantza-ikuskaritzako zerbitzuaren antolamendua Euskal Autonomia Erkidegoan. Aplikatu beharreko legeak, eskumenak eta aplikazio-eremua. 67/1982 Dekretua, martxoaren 29koa.

29.– Euskal Autonomia Erkidegoko erauzketa-arrantzaren produkzio primariorako higiene-kontrol ofizialaren programa. Arrantzaren produkzio primarioko higiene-kontrol ofizialaren programa, PHPE 2021-2025.

30.– Antolakunde profesionalak arrantzako eta akuikulturako produktuen sektorean. Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-ekoizleen antolakundeak eta elkarteak kontrolatzeko programa. 277/2016 Errege Dekretua, ekainaren 24koa. Batzordearen abenduaren 17ko 1419/2013 (EB) Exekuzio Erregelamendua. Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren 2018ko maiatzeko kontrol-programa.

IV. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ITSASONTZIETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalako 2 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, ingeniaritza- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren

betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Itsasontzietako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsas Makinetako lizentziaren, Nautikako eta Itsas Garraioko lizentziaren edo Ontzigintzako eta Ozeanoko Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsas Makinetako lizentziaren, Nautikako eta Itsas Garraioko lizentziaren edo Ontzigintzako eta Ozeanoko Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Itsasontzietako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, lizentzia, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |

| | |
|---|---|
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalako lanpoltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Itsasontzietako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

V. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KARTOGRAFIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalan sartzeko tituluak: Ingeniaritza Geomatikoa, Topografia eta Kartografiako ikasketa-eremuko gradu- edo ingeniaritza-tituluak.

Ikasketa-eremuan sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostu guztietan, euskararen 2. edo 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizuna da lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Ingeniaritza Geomatikoa, Topografia eta Kartografiako teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Geodesia eta Kartografiako Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Geodesia eta Kartografiako Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa eta arkitektura teknikoa), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

GEODESIA

1.– Lurreko grabitate-eremua. Definizioa eta osagaiak.

2.– Erreferentzia-sistema geodesikoak. Geoidea. Itsasoaren batez besteko maila. Eraldaketa-

metodoak.

3.– Sare geodesikoak. Xedea eta definizioak.

4.– Posizionamendu-sistemak: GPS, GLONASS, Galileo.

FOTOGRAMETRIA

5.– Hegaldi fotogrametrikoa. Definizioa eta plangintza.

6.– Fotogrametria eta aerotriangelukatze analitikoa. Definizioak, iturriak eta erroreen tratamendua.

7.– Irudi digitala. Definizioak eta formatuak.

8.– Sentsoreak eta estazio fotogrametrikoak.

9.– Fotogrametria digitala. Irudien korrelazioaren definizioak eta algoritmoak.

10.– Lurraren eredu digitalak. Definizioak eta oinarriak.

11.– Ortoargazkia. Definizioak eta oinarriak.

TELEDETEKZIOA

12.– Teledetekzioa. Definizioak eta oinarriak.

13.– Lidar sentsoreak. Definizioak eta oinarriak. Aplikazioak.

14.– Irudien tratamendua eta zuzenketa. Definizioak eta teknikak.

15.– Espektro anitzeko irudien sailkapen automatikoa. Definizioak eta oinarriak.

16.– Radarra. Definizioak eta oinarriak. Aplikazioak.

TOPOGRAFIA

17.– Angeluen eta distantzien neurriak. Tresnak, erroreak, metodoak eta kalibrazioa.

18.– Sare topografikoak. Triangelukatzea eta trilaterazioa. Poligonazioa eta erradiazioa.

19.– Jasotze topografikoak. Definizioak eta oinarriak.

KARTOGRAFIA

20.– Proiekzioak. Definizioa, oinarriak eta tipologia.

21.– Mapa. Definizioak eta oinarriak.

22.– Teknika kartografikoak. Kalitatea.

23.– Bistaratze kartografikoa. Multimedia, 3D, Internet.

INFORMAZIO GEOGRAFIKOKO SISTEMAK

24.– Informazio geografikoko sistemak. Definizioak eta oinarriak.

25.– Datu-ereduak: bektorea eta raster. Definizioak, oinarriak eta formatuak.

26.– Datu geografikoak eskuratzeko metodoak.

27.– Datuen edizioa.

28.– Bektore- eta raster-analisia.

29.– Programazio-lengoaiak.

DATU ESPAZIALEN AZPIEGITURAK

30.– Datu espazialen azpiegiturak. Definizioak eta oinarriak.

31.– Datuen elkarreragingarritasuna. OGC estandarrak.

32– Metadatuak. Definizioak eta estandarrak.

DATUAK ESKURATZEKO PROGRAMAK

33. – CORINE, SIOSE, PNOA, COPERNICUS.

VI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KARTOGRAFIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako 2 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Sarbide orokorraren modalitatea: 2

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalan sartzeko tituluak: Ingeniaritza Geomatikoa, Topografia eta Kartografiako ikasketa-eremuko gradu- edo ingeniaritza-tituluak.

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostu guztietan, euskararen 2. edo 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizuna da lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Ingeniaritza Geomatikoa, Topografia eta Kartografiako teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Geodesia eta Kartografiako Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Geodesia eta Kartografiako Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko lan-poltsetan egoteagatik, Kartografiako Eskalan. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kartografiako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

## VII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INDUSTRIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako 12 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 11

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalan sartzeko tituluak:

– Industria-ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua, edo

– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

- B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

- Industria-ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

- Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Industria Ingeniaritzako teknikariaren kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industria Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industria Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren

betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |
| 073102 | Ingeniaritza geomatikoa, topografia eta kartografia |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industria Ingeniaritzako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Industriaren Legea. Segurtasun eta kalitate industrialak. Erregistro Integratu Industriala. Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren Legea; industria-jarduerak hasteko, funtzionatzeko, aldatzeko eta eteteko araubidea; Industria Erregistroa.

2.– Sektore Elektrikoari buruzko Legea. Garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta argindar-instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen errege-dekretua. Egiaztapen elektrikoak eta erregulartasuna horniduran.

3.– Sorkuntza elektrikoa eta autokontsumoa: energia berriztagarriko iturrien, kogenerazioaren eta hondakinen bidez energia elektrikoa ekoizteko jarduera. Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak.

4.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko Legea. Garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta gas naturalaren instalazioak baimentzeko prozedurak.

5.– Energia-efizientzia. Eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko prozedura. EAEko eraikinen energia-efizientzia ziurtatzea. Energia-auditoretzak. Energia-horniduraren efizientzia sustatzea. Energia-jasangarritasuna EAEn.

6.– Diseinu Industrialaren Babes Juridikoari buruzko Legea. Patenteen Legea eta Erregelamendua; Marken Legea eta Erregelamendua. Jabetza industrialaren arloko nazioarteko jabetza. Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

7.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) enpresan. Komunikazio-sareak, LAN, WAN, intraneta, estraneta. Automatizazioa, robotizazioa eta IKTen erabilera fabrikazioan (CAD, CAM, CIM). Intraneta: bilakaera eta eragina enpresan.

8.– 4.0 industria. Teknologia gaitzaileak: Adimen artifiziala, gauzen Interneta, Big Data. Errealitate birtuala/areagotua, zibersegurtasuna, robotika. Ezaugarriak, aplikazio-sektore nagusiak, funtzionalitatea eta etorkizuneko joerak.

9.– Bidaiarien hiri-garraioa. Autobus-geltokiak. Bidaiarien aldageltokiak. Hiri-mugikortasun jasangarriko planak. Disuasio-aparkalekuak. Metropoli-garraioaren agintaritzak. Edukiera handiko hiri-garraioko sistemak.

10.– Salgaien garraioa. Salgaien logistika eta garraio intermodala. Euskal Autonomia Erkidegoko zentro logistikoak. Salgai arriskutsuak.

11.- Itsas garraioa. Trafikoen egitura eta bilakaera. 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. Bilboko eta Pasaiako portu-agintaritzak, eta autonomia-erkidegoaren eskumeneko portuak.

12.– Aireko garraioa. Trafikoen egitura eta bilakaera. 1008/2008 (EE) Erregelamendua, EBn aire-zerbitzuak ustiatzeko arau komunei buruzkoa. Aireportuak kudeatzeko EAEko eredu integratua.

13.– Garraio-eskaria. Elastikotasunak. Garraioaren barneko eta kanpoko kostuak. Inbertsioen ebaluazio-irizpideak. Kostu-mozkinen analisia. Garraioaren finantzaketa eta tarifak.

14.– Ibilgailuen Azterketa Teknikoa. Ibilgailu automobilak konpontzeko tailerrak. Homologatzea

ibilgailu motordunak eta horien atoiak, makina autopropultsatuak edo atoian eramatekoak, nekazaritzako ibilgailuak eta horien sistemak, zatiak eta piezak. Ibilgailu historikoak.

15.– Goi-tentsioko instalazio elektrikoen baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko erregelamendua eta jarraibide tekniko osagarriak.

16.– Gas-erregaiak banatzeko eta erabiltzeko erregelamendu teknikoa eta jarraibide tekniko osagarriak. Gas-erregaien sare eta harguneei buruzko erregelamendua.

17.– Petrolio-instalazioen erregelamendua. Biltegiratze-parkeak. Ibilgailuak hornitzeko instalazioak. Instalatzaileak edo konpontzaileak; enpresa instalatzaileak edo konpontzaileak. Ibilgailuei erregaiak txikizka hornitzea EAEn.

18.– Substantzia arriskutsuekin gerta daitezkeen istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak.

19.– Suteen aurkako babes-instalazioen erregelamendua. Suteen aurka babesteko ekipoen eta sistemen ezaugarriak eta instalazioa.

20.– Proiektuen kudeaketa. Obren zuzendaritza. Obren jarraipena.

21.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea. Obra-kontratua. Zerbitzu-kontratua.

22.– Trafikoa kudeatzeko proiektuak ebaluatzeko metodologia.

23.– Bide-segurtasuneko neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.

24.– Garraio-sistema adimendunak (ITS).

25.– Trafiko-istripuak berregitea.

26.– Euskadiko industria. Ekonomian duen partaidetza. Industria-sektore nagusien aldagaiak aztertzea: Balio erantsia, inbertsioa, merkataritza-balantza, enplegua.

27.– Kontabilitatea enpresan. Egoera-orri finantzarioak: Balantzea eta emaitzen kontua. Aktibo eta pasiboko ondare-masak. Finantzaketa-iturriak eta oinarrizko finantza-oreka. Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria. Cash-flowa.

28.– Enpresaren kontzeptua. Enpresaren arlo funtzional bereizgarrienak: Hartzen dituen jarduerak eta edukia. Enpresa txiki eta ertaina. Enpresa multinazionalak. Enpresa-taldeak.

29.– Klima-aldaketa eta haren ondorioak. Klima-aldaketari buruzko legeria. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena. Isurien merkataritza. Klima-aldaketaren efektuak prebenitzea eta haietara egokitzea.

30.– Politika teknologikoa enpresan. Enpresaren estrategia teknologikoa diseinatzeko gakoak (produktua-merkatua-teknologia). Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza. Zaintza teknologikoa.

# VIII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INDUSTRIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako 29 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 28

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 6

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 22

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalan sartzeko tituluak:

– Industria-ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua, edo

– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Industria-ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Industria Ingeniaritzako teknikariaren kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia

espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industria Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industria Ingeniaritzaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa

izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |
| 073102 | Ingeniaritza geomatikoa, topografia eta kartografia |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Industria Ingeniaritzako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Industriako Eskalan, eta lehentasuna

emango zaie.

IX. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO MEDIKUNTZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako 28 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 27

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 9

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 14

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 2

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalan sartzeko tituluak: Medikuntzako ikasketa-eremuko gradu- edo lizentzia-tituluak.

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota

daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Laneko medikuntzako espezialistaren titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, 3 espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Medikuntzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Medikuntzako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 091401 | Ingeniaritza biomedikoa eta osasunekoa |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051202 | Bioteknologia |
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 054201 | Estatistika |
| 054101 | Matematikak |
| 054988 | Beste matematika batzuk eta estatistika |
| 031406 | Soziologia |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Medikuntzako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik,

gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Lan-arriskuen prebentzioari buruzko Legea (31/1995 Legea eta haren aldaketak): Xedea, aplikazio-esparrua eta definizioak; Prebentzio-ekintzaren printzipioak; Lan-ekipamenduak eta babes-tresnak; Langileen informazioa, kontsulta eta partaidetza; Langileen prestakuntza.

2.– Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, Osalan sortzekoa): Egitura organikoa. Funtzioak eta eskumenak.

3.– Prebentzio-zerbitzuetako oinarrizko osasun-unitateak antolatzea eta kudeatzea.

4.– Osasuna zaintzea. Zaintza indibiduala eta kolektiboa. Langileen osasun-zaintza espezifikorako protokoloak. Osasunaren zaintzaren orientaziorako oinarrizko gida eta gida orokorra. Lanposturako gaitasunaren balorazioa. Enpresan informazioa transmititzea. Alderdi etikoak.

5.– Laneko istripua eta gaixotasun profesionalak. Laneko gaixotasuna. Kontzeptua, jakinarazpena. Gaixotasun profesionalaren susmoaren komunikazioa.

6.– Laneko arrisku psikosozialen faktoreak. Karga mentala eta estresa. Neke profesionalaren sindromea (burnout). Jazarpen morala. Arrisku psikosozialen ebaluazioa. Jarduera-protokoloa.

7.– Bereziki kalteberak diren langileak babestea. Lanpostua egokitzea. Haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskuak. Laneko arriskuagatiko prestazioa.

8.– Antolamendu sanitarioa: Zentroak, establezimenduak eta zerbitzuak baimentzeari buruzko araudia. Osasun-arloko lanbideei buruzko araudia. Profesional Sanitarioen Euskal Erregistroa. Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen erregistro orokorra. Osasun-jardueren egiaztapena.

9.– Zerbitzu eta prestazioen zorroa.

10.– Osasunari buruzko informazio-sistemak. Historia klinikoa.

11.– Osasun-publizitatea.

12.– Osasun Sailaren 2021-2024 esparru estrategikoa. Egitura organikoa eta funtzionala.

13.– Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Plana. Lehentasunezko arloak. Ebaluazioa. Emaitzen urteko txostenak eta txosten sektorialak.

14.– EAEko gaur egungo biztanleen osasun-arazo nagusiak. Osasunaren determinatzaileak. Osasuna politika guztietan. Euskadiko biztanleriaren osasun-atlasa. Osasunaren Behatokiak bete

beharreko eginkizunak.

15.– EAEko Osasun Inkesta (EAEOI). Helburuak, metodologia eta emaitzak. Datu garrantzitsuak.

16.– Osasun arloko informazio-sistemak eta erregistroak. Hilkortasunaren erregistroa, ospitaleko alten erregistroa, minbiziaren erregistroa, haurdunaldia borondatez etetearen erregistroa, toxikomanien informazio-sistema, gaixotasun arraroen erregistroa, sortzetiko anomalien erregistroa.

17.– Programa-kontratua. Kontzeptua eta edukia. Kalitatearen eranskina (2. eranskina) eta haren ebaluazioa.

18.– Programa-kontratuaren kalitatearen eranskinean ebaluatzen diren plan eta estrategia nagusiak: Euskadiko Onkologia Plana, Bizitzaren Amaieran dauden Pazienteei Arreta Integratua emateko Plana, Adinekoei Arreta Emateko Plana, Pazientearen segurtasun-estrategia.

19.– Arreta soziosanitarioa Euskadin. 2021-2024 estrategia. Jarduketa-arloak eta proiektuak.

20.– Teknologia sanitarioen ebaluazioa. Helburuak eta metodoak. Ebaluazio-txostenak, berrikuspen-txostenak eta praktika klinikoko gidak.

21.– Osasun-sistema publikoaren oinarrizko araudia. 14/1986 Legea, Osasunaren Lege Orokorra. 16/2003 Legea, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa. 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena. Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunen zorroa.

22.– Aseguramendu sanitarioa. Osasun Txartel Indibiduala. Pertsonen eskubideak eta betebeharrak Euskadiko osasun-sisteman.

23.– Beste prestazio batzuk: Farmazia-prestazioa, farmakoak eta preskripzio- eta banaketa-baldintza bereziak dituzten beste produktu batzuk. Koordainketa farmazeutikoa. Prestazio ortoprotesikoa. Osasun-gastuak itzultzea. Osasun-garraioa. Etxeko arnasketa-terapiako teknikak.

24.– Aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra Gizarte Segurantzaren sisteman. Lege-esparrua eta oinarrizko kontzeptuak. Kudeaketan eta ebaluazioan inplikatutako eragileak. Bakoitzaren egitekoak.

25.– Osasun-administrazioaren ondare-erantzukizuna. Osasun Saileko ikuskaritza medikoaren zeregina. Peritu-txostena, egitura eta edukia.

26.– Ikuskaritza medikoaren beste egiteko batzuk: aurretiazko borondateak osasunaren arloan, aplikatu beharreko araudia, kontzeptuak eta aurretiazko borondateak emateko aktaren kudeaketa.

# X. ERANSKINA

# DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO MEDIKUNTZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako 47 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 45

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 10

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 30

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 3

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalan sartzeko tituluak: Medikuntzako ikasketa-eremuko gradu- edo lizentzia-tituluak.

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota

daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Laneko medikuntzako espezialistaren titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, 3 espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Medikuntzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Medikuntzako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 091401 | Ingeniaritza biomedikoa eta osasunekoa |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051202 | Bioteknologia |
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 054201 | Estatistika |
| 054101 | Matematikak |
| 054988 | Beste matematika batzuk eta estatistika |
| 031406 | Soziologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoan karrerako funtzionario –Medikuntzako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko lan-poltsetan egoteagatik, Medikuntzako Eskalan. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Medikuntzako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO FARMAZIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako 2 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hau da Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalan sartzeko titulua: Farmaziako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Farmaziako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren

lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

Titulu bakarra ikasketa-eremu berean, sartzeko alegatutako eremu berekoak ez dira baloratuko.

baloratuko da bakoitzeko. Era betekizun gisa tituluaren ikasketa-diren tituluak ere

7. oinarri adierazitako argitaratuko dira

orokorrean lekuetan ikasketa-eremu

bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Sendagaien Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legea. Kontzeptua eta oinarrizko printzipioak. Sendagaiak eta osasun-produktuak erregistratzeko, baimentzeko eta finantzatzeko prozedurak.

2.– Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia. Antolamendua eta funtzioak.

3.– Farmazia-bulegoen antolamendu farmazeutikoa: Eremu farmazeutikoak. Sorrera, lekualdaketa, itxiera, funtzionamendua, transmisioa. Distantziak eta neurtzeko prozedurak. Obrak. Betekizun teknikoak eta materialak. Azaleraren banaketa. Giza baliabideak. Jendaurreko ordutegiak. Gutxieneko izakinak. Botika-kutxak eta atalak.

4.– Farmazia-zerbitzuak osasun-establezimenduetan. Ospitaleko Farmazia Zerbitzuak (OFZ). Ospitaleko Sendagai Biltegiak(OSB).

5.– Establezimendu soziosanitarioak. Sendagai-biltegiak. FARMABIDE.

6.– Banaketa farmazeutikoa. Hornidura, kontserbazioa eta banaketa. Banaketarako baimenak eta jardunbide egokiak.

7.– Sendagaiak eta substantzia estupefazienteak. Farmazia-establezimenduetako kontrola.

8.– Albaitaritzako sendagaiak. Banaketa- eta emate-establezimenduak. Albaitariaren errezeta. Salbuespenezko emateak.

9.– Formulazio magistrala. Forma farmazeutiko topikoak, likidoak eta solidoak. Formula esterilak.

10.– Ikuskaritza. Kalitatea kudeatzeko sistemak: Kontzeptu orokorrak: Lan-prozedura normalizatuak (LPN), jarraibideak, erregistroak. Arriskuen ebaluazioa. Kualifikazioak/balidazioak. Trazabilitatea.

11.– Sendagaien arrazoizko erabilera. Kontzeptua. Oinarrizko printzipioak. Sendagaiak hautatzeko irizpideak, sendagai berrien ebaluazioa. Posizionamendu terapeutikoak. Esparru autonomikoan sendagaiak hobeto erabiltzeko komiteak eta batzordeak.

12.– Sendagai biosimilarrak.

13.– Zaharren farmakoterapia eta sendagaien hautaketa.

14.– Diabetesa, hipertentsioa eta hiperlipemiak tratatzeko farmakoterapia eta sendagaien hautaketa.

15.– Kardiopatia iskemikoa eta bihotz-gutxiegitasuna tratatzeko farmakoterapia eta sendagaien hautaketa.

16.– Haustura osteoporotikoak eta patologia osteoartikularrak prebenitu eta tratatzeko farmakoterapia eta sendagaien hautaketa.

17.– Paziente kronikoaren medikazioari heltzea: tratamendua egokitzea, pazientea informatzea, kontziliatzea, berrikustea, preskribatzea eta atxikitzea.

18.– Euskadiko farmakozaintza-sistema.

19.– Sendagaien informazio-iturriak.

20.– Haurdunaldian eta edoskitzaroan sendagaiak erabiltzea.

21.– Sendagaiak eta osasun-produktuak preskribatu eta ematea. Medikuaren errezeta eta errezeta elektronikoa esparru nazionalean eta autonomikoan.

22.– Preskripzio edo emate murritzeko baldintzei lotutako sendagaiak kudeatzea.

23.– Egoera berezietako sendagaiak kudeatzea.

24.– Farmazia-prestazioa. Zerbitzuen zerrenda.

25.– Zentro soziosanitarioetako farmazia-prestazioa.

26.– Osasuna sustatzeko programak eta hitzarmenak: kontziliazioa, atxikimendua, jarraipen farmakoterapeutikoa, medikazioaren berrikuspena.

27.– Faktura farmazeutikoa. Zirkuitua. Eranskinak. Fakturaren adierazleak.

28.– Informazio-sistemak. Izendegia. Vademecuma. OBIE.

29.– Preskripzio-profilak. Euskadiko farmazia-kontsumoak.

30.– Sendagaien eta osasun-produktuen prezioen ministerioarteko batzordea. Definizioa, funtzioak.

XII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO FARMAZIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako 14 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

Sarbide orokorraren modalitatea: 14

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 12

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hau da Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalan sartzeko titulua: Farmaziako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie

erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Farmaziako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta

gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Farmaziako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ALBAITARITZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako 3 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hau da Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalan sartzeko titulua: Albaitaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Albaitaritzako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |
| 081101 | Animalien zientzia eta ekoizpena |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Albaitaritzako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana

baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Europar Batasuneko elikadura-legeen printzipio eta betekizun orokorrak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urtarrilaren 28ko 178/2002 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez elikagaiei buruzko legeetarako printzipio eta betekizun orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen baitira.

2.– Europar Batasunaren esparruko higiene-betekizun orokorrak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 29ko 852/2004 (EE) Erregelamendua, elikagaien higieneari buruzkoa. Elikagaien enpresei eta abeltzaintzako ustiategietako produkzio primarioari aplikatzekoak diren higiene-betekizun orokorrak.

3.– Animalia-jatorriko elikagaietarako arau espezifikoak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 853/2004 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez arau espezifikoak ezartzen baitira animalia-jatorriko elikagaien higienerako. Elikagaien enpresetako operadoreen betebeharrak.

4.– Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legea (2011/07/06ko BOE)

5.– Elikagaien enpresetan arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak aztertzeko sistemak. Euskadiko erreferentzia-estandarra:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/seg_alimentaria/eu_def/adjuntos/AAKPKestandarra.pdf

6.– Alerta-sistemak: Elikagai eta pentsuetarako alerta azkarreko sistema (RASFF).

7.– Kontrol ofizialak eta beste jarduera ofizial batzuk: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 15eko (EB) 2017/625 Erregelamendua, kontrolei eta gainerako jarduera ofizialei buruzkoa.

8.– Haragi-ekoizpenaren gaineko kontrol ofizialak: Haragi-ekoizpenaren gaineko kontrol ofizialak egiteko arau espezifikoei buruzkoa 2019ko otsailaren 8ko 2019/624 (EB) Erregelamendu Delegatua.

9.– Animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak: Batzordearen martxoaren 15eko 2019/627 (EB) Exekuzio Erregelamendua, zeinaren bidez xedapen praktiko uniformeak ezartzen baitira animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak egiteko.

10.– Euskal Autonomia Erkidegoko espezie handien hiltegietako kontrol ofizialaren normalizazioa.

11.– Animalien ongizatea, lege-esparrua eta aplikazio praktikoa hiltegietan eta garraioan:

– Kontseiluaren 2004ko abenduaren 22ko 1/2005 (EE) Erregelamendua, garraioan eta garraioari lotutako jardueretan animaliak babesteari buruzkoa, 64/432/EEE eta 93/119/EE zuzentarauak eta 1255/97 (EE) Erregelamendua aldatzen dituena.

– Kontseiluaren 1099/2009 (EE) Erregelamendua, 2009ko irailaren 24koa, hiltzeko unean animaliak babesteari buruzkoa.

– 32/2007 Legea, azaroaren 7koa, animaliak zaintzekoa, ustiatu, garraiatu, saiakuntzak egin eta hiltzeko orduan.

– 37/2014 Errege Dekretua, urtarrilaren 24koa, animaliak hiltzeko orduan haiei eman behar zaien babesaren gaineko zenbait alderdi arautzen dituena.

– Hiltegitik kanpo hiltzea: 1086/2020 Errege Dekretua.

2021/1374 (EB) Erregelamendua.

12.– Hausnarkariak, txerri-azienda, ekidoak, hegaztiak eta lagomorfoak hil aurretiko ikuskaritza (antemortem):

– Alderdi orokorrak.

– Agirien kontrola.

– Elikakateari buruzko informazioa. 361/2009 Errege Dekretua, 2009ko martxoaren 20koa, hiltzeko animaliek izan behar duten elikakateari buruzko informazioa arautzen duena.

– Animaliaren identifikazioa: Animalien Trazabilitaterako Sistema Integrala (SITRAN), Animalien Banakako identifikazioaren Erregistro Orokorra (RIIA), Abere Mugimenduen Erregistro Orokorra (REMO), Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorra (REGA).

– Animalien osasun-egoeraren balorazioa.

– Animalien ongizate-baldintzak egiaztatzea.

– Hil aurreko ikuskaritzaren irizpena (antemortem).

– Hil aurreko ikuskaritzaren emaitzak (antemortem) jakinaraztea.

13.– Hausnarkariak, txerri-azienda, ekidoak, hegaztiak eta lagomorfoak hil osteko ikuskaritza (postmortem):

– Alderdi orokorrak.

– Hil ostean (postmortem) ikuskatzeko metodologia.

– Laginak hartzea.

– Hil osteko ikuskaritzaren irizpena (postmortem).

– Kanalen markaketa sanitarioa.

– Hil osteko ikuskaritzaren emaitzak (postmortem) jakinaraztea.

14.— Hondakinen ikerketa:

– 96/23/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1996ko apirilaren 29koa, animalia bizidunengan eta haien produktuetan, substantzia jakin batzuei eta horien hondakinei aplikatu ahal zaizkien kontrol-neurriei buruzkoa.

– Hondakinak ikertzeko plan nazionala.

– 1749/1998 Errege Dekretua, uztailaren 31koa, zeinaren bidez finkatzen baitira substantzia jakin batzuei eta substantzia horiek bizirik dauden animalietan eta haien ekoizkinetan uzten dituzten hondakinei aplikatu beharreko kontrol-neurriak (1998.08.07ko BOE).

15.– Operadore ekonomikoaren jardueraren gaineko kontrola: baimena eta erregistroa, instalazioen kontrola, lanak eta higienea. Autokontroleko auditoretzak.

16.– Irizpide mikrobiologikoak betetzen direla egiaztatzea:

– Batzordearen 2001/471/EE Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira establezimenduen ustiatzaileek egindako higiene-kontrol erregularretarako arauak.

– Batzordearen azaroaren 15eko 2005/2073 (EE) Erregelamendua, kanalen azterketari aplikatu beharreko irizpide mikrobiologikoei buruzkoa, eta ondorengo aldaketak.

– 2017/1495 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 2073/2005 (EE) Erregelamendua, gizentzeko oilaskoetan campylobacterra zaintzeari dagokionez.

17.– Trikinen kontrola. Batzordearen abuztuaren 10eko 2015/1375 (EB) Exekuzio Erregelamendua, zeinaren bidez arau espezifikoak ezartzen baitira haragian trikinarik dagoen ikusteko kontroletarako.

18.– Entzefalopatia espongiforme transmitigarrien kontrola:

– 2007ko ekainaren 29ko 2007/453/EE Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baita estatu kideen, hirugarren herrialdeen edo haien eskualdeen egoera BSE-Behien entzefalopatia espongiformeari begira duten BSE arriskuaren arabera.

– Abenduaren 22ko 3454/2000 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezarri eta arautzen baita animalien entzefalopatia espongiforme transmitigarriak zaindu eta kontrolatzeko programa integral koordinatua.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 22ko 999/2001 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baitira entzefalopatia espongiforme kutsagarri jakin batzuk prebenitu, kontrolatu eta desagerrarazteko xedapenak.

Batzordearen ekainaren 25eko 722/2007 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 999/2001 (EE) Erregelamendua.

19.– Zoonosiaren kontrola:

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 17ko 2160/2003 (EE) Erregelamendua, elikagaiek transmititutako salmonella eta bestelako eragile zoonotiko espezifiko batzuk kontrolatzeari buruzkoa.

– Irailaren 27ko 1940/2004 Errege Dekretua, zoonosia eta eragile zoonotikoak zaintzeari buruzkoa (2004.10.01eko BOE).

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 17ko 2003/99/EE Zuzentaraua, zoonosia eta agente zoonotikoak zaintzeari buruzkoa, Kontseiluaren 90/424/EEE Erabakia aldatu eta Kontseiluaren 92/117/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.

– Zaintzako programa nazionalak.

Https://www.mapa.gob.es/es/ganaderia/temas/sanidad-animal-higiene-ganadera/sanidad-animal/zoonosis-resistencias-antimicrobianas/zoonosis.aspx

– Europar Batasuneko zoonosiari buruzko One Health txostena.

Https://www.efsa.europa.eu/es/efsajournal/pub/6406

20.– Albaitarien nahitaezko deklarazioa behar duten gaixotasunak: Ekainaren 20ko 526/2014 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita nahitaez deklaratu beharreko animalia-gaixotasunen zerrenda, eta haien jakinarazpena arautzen.

21.– Animalia-gaixotasunak desagerrarazteko programa nazionalak:

– 2611/1996 Errege Dekretua, abenduaren 20koa.

– 8/2003 Legea, apirilaren 24koa, animalien osasunari buruzkoa

22.– Azpiproduktuen kontrola:

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 21eko 1069/2009 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez osasun-arauak ezartzen baitira giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatzeko, eta 1774/2002 Erregelamendua (SANDACH erregelamendua) indargabetu.

– 1528/2012 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituena.

– 60/2012 Dekretua, apirilaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuen arloko eginkizunak antolatzeari eta banatzeari buruzkoa.

23.– Etiketak eta trazabilitatea:

– 1698/2003 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, Behi-aziendaren haragia etiketatzeko sistemari buruzko Europako Erkidegoaren erregelamenduak aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko uztailaren 17ko 1760/2000 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez sistema bat ezartzen baita behi-espezieko animaliak identifikatu eta erregistratzeko eta behi-okela etiketatzeko, eta Kontseiluaren 820/97 (EB) Erregelamendua indargabetu.

– Batzordearen abuztuaren 25eko 1825/2000 (EE) Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1760/2000 (EE) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak behi-okela eta hura oinarri duten produktuak etiketatzeari dagokionez.

24.– Europako higieneari buruzko erregelamenduak aplikatzeko malgutasun-irizpideak: 1086/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko higienearen arloan Europar Batasunak emandako xedapenak aplikatzeko zenbait baldintza arautzen eta malgutzen dituena eta xedapen horien aplikazio-eremutik kanpo utzitako jarduerak arautzen dituena.

XIV. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ALBAITARITZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako 15 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 9

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 5

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hau da Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalan sartzeko titulua: Albaitaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Albaitaritzako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |
| 081101 | Animalien zientzia eta ekoizpena |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Albaitaritzako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa

eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Albaitaritzako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

# XV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako 24 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 23

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 6

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 16

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio Sistemetako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 061201 | Datu-baseen diseinua eta administrazioa |
| 061301 | Softwarearen eta aplikazioen garapena |
| 061304 | Adimen artifiziala |
| 061901 | Informatika |
| 071401 | Konputagailuen ingeniaritza |
| 071403 | Telekomunikazio-ingeniaritza |
| 071402 | Soinuaren eta irudiaren ingeniaritza |
| 071405 | Ingeniaritza elektronikoa |
| 054101 | Matematikak |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– 3 urteko esperientzia izatea administrazio publikoetan SAP proiektuak kudeatzen.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Informazio Sistemetako teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren,

hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan

arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, diploma, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 061201 | Datu-baseen diseinua eta administrazioa |
| 061301 | Softwarearen eta aplikazioen garapena |
| 061304 | Adimen artifiziala |
| 061901 | Informatika |
| 071401 | Konputagailuen ingeniaritza |
| 071403 | Telekomunikazio-ingeniaritza |
| 071402 | Soinuaren eta irudiaren ingeniaritza |
| 071405 | Ingeniaritza elektronikoa |
| 054101 | Matematikak |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 071901 | Industria-antolakuntzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informatikako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

Oinarrizko teknologiak: Sistema eragileak eta DB

1.– Sistema eragileak: definizioa, kontzeptuak, oinarriak eta osaera; bilakaera eta joerak. 2Windows Server eta UNIX: administrazioa, instalazioa, kudeaketa, zerbitzuak, erabiltzaileak, segurtasuna, komunikazioak.

2.– Datu-baseak — DB —: Eredu erlazionala. E/R eredua. Normalizazioa. Datu-base erlazionalak diseinatzea. Datu-baseen sistemen arkitektura. Datu-baseak kudeatzeko sistemak —DBKS—. ANSI-SPARC erreferentzia-eredua.

3.– Teknologia emergenteak: Kontzeptua, sailkapena eta aplikazioak.

Komunikazioak, sareak eta Internet

4.– Komunikazio-sareak. Kontzeptuak. Transmisio-bideak. Zirkuituen eta paketeen kommutazioa. Sarbide-azpiegiturak. Datuak bideratzeko eta transmititzeko protokoloak: motak, sareen arteko interkonexioa, elementu aktiboak.

5.– Sare lokalak: Kontzeptuak, arkitektura, tipologia, transmisio-bideak, elementuak eta sarbide-metodoak. Gailuen eta erabiltzaileen plangintza, administrazioa eta kudeaketa. Sareak interkonektatzeko ekipoak eta kableatu-sistemak. Trafikoaren monitorizazioa eta kontrola. SNMP kudeaketa. LAN, VLAN eta WAN sareak.

6.– IP sareak: sareen arkitektura, bideraketa eta zerbitzuaren kalitatea. IPv4 / IPv6 trantsizioa eta bizikidetza. IPv6ren funtzionalitate espezifikoak. TCP/IP, ICMP eta UDP protokoloak. Domeinu-izenen sistemak (DNS). Oinarrizko aplikazioak: Telnet, FTP eta SMTP.

7.– Interneteko sarea: jatorria, bilakaera eta ezaugarriak. Interneten oinarritutako zerbitzuak. Interneten erabiltzen diren lengoaiak eta teknologiak: HTML, CSS, XML, JavaScript, AJAX. Web nabigatzaileak eta estandarrekiko bateragarritasuna. Gauzen Internet (IoT).

8.– Intranet eta Estranet sareen arkitektura. Kontzeptua, egitura eta ezaugarriak. Erakundeetan

ezartzea. Geruzen eredua: aplikazio-zerbitzariak, datu-zerbitzariak, zerbitzari-granjak. DNS eta DHCP zerbitzariak.

9.– WEB informazioa zabaltzea: diseinua eta maketazioa, irisgarritasuna, erabilgarritasuna eta web-analitika. W3C. Diseinu unibertsala. Web-diseinu moldagarria. Bilaketa-tresnak. Tresna kolaboratiboak. Edukien sindikazioa. 2.0 weba. Web semantikoa.

10.– Web aplikazioen garapena. «Front-end» arkitektura. J2EE. Bezeroaren «script»ak. «Framework»ak. UX — «User eXperience» —. Transakzioen segurtasuna, datu-baseetarako konexioa eta sistema eta zerbitzuekiko interkonexioa. Web zerbitzuak. REST vs SOAP. Interneteko Aplikazio Aberatsak (RIA).

Informazio-sistemen ingeniaritza

11.– Software ingeniaritza: Eskakizunen ingeniaritza-prozesuak, sistema modelatzea, arkitektura diseinatzea, diseinua eta inplementazioa, probak eta bilakaera. Prototipoak egitea sistemen garapenean. Bizi-zikloaren modeloak eta faseak.

12.– Analisi eta diseinu egituratua: datu-hiztegia, datu-fluxuaren diagrama. Objektuetara bideratutako analisia eta diseinua: objektuak, klaseak, herentzia eta metodoak. Modelatze-lengoaia bateratua (UML). Banatutako objektuen arkitekturak.

13.– Sistemen analisi funtzionala: metodo arinak. SCRUM: ikuspegi eskematikoa. Definizioak: Scrum erakundeak, kontzeptuak, prozesuak eta rolak. Estimazioak, etengabeko entrega —sprintak—, atzera begirakoak eta etengabeko hobekuntza, arriskuak kudeatzea, erabiltzailearen historiak eta epikak kudeatzea, balioa entregatzea. Kanban taulak.

14.– Sistemak garatzeko metodologia, prozesuari begira. Sistemen analisi dinamikoa: prozesuak modelatzea, modelatze dinamikoa eta BPMN —«Business Process Model and Notation»—. Sistema transakzionalak aztertzeko eta diseinatzeko teknikak.

15. – Aplikazioen migrazioa dimentsio-doikuntzako eta zaharkitze teknikoko prozesuen esparruan. Konfigurazioa eta bertsioak kudeatzea. Inguruneak kudeatzea. Informazio-sistemen berringeniaritza eta alderantzizko ingeniaritza.

16.– Sistemak mantentzea. Mantentze prediktiboa, moldatzailea eta zuzentzailea. Mantentze-lanak planifikatzea eta kudeatzea.

Informazio-sistemak antolatzea eta kudeatzea.

17.– Informazio-sistemen zentro baten antolaketa eta funtzionamendua. Funtzioak: garapena, mantentze-lanak, sistemak, datu-baseak, komunikazioak, segurtasuna, kalitatea, mikroinformatika eta erabiltzaileei arreta ematea.

18.– Informazio-sistemen definizioa, egitura eta dimentsionamendu efizientea. Informazio-sistemen plangintza estrategikoa: kontzeptuak eta metodologia. 3 METRIKA. Baliabideak kudeatzea, proiektuen jarraipena egitea eta erabakiak hartzea.

19.– IKT proiektuen kudeaketa: Proiektu baten definizioa eta ezaugarriak. Proiektuaren bizi-zikloa. Proiektua zuzentzeko prozesuak. Proiektu-zuzendaritzako jakintza-arloak. Baliabideen eta ahaleginaren estimazioa. Metodologia prediktibo —GANTT, PERT, PMBOK, PRINCE2— eta arinak —LEAN, SAFe—. Kontrola eta jarraipena.

20.– Kalitatea informazio-sistemetan. Kalitate-bermea softwarea ekoizteko prozesuan. Softwarearen kalitatearen ebaluazioa eta metrikak. Kalitatea kudeatzeko sistemak. Normalizazioa eta ziurtatzea: CMMI eredua, ISO 15504 araua eta ISO 9004 zerbitzuetarako gida.

21.– Cloud Computing: definizioa, onurak eta arriskuak, zerbitzu- eta hedapen-ereduak —IaaS, PaaS, SaaS...—. Hodei pribatuak, publikoak eta hibridoak.

Datuen babesa eta segurtasuna.

22.– Segurtasun-arauak sistema informatikoetan: fisika —biometria, segurtasun-kopiak, etab.— eta logika —sarbideen kontrola, eraso informatikoen prebentzioa...—.

23.– Informazioa berreskuratzeko sistemak. Informazioa biltegiratze-euskarrietan kontserbatzeko politikak, prozedurak eta metodoak. Backup-sistemak: backup-estrategiak eta RPO informazioaren eskuragarritasuna. Erreplikazio lokala eta urrunekoa.

24.– Segurtasuna sareetan. Eraso motak eta horiek prebenitzeko tresnak: sarbideen eta intrusioen kontrola, teknika kriptografikoak, trafiko lokalaren monitorizazioa. Segurtasun perimetrala: IDS / IPS detekzio- eta prebentzio-sistemak. Suebakia: motak eta teknologiak.

25.– Zibersegurtasuna: NISTaren zibersegurtasun-esparrua. SOC, SIEM eta EDR. CERT/CSIRT zentroak. DDOS erasoen aurkako babesa. Komunikazio mugikorretarako neurri espezifikoak: MDM soluzioak eta BYOD estrategiak.

26.– Sistema korporatiboetarako urruneko sarbidea: identitateen kudeaketa, «single sign-on» eta telelana. VPN eta sistemen, datu-zentroen eta lanpostuen birtualizazioa —VDI—.

27.– Kriptografia: Definizioa eta sistema kriptografikoen motak. Zifratze-algoritmo simetrikoak eta asimetrikoak. «Hash» funtzioa. Notariotza. «Blockchain» arkitekturak. «Smart contracts». Nodo-sarea. Blokearen egitura.

28.– 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena. Datuen segurtasunaren oinarrizko printzipioak eta dimentsioak: autentifikazioa, konfidentzialtasuna, eskuragarritasuna, osotasuna eta trazabilitatea. Gutxieneko betekizunak. Segurtasunaren Eskema Nazionalera egokitzea. Kriptologia Zentro Nazionalaren (CCN) gidak eta tresnak.

29.– Informazio-sistemen eta barne-kontrol informatikoko sistemen auditoria: Kontzeptua eta edukiak. Administrazioa, planteamendua, antolaketa, azpiegitura teknikoa eta praktika operatiboak. Arrisku informatikoak aztertzea eta ebaluatzea: MAGERIT.

Antolaketa eta Berrikuntza Publikoa

30.– Politika publikoen ebaluazioa. Ebaluazioaren izaera. Ebaluazio motak. Ebaluazioaren faseak. Irizpideak. Ebaluazio-txostena.

31.– Gobernu irekia eta gardentasuna: Herritarren parte hartzea. Parte-hartzearen dimentsioak. Parte hartzeko prozesuaren ezaugarriak. Parte hartzeko prozesuak ebaluatzea. Gobernu Irekirako Aliantza. OGP – Euskadi. Gardentasuna eta informazio publikorako irispidea. Integritate instituzionaleko sistemak.

32.– Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa aurreratuaren eredua: Helburuak. Ezaugarri orokorrak. Ardatzak. Eredua ezartzeko ekintzak. Kudeaketa-ebaluazioak eta hobekuntza-planak.

33.– Proiektuen kudeaketa: Proiektuen ezaugarriak. Proiektuen faseak. Proiektuak kudeatzeko metodologiak eta tresnak. Proiektuen kudeaketaren helburuak.

34.– Aginte-taula integrala: Aginte-taula kudeaketa-estrategia gisa. Adierazleak. Aginte-taula sortzeko prozesua. Aginte-taula integrala administrazio publikoan.

35.– Administrazio elektronikoa: Administrazio publikoek Interneten duten presentzia eta egoitza elektronikoa. Identifikazio eta sinadura elektronikoak. Administrazio-prozedura bitarteko elektronikoen bidez. Dokumentu elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Elkarreragingarritasuna administrazio elektronikoaren esparruan.

36.– Datuen gobernantza administrazio publikoetan: Datuaren gobernantza eta berrikuntza publikoa. Datuen heldutasun-eredua. Datuaren kudeaketaren esparru funtzionala. Data Driven Gobernua eta Datuaren Estrategia. Datu irekiak eta sektore publikoaren informazioa berrerabiltzea. Open Data Euskadi.

37.– Adimen artifiziala: Adimen artifiziala administrazio publikoan aplikatzea. Adimen artifiziala eta berrikuntza administrazio publikoan. Administrazio-jarduera automatizatua. Adimen artifizialaren berme juridikoak administrazio-jardueran.

XVI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INFORMAZIO-SISTEMETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako 21 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 20

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 5

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 13

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio Sistemetako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 061201 | Datu-baseen diseinua eta administrazioa |
| 061301 | Softwarearen eta aplikazioen garapena |
| 061304 | Adimen artifiziala |
| 061901 | Informatika |
| 071401 | Konputagailuen ingeniaritza |
| 071403 | Telekomunikazio-ingeniaritza |
| 071402 | Soinuaren eta irudiaren ingeniaritza |
| 071405 | Ingeniaritza elektronikoa |

| | |
|---|---|
| 054101 | Matematikak |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– 3 urteko esperientzia izatea administrazio publikoetan SAP proiektuak kudeatzen.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Informazio Sistemetako teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazioaren Sistema eta Teknologietako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, diploma, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 061201 | Datu-baseen diseinua eta administrazioa |
| 061301 | Softwarearen eta aplikazioen garapena |
| 061304 | Adimen artifiziala |
| 061901 | Informatika |
| 071401 | Konputagailuen ingeniaritza |
| 071403 | Telekomunikazio-ingeniaritza |
| 071402 | Soinuaren eta irudiaren ingeniaritza |
| 071405 | Ingeniaritza elektronikoa |
| 054101 | Matematikak |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 071901 | Industria-antolakuntzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Informatikako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalako lanpoltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Informazio-sistemetako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

# XVII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako 11 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 6

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko teknikarien kidego, eskala edo kategorian (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 032201 | Informazioa eta dokumentazioa |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 032101 | Komunikazioa |
| 032102 | Kazetaritza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen

diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko –lehengo A taldeko– Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Marka-lengoaiak eta eduki digitalen kodetzea artxiboen eta liburutegien esparruan.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Liburutegietako eta artxiboetako aplikazioa.

XML formatua (Extensible Markup Language): Definizioa eta ezaugarriak.

Records in context: kontzeptu-eredua eta ontologia.

XML eta artxibo-deskribapena: EAD (Encoded Archival Description) EAC-CPF (Encoded Archival Context-Corporate bodies, Persons and Families) eta EAG (Encoded Archival Guide): Definizioa eta ezaugarriak.

XML eta deskribapen bibliografikoa. Dublin Core: Definizioa eta ezaugarriak.

XML eta deskribapen bibliografikoa. MARC: Definizioa eta ezaugarriak.

METS (Metadata Encoding and Transmission Standards): Definizioa eta ezaugarriak.

Web semantikoa: Helburua, ezaugarriak.

Linked Open vocabularies eta Linked Open Data.

OAI-PMH biltzaileak (Open Archives Initiative – Protocol for Metadata Harvesting): Definizioa eta ezaugarriak.

2.– Edukien zabalkundea artxiboen eta liburutegien esparruan.

Artxibo-informazioa zabaltzeko atariak. Ezaugarriak eta edukiak.

– Espainiako artxibo-ataria (PARES).

– Europako artxibo ataria, EUROPEANAren artxibo-edukien hornitzaile gisa.

– Errolda-ataria - Espainiako eta Iberoamerikako artxibo-gida.

– Dokuklik.

– EAEko sektore publikoko artxibo-sistemarako lineako irispide publikoko katalogoa (OPAC).

Euskadiko liburutegi-informazioa zabaltzeko atariak. Ezaugarriak eta edukiak.

– EAEko liburutegi digitala: EUSKARIANA eta EUROPEANArekiko harremana.

– E-liburutegia eta Liburuklik.

– Euskadiko irakurketa publikoko sarea.

3.– Babes digitala artxibo eta liburutegietan.

Objektu digitalak babesteko teknikak eta metadatuak.

OAIS eredua.

PREMIS ekimena (Preservation Metadata: Implementation Strategies): Metadatu-entitateak.

Fitxategietako sinadura elektronikoa eta formatuak gordetzeko prozesuak.

Babes-tekniketako estrategiak.

ISO 11799: information and documentation: document storage requirements for archive and library materials. Geneva: ISO, [2003].

e-Ark proiektua (European Archival Records and Knowledge Preservation).

ARTXIBOAK ETA DOKUMENTU-KUDEAKETA.

4.– Estatuko eta Euskadiko artxiboen arloko araudia.

Estatuaren Administrazio Orokorraren fitxategi-sistema.

Justizia Administrazioaren fitxategi-sistema.

Euskal Autonomia Erkidegoko fitxategi-sistema eta haren aurrekaria, Euskadiko Artxiboen Sistema Nazionala (EASN).

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore Publikoko artxibo-sistema eta haren aurrekaria, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioko Artxibo Sistema.

Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordea eta haren aurrekariak (COVASAD eta COVASED/DOBAUBA).

Justizia Administrazioaren espurgo- edo garbitze-batzordeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseilua.

5.– Artxibistika: Definizioa eta printzipioak.

Definizioa.

Artxibo-zientziak eta -teknika osagarriak

Jatorriaren printzipioa.

Dokumentuen jatorrizko edo berezko ordena errespetatzeko printzipioa.

Dokumentuen bizi-zikloa eta «records management».

«Continuum» kontzeptua edo dokumentuen jarraitutasuna.

6.– Dokumentuak eta artxiboak. Kontzeptu orokorrak, definizioa.

Dokumentuaren kontzeptua.

Dokumentuaren ezaugarriak.

Dokumentuaren balioak.

Dokumentuen tipologia. Diplomatika.

Administrazio-laguntzako dokumentuak.

Artxiboaren kontzeptua.

Artxibo-motak eta -funtzioak: publikoak eta pribatuak.

Artxibo-mailak. Funtzioak.

7.– Dokumentu elektronikoa.

Definizioa eta ezaugarri espezifikoak.

Dokumentu elektronikoen osagaiak.

Metadatuak: Definizioa. Dokumentu elektronikoak kudeatzeko metadatuen eskema (e-EMGDE).

Sinadura elektronikoa: Sinadura-motak.

Elkarreragingarritasuna: Definizioa.

Dokumentu elektronikoaren elkarreragingarritasun-arau teknikoa.

Dokumentuen kopia autentikoa.

Kopia autentiko elektronikoek paperezko dokumentuak ordeztea.

Dokumentu elektronikoak epe luzera gordetzea.

8.– Espedientea.

Definizioa eta osagaiak.

Eraketa eta antolaketa.

Espediente elektronikoa.

Espediente elektronikoaren elkarreragingarritasun-arau teknikoa.

Aurkibide elektronikoa.

9.– Dokumentu-funtsen sailkapena.

Sailkapen-irizpide teorikoak.

Sailkapen-taulen tipologia.

Dokumentu-multzoen mailak (funtsa, azpifuntsa, atala, azpiatala, seriea, azpiseriea, bilduma, dokumentu-unitate sinplea eta konplexua),

EAEko sektore publikoko artxibo-sistemaren sailkapen-taula (EAEko Administrazio Publikokoa, lege berria onartu aurretik).

10.– Dokumentu-kudeaketa.

Oinarrizko printzipioak

Artxibatzeko prozesu teknikoak: antolatzea, instalatzea, sartzea, transferitzea, topografiatzea.

Dokumentu elektronikoak kudeatzea.

Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikaren elkarreragingarritasunerako arau teknikoa.

MoReq: Artxiboetako dokumentu elektronikoak kudeatzeko eskakizunen Europako eredua.

ISO 15489 eta 23081.

Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikaren auditoretzak.

11.– Artxibo-informazioa deskribatzea eta trukatzea.

Deskribapen-tresnak: Gidak, katalogoak, inbentarioak, erroldak.

Artxibo-deskribapena egiteko nazioarteko araua (ISAD(G)): Zer den, zertarako balio duen, zein diren arauak, zein diren informazio-arloak.

Entitate, pertsona eta familien artxibo-goiburu baimenduei buruzko nazioarteko ISAAR (CPF) araua: Zer den, zertarako balio duen, zein diren informazio-arloak.

Funtsak zaintzen dituzten funtzioak eta erakundeak deskribatzeko nazioarteko araua (ISDF): Zer den, zertarako balio duen, zein diren informazio-arloak.

Artxibo-funtsak zaintzen dituzten erakundeak deskribatzeko nazioarteko araua (ISDIAH): Zer den, zertarako balio duen, zein diren informazio-arloak.

Artxibo-deskribapena egiteko Espainiako araua. Deskribapen artxibistikoaren kontzeptu-eredua: NEDA-MC: Zer den, zein den aplikazio-eremua.

Dokumentu elektronikoen deskribapena. Encoded Archival Description (EAD).

ICA-Atom ekimena.

12.– Administrazio elektronikoa eta haren aplikazioa Euskadiko sektore publikoan. Araudia eta antolamendua.

Estatuko araudia:

39/2015 eta 40/2015 legeak eta erregelamendua.

Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala eta haren arau teknikoak.

Segurtasunaren Eskema Nazionala.

Arau autonomikoak.

Eusko Jaurlaritzaren dokumentuak kudeatzeko eredua.

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuen katalogoa.

– EAEko sektore publikoko artxibo-sistemako sailkapen-taula.

Artxibo elektroniko bakarra eta Dokusiren fitxategi nagusiak.

13.– Dokumentuen balorazioa eta hautaketa.

Baloratzeko irizpideak. Dokumentuen balioak.

Funtsezko dokumentuak.

Kontserbazio-egutegiak eta haien egitura.

Hautatzeko eta garbitzeko irizpideak, motak eta gauzatzeko moduak.

Balorazio-batzordeak. Prozedura.

EAEko sektore publikoko artxibo-sistemaren eta EAEko artxiboetarako sistemen prozedura (COVASAD, COVASED/DOBAUBA, COVASADE).

Justizia Administrazioaren espurgo- edo garbitze-batzordeen prozedura.

Dokumentu-ondarea. Ezaugarriak, babes- eta sustapen-neurriak, kontrol-tresnak: Dokumentu-ondarearen inbentarioa.

14.– Artxiboetako dokumentuetarako eta informazio publikorako irispidea.

Araudia.

Informazio publikoaren berrerabilpena.

Artxibo-dokumentuetarako eta artxiboetako informaziorako irispidea izateko mugak.

Artxiboetako irispide-prozedurak. Haztapena.

Gardentasun aktiboa: sektore publikoaren informazioa eskuragarri jartzea.

Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-ataria: GARDENA.

Open Data.

LIBURUTEGIAK ETA DOKUMENTAZIOA.

15.– Liburuen, liburutegien eta jabetza intelektualaren arloko araudia Estatuan eta Euskadin.

Euskadiko liburutegi-sistema.

Lege-gordailua. Definizioa eta helburua.

Argitalpen digitalen lege-gordailua.

Euskadiko lege-gordailua. Egoera.

Jabetza intelektuala, liburutegien kudeaketan arreta berezia jarrita.

16.– Liburutegia eta dokumentazio-zentroa: Definizioa, ezaugarriak, motak eta funtzioak.

Liburutegiaren definizioa.

Dokumentazio-zentroaren definizioa.

Liburutegi-motak eta haien funtzioak.

Liburutegi hibridoa: definizioa eta ezaugarriak.

Liburutegi digitala: definizioa eta ezaugarriak.

Erakunde-errepositorioak. Alderdi teknikoak: metadatuak, elkarreragingarritasuna, babesa eta digitalizazioa.

17.– Bilduma bibliografikoa kudeatzea.

Bilduma: edukiak hautatzeko irizpideak, eskuratze-motak (erosketa, dohaintza, gordailua, trukea, lege-gordailua) eta eskuratzea.

Funtsen antolaketa.

Bildumaren tratamendu fisikoa: erregistratzea, zigilatzea, topografiatzea, azaleztatzea.

Bildumaren kontrola: aldizkako zenbaketa edo inbentariatua.

Espurgo-irizpideak.

Bikoiztuen kudeaketa.

18.– Material bibliografikoak sailkatzea eta normalizatzea.

SHU: sailkapen hamartar unibertsala.

Gaien goiburuak eta autoritateen kontrola. Kontzeptua, helburuak, araudia, nazioarteko joerak, FRAD, FRSAD, VIAF YSKOS proiektu nagusiak.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko autoritateen kontrola.

ISBN (International Standard Book Number).

ISSN (International Standard Serial Number).

DOI (Digital Object Identifier).

19.– Material bibliografikoak katalogatzea: Arauak, estandarrak, formatuak eta sistemak.

Deskribapenaren nazioarteko printzipioak.

Nazioarteko deskribapen bibliografiko normalizatua (ISBD).

Katalogazio-arauak.

RDA estandarra (Resource Description and Access). Entitatea-erlazioa ereduaren oinarriak.

Erregistro bibliografikoen MARC21 formatua.

Autoritateen MARC21 formatua.

IBERMARC formatua.

Katalogazio kooperatiboa eta katalogazio zentralizatua.

Katalogo kolektiboa.

Liburutegiak kudeatzeko sistema integratuak. Ezaugarriak eta prestazioak.

Absysnet.

20.– Baliabide elektronikoen kudeaketa.

Eskuratzea.

Katalogazioa.

Liburu eta aldizkari elektronikoei buruzko datu-baseak. Harpidetza-motak. IP bidez ezagutzea, Erabiltzaile konkurrenteak. Erabilera-estatistikak.

21.– Liburutegi-zerbitzuak.

Erabiltzailearentzako informazio-zerbitzua.

Dokumentu primariora iristeko zerbitzua.

Irakurgelaren antolaketa.

Mailegu indibiduala, kolektiboa eta liburutegiartekoa.

Informazioaren zabalkunde selektiboa eta alerta-sistemak.

Zabalkundea: OPAC.

Liburutegien bidez kultura-zerbitzuak sustatu eta bultzatzea.

22.– Irakurketa-sareak, liburutegi-lankidetza, zabalkunde-atariak.

Euskadiko irakurketa publikoko sarea.

Ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa.

Bilgunea: Euskadiko katalogo kolektiboa.

Liburubila.

EBiblio.

DIALNET.

Nazioarteko erakundeak: UNESCO, IFLA, ISO.

23.– Liburutegietako dokumentuetarako eta informazio publikorako irispidea.

Araudia.

Liburutegietako datu pertsonalen babesa.

Jabetza intelektuala, copyright eta copyleft, obra zurtzak, jabari publikoa.

Objektu digitalen erabiltzaile-lizentzia orokorrak: PDM, Creative Commons, ccZero lizentziak.

Material bibliografikoetara iristeko mugak.

Egile-eskubideak kudeatzeko entitateak: zer diren, zer egiten duten, nola funtzionatzen duten. Kopiaren kanona.

XVIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako 19 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 18

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 13

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 4

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren

betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko teknikarien kidego, eskala edo kategorian (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 032201 | Informazioa eta dokumentazioa |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 032101 | Komunikazioa |
| 032102 | Kazetaritza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo

autonomoetako Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko –lehengo A taldeko– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XIX. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INGURUMENEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako 5 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 4

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

- B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Ikasketa-eremu hauetako gradu-, ingeniaritza- edo lizentzia-tituluak: fisika, industria-teknologietako ingeniaritza, ingeniaritza elektrikoa, industria-elektronikaren eta -automatikaren ingeniaritza, ingeniaritza mekanikoa, industria-kimikaren ingeniaritza edo ehun-ingeniaritza.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Ingurumeneko teknikarien

kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten

lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Erradiazioaren izaera eta erradiazio-motak. Erradiazioaren eta materiaren arteko interakzioa. Magnitude eta unitate erradiologikoak. Erradiazioa detektatu eta neurtzea. Dosimetria. Erradiazioaren eta ingurumen biologikoaren arteko interakzioa.

2.– Energia nuklearraren legea. Instalazio nuklearrei eta erradioaktiboei buruzko erregelamendua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eskualdaketa. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eginkizun-gomendioaren erabakia.

3.– Instalazio erradioaktiboak. Sailkapena eta salbuespenak. Baimenak. Funtzionamendu-zehaztapenak. Ikuskatzeak. Instalazioetako langileak. Operazio-egunkaria, artxiboak, txostenak.

4.– Erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko erregelamendua. Praktiketarako dosiaren justifikazioa, optimizazioa eta muga. Eraginpeko langileen, ikasleen eta prestakuntzakoen ikasleen babes operazionala. Eremuen sailkapena. Esposizioaren ebaluazioa. Eraginpeko langileen osasun-zaintza. Pertsonen babes erradiologikoa esposizio medikoetan

5.– Diagnostiko medikoa egiteko xedez X izpien aparatuak instalatu eta erabiltzeari buruzko araudia. Ekipo eta instalazioak deklaratu eta erregistratzea. Instalazioen operazioa. Babes erradiologikoko zerbitzuak eta unitate teknikoak.

6.– Ekipoak eta material erradioaktiboa errepideetan garraiatzea. Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide-garraioari buruzko Europako Akordioan (ADR). Babes erradiologikoko neurriak. Pertsonala. Larrialdietako jarduketak.

7.– Biztanleen egoera arruntetako babes erradiologikoa. Larrialdi nuklear edo erradiologikoetako esku-hartzea. Aplikatu beharren irizpide erradiologikoak. Gertakari erradiologikoen jakinarazpena. Ingurumenaren zaintza erradiologikoa.

8.– Iturri erradioaktiboen babes fisikoa. Iturri erradioaktiboak sailkatzeko irizpideak. Babes-sistema eta funtzioak. Kategorien araberako babes-eskakizunak. Lekualdatu bitarteko babesa. Babes fisikorako plana.

9.– Segurtasun Nuklearreko Kontseilua. Funtzioak. Egitura. Gobernu-organoak. Pertsonala. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren estatutua.

10.– Hondakin erradioaktiboak. Hondakin erradioaktiboen plan orokorra. Kudeaketa. Sailkapena. Desklasifikazioa. Enresa - Empresa Nacional de Residuos Radiactivos SA.

11.– Diagnostikoko X izpien kalitate-irizpideak. Kalitatea bermatzeko programa. Prozedurak. Ekipamendua: betekizunak, onarpena, erreferentzia-egoerak. Kalitate-kontrola. Onartzeko irizpideak.

12.– Kalitate-irizpideak erradioterapian eta medikuntza nuklearrean. Kalitatea bermatzeko programa. Prozedurak eta tratamenduak. Ekipamendua.

13.– Euskal Autonomia Erkidegoko geografia fisiko orokorra: erliebea, arro hidrografikoak, klima, geomorfologia, lurzoruak eta landaredia. Lurpeko ura eta akuiferoak. Euskal Autonomia Erkidegoko lehorreko eta itsasoko ekosistema adierazgarrienak.

14.– Informazioaren teknologiak, informazio geografikoko sistemak eta haiek ingurumen-politiketan duten aplikazioa. Euskal Autonomia Erkidegoko gaikako kartografia eta ingurumeneko beste informazio-iturri espezifiko batzuk.

15.– Euskal Autonomia Erkidegoko naturaren kontserbazioa. Natura-balio nagusiak eta haien kontserbazio-egoera. Natura-intereseko espezieak eta espazioak. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua. Gaiari buruzko nazioarteko hitzarmenak. Naturagune babestuak eta haien kudeaketa. Espezie babestuak eta haien kudeaketa.

16.– Espazioak eta espezieak babesteko alderdi espezifikoak: itsasertzeko eta itsasoko ingurunea; ibai-ingurunea eta hezeguneak; basoak. Paisaia babestea. Espezie exotiko inbaditzaileen sarrera eta hedapena prebenitu eta kudeatzea. Genetikoki eraldatutako organismoen arloko araubide

juridikoa eta kudeaketa.

17.– Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua. Ingurumen-ebaluazio motetako prozedurak eta metodologiak. Ingurumena zaintzeko programak, helburuak eta diseinua. Natura 2000 sarean eragina daukaten plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa: ingurumen-azterketen eduki espezifikoak; konpentsazio-neurriak.

18.– Kutsaduraren kontrol integratua, ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bakarra. Aplikatzekoa den araudia. Prozedura eta izapideak. Dokumentazio teknikoa. Teknika erabilgarri onenak eta isurtzeko muga-balioak. Aarhusko hitzarmeneko emisio eta transferentzia kutsagarriak erregistratzeko PRTR protokoloa. Jarraipena eta kontrola. Ingurumen-ikuskaritza. IMPEL eta REDIA.

19.– Klima-aldaketaren oinarrizko kontzeptuak. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko gaiko lege-esparrua. Klima-aldaketaren aurkako estrategiak eta tresnak. Emisio eskubideen salerosketako Europako sistema. Klima-aldaketaren ondorioen ebidentzia zientifikoa. Klima-aldaketaren ondorioen aurkako babesa eta egokitzeko estrategiak.

20.– Ingurumenaren arloko informaziorako irispidea eta parte-hartze publikoa. Aarhus Hitzarmena. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua.

21.– Ingurumen-erantzukizuna. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua. Erantzukizun objektiboa eta subjektiboa. Prebenitu, saihestu eta konpontzeko betebeharra. Finantza-bermeak eta ingurumen-arriskuen analisia.

22.– Lurzoru kutsatuak: kontzeptu orokorrak, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak, lurzoruaren kalitatearen ikerketa, arriskuen analisia, lurzoru kutsatuak berreskuratzeko teknologiak.

23.– Lurzorua ez kutsatzeko eta, hala bada, zuzentzeko araudi autonomikoa. Lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko bitartekoak Kutsatzaileak eta ebaluatzeko gako-balioak Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozedurak. Salbuesteko prozedura.

24.– Euskadiko lurzorua babesteko 2030erako estrategia: Europako eta EAEko esparrua, helburuak, ildoak eta jarduteko gai-eremuak.

25.– Hondakinen arloko araudi orokorra. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta Lurzoru Kutsatuena, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko. Hondakinak lekuz aldatzeko araudia.

26.– Europako Batzordearen ekonomia zirkularreko ekintza-plana eta maila autonomikoan duen garapena. EAEko hondakinak kudeatzeko plana.

27.– Hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak. Kodetzea eta sailkatzea. Birziklatzeko sistemak eta balorizatzeko beste modu batzuk. Deuseztatzeko eta errausteko tratamenduak eta araudia.

28.– Atmosferaren kutsadura. Emisio-prozesuak, kutsatzaile motak eta osasunean, ekosistemetan eta materialetan duten eragina. Airearen kalitatearen, emisioen eta muga-balioen arloko araudia. Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak katalogatzea. Isuriak arazteko eta kontrolatzeko sistemak. Kutsatzaileen immisioa. Airearen kalitate-ebaluazioa.

XX. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO INGURUMENEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako 41 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 39

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 2

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 28

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 7

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |

| | |
|---|---|
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Ikasketa-eremu hauetako gradu-, ingeniaritza- edo lizentzia-tituluak: fisika, industria-teknologietako ingeniaritza, ingeniaritza elektrikoa, industria-elektronikaren eta -automatikaren ingeniaritza, ingeniaritza mekanikoa, industria-kimikaren ingeniaritza edo ehun-ingeniaritza.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Ingurumeneko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-

harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ingurumeneko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

# XXI. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura Administrazioko Eskalako 8 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 021201 | Diseinua |
| 021301 | Arte ederrak |
| 021302 | Artearen historia |
| 021401 | Kontserbazioa eta zaharberritzea |
| 021501 | Arte eszenikoak |
| 021502 | Musika |
| 022202 | Historia |
| 031401 | Antropologia soziala eta kulturala |
| 031403 | Kultura-ikasketak eta -kudeaketa |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan

daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Kultura Administrazioko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa,

gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arte Ederretako lizentziaren edo Historiako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arte Ederretako lizentziaren edo Historiako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 021201 | Diseinua |
| 021301 | Arte ederrak |
| 021302 | Artearen historia |
| 021401 | Kontserbazioa eta zaharberritzea |
| 021501 | Arte eszenikoak |
| 021502 | Musika |
| 022202 | Historia |
| 031401 | Antropologia soziala eta kulturala |
| 031403 | Kultura-ikasketak eta -kudeaketa |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 031201 | Politika eta kudeaketa publikoa |
| 041303 | Kudeaketa eta administrazio publikoa |
| 031202 | Nazioarteko harremanak |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 042101 | Zuzenbidea |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Historiako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalako lanpoltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 36 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– 4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa. Memoria demokratikoaren kudeaketa.

2.– Gogora Institutuaren abiapuntuak

3.– Gogora Institutuaren orientazioa eta ildo estrategikoak

4.– Gerra Zibilean eta Frankismoan Euskadin izandako giza eskubideen urraketen oinarrizko txostenaren lehen fasea: Gerra Zibilean eta lehen frankismoan hildakoak (1936-1945)

5.– Euskadin desagertuak bilatzeko eta hobitik ateratzeko proiektua.

6.– Gogoragune, Gogoraren erakusketa-proiektua. Edukiak eta espazioan duten antolamendua.

7.– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzeei buruzkoa. I. titulua, II. kapitulua. Dirulaguntza publikoetarako xedapen komunak. II. titulua. Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedura.

8.– 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. II. kapitulua. Sektore publikoko kontratuak.

9.– 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. I. kapitulua. Fundazioa. II. kapitulua. Administrazioaren esku-hartzea eta antolaketa fundazioen arloan.

10.– 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa. III. kapitulua. Elkarteen eraketa. V. kapitulua. Barne-antolaketa eta -funtzionamendua. XII. kapitulua. Elkartegintzaren eta onura publikoaren aitorpena.

11.– 146/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duena. II. kapitulua. Onura publikoaren aitorpena. https://www.euskadi.eus/y22–bopv/es/bopv2/datos/2008/08/0804937a.pdf

12.– Euskal Kultura Ondarearen Legea. 6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

13.– Euskadiko Museoei buruzko Legea.

14.– Jabetza Intelektualari buruzko Legea. 24/2021 Errege Lege Dekretua, Jabetza Intelektualari buruzko Legea aldatzen duena 2019/789 eta 2019/790 Europako zuzentarauak txertatzeko.

15.– Kultura-plana 2019–2022.

16.– Kultura Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2021-2024.

17.– Kultura auzolanean.

18.– Lurralde-antolamenduko eta ingurumen-ebaluazioko araudia eta tresnak.

19.– Artistaren estatutua. Etorkizuneko aukerak artistentzat eta kultura-arloko profesionalentzat.

20.– Kultura eta garapen jasangarria. Kulturaren eta jasangarritasunaren arteko harremana. Garapen jasangarria agenda politikoan. Jasangarritasunak kulturan duen presentziari buruzko irakurketak. Estrategiak eta tresnak Kulturaren Euskal Behatokia. Kultura eta jasangarritasuna, 2019

Kultura-kudeaketa

21.– Kontzeptu-esparrua. Kulturaren balio publikoa. Kultura-politika publikoak. Kultura-eskubideak. Jasangarritasuna.

22.– Kultura-kudeaketa. Proiektua. Ebaluazioa. Kultura-eragileen tipologia. Balio-kateko faseak. EAEko hirugarren sektore kulturala. Kultura-espazioak.

23.– Ikusleen kudeaketa. Parte-hartze kulturala. Kultura-kontsumoa sustatzeko politikak. Kultura-komunikazioa. Kultura-ohitura digitalak. Kultura-komunitatearen kontzeptua.

24.– Kulturaren Euskal Behatokia. Kulturaren Euskal Behatokia. Kulturklik.

25.– Kultura-kudeaketa COVIDaren osteko aroan.

Kultura-sektoreak

26.– Liburua. Liburuaren negozioa. Irakurketa. Liburutegiak. Argitaletxe independenteak. Liburu-dendak. Irakurketa-klubak. Liburuaren eta irakurketaren kultura-politikak gomendio gisa. EAEko barne-merkataritzaren egoera.

27.– Musika. Negozio-eredua Espainian. Kontsumo digitala. Musika Bulegoa eredua.

28.– Ikusizko arteak. Historia hurbila. Eremuak.

29.– Arte eszenikoak. Arte eszenikoen kudeaketa. SAREA antzoki-sarea. Kaleko arte eszenikoak.

30.– Ikus-entzunezkoa. Ikus-entzunezkoen sektorea Espainian. Paradigma-aldaketa euskarazko zineman.

Kultura- eta sormen-industriak (KSI)

31.– Marko teorikoa. KSI politiken garapena Euskadin.

32.– BDCC (Basque District of Culture and Creativity). Zerbitzuak. KSIGune. Gaitasunen mapa. Unibertsitatea-enpresa programa.

Kultura-ondarea.

33.– Arkitekturaren eta hirigintzaren historia.

34.– Material arkeologikoen tipologia eta ikerketa-metodoak.

35.– Euskadiko kultura-ondarea. Historiaurreko arkeologia. Aztarnategiak eta karakterizazioa.

36.– Euskadiko kultura-ondarea. Erromatarren garaiko, Erdi Aroko eta Erdi Aro ondoko arkeologia.

37.– Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko material arkeologikoak kontserbatzea eta kudeatzea.

38.– Euskadiko kultura-ondarea. Aro moderno eta garaikideko arkitektura.

39.– Euskadiko kultura- eta industria-ondarea.

40.– Euskadiko ondare kultural-higigarria.

41.– Euskadiko ondare kultural-immateriala.

42.– Euskadiko itsas ondare kulturala.

43.– Gatazka belikoaren ondarea.

44.– Kultura-ondarearen zabalkundea.

45.– Euskadiko museo-egitura eta euskal museoen katalogo kolektiboa. EMSIME.

46.– Museologia modernoa eta teknologia berriak.

47.– Museoa egungo gizartean. Gizarte-dinamikak, jasangarritasuna eta irisgarritasuna. 2030 Agenda.

# XXII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KULTURA-ADMINISTRAZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura Administrazioko Eskalako 5 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 4

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 021201 | Diseinua |
| 021301 | Arte ederrak |
| 021302 | Artearen historia |
| 021401 | Kontserbazioa eta zaharberritzea |
| 021501 | Arte eszenikoak |
| 021502 | Musika |
| 022202 | Historia |
| 031401 | Antropologia soziala eta kulturala |
| 031403 | Kultura-ikasketak eta -kudeaketa |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan

daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Kultura Administrazioko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arte Ederretako lizentziaren edo Historiako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arte Ederretako lizentziaren edo Historiako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 021201 | Diseinua |
| 021301 | Arte ederrak |
| 021302 | Artearen historia |
| 021401 | Kontserbazioa eta zaharberritzea |
| 021501 | Arte eszenikoak |
| 021502 | Musika |
| 022202 | Historia |

| | |
|---|---|
| 031401 | Antropologia soziala eta kulturala |
| 031403 | Kultura-ikasketak eta -kudeaketa |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 031201 | Politika eta kudeaketa publikoa |
| 041303 | Kudeaketa eta administrazio publikoa |
| 031202 | Nazioarteko harremanak |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 042101 | Zuzenbidea |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Historiako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalako lanpoltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kultura-administrazioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XXIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO KIROLETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 101401 | Jarduera fisikoa eta kirola. |
| 101402 | Kirol-kudeaketa |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Prestigioko entitate batek edo unibertsitate batek egiaztatutako graduondokoa, entrenamenduko edo kirol-errendimenduko 450 ordukoa gutxienez.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Kiroletako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 101401 | Jarduera fisikoa eta kirola. |
| 101402 | Kirol-kudeaketa |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 031201 | Politika eta kudeaketa publikoa |
| 041303 | Kudeaketa eta administrazio publikoa |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren

hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Kiroletako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

# XXIV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-SEKTOREKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskalako 9 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 5

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 4

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalan sartzeko tituluak:

– Nekazaritza Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua, edo

– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun

izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– B2 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Nekazaritza Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza Ingeniaritzaren edo Mendi Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza Ingeniaritzaren edo Mendi Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza eta diploma):

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 042101 | Zuzenbidea |
| 051202 | Bioteknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 051201 | Biokimika |
| 081101 | Animalien zientzia eta ekoizpena |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 091601 | Farmazia |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu

ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Mintegiak. Motak. Produkzio-bitartekoak, instalazioak eta produkzio-teknikak, produkzio-orientazioen arabera: apaingarriak, baratzekoak, frutakoak, basokoak.

2.– 19/1995 Legea, nekazaritza-ustiategiak modernizatzekoa. Lehentasunezko nekazaritza-ustiategiak eta labore-unitate minimoak. Euskal Autonomia Erkidegoko erregulazioa.

3.– Abeltzaintzako espezieen identifikazioa eta erregistro ofizialak. Identifikazio-sistemak. Legedia.

4.– 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.

5.– 1305/2013 (EB) Erregelamendua: landa-garapenerako laguntzak. EAEko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programa. NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (2023-2027) Edukiak eta programak.

6.– Prezio- eta merkatu-politika. Nekazaritza-produktuen merkatuen antolamendu bateratua sortzen duen 1308/2013 (EB) Erregelamendua. Prezioen, laguntzen eta esku-hartzearen araubidea. Neurri horizontalak. Landa-garapenaren orientazioa.

7.– NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen lehenengo zutabea. Nekazaritza bermatzeko Europako funtsa (NBEUF/FEAGA) Laguntzen baldintzapena, modulazioa eta desakoplamendua. NPEren 2013ko erreforma. Oinarrizko ordainketaren erregimen berria eta beste ordainketa desaklopatu batzuk.

8.– NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen bigarren zutabea. Landa-garapena. Aurrekariak. LGENF-Landa-garapenerako Europako nekazaritza-funtsa, nekazaritza-funts gisa, eta EIE-Europako egitura- eta inbertsio-funtsa.

9.– Nekazaritza-politika erkidea eta baldintzapena. Araudia: Abenduaren 19ko 1076/2014 Errege Dekretua eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzekoa: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak. Euskal Autonomia Erkidegoko aplikazioa.

10.– Landa-garapenaren erronkak Euskadin. Landa-ingurunearen despopulazioa. Gazteen eta emakumeen eginkizuna. Landa-ingurunearen berrikuntza eta digitalizazioa. Erronka horiei aurre egiteko tresnak landa-garapeneko politikan.

11.– Esne gordina ekoizteko baldintza higieniko-sanitarioak eta haren trazabilitatea. Q letra. Kontrol-programa.

12.– Nekazaritza-ustiategien erregistroa. 203/2011 Dekretua, irailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustiategien erregistro orokorrari buruzkoa.

13.– Elikagaien kalitatea. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 21eko

1151/2012 (EB) Erregelamendua. Kalitate bereizia: jatorri-deitura babestua (JDB), adierazpen geografiko babestua (AGB), berezitasun tradizional bermatua (BTB). Ardoen, gazten eta bestelako elikagai eta nekazaritza-produktuen erreferentzia. Erkidegoko erregistroa. Euskadiko kalitate bereiziaren karakterizazioa.

14.– Ekoizpen ekologikoa. Euskadiko ekoizpen ekologikoaren karakterizazioa, bilakaera eta garapena. Euskadiko araudia eta kontrola. ENEEK-Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua. Ekoizpen integratua: ezaugarriak, araudia eta bilakaera.

15.– Eremu kalteberak. Nitratoek ura kutsatzea. Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera.

16.– Informazio geografikoko sistemak. 1077/2014 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, nekazaritzako lursailen informazio geografikoko sistema arautzen duena. Otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzekoa: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak.

17.– Elikagaien kalitatea kontrolatzeko sistemak: Europar Batasuneko eta Euskadiko araudia. Trazabilitatea eta autokontrola. Kontsumitzaileari elikagaiez ematen zaion informazioari buruzko Europar Batasuneko legeak.

18.– Landare-osasuna Euskadin: Landare Osasunaren 43/2002 Legea, abuztuaren 24ko 739/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez xedapenak ematen baitira Europar Batasunak landareak izurrietatik babesteko neurriei eta arlo horretan egin beharreko kontrolei eta bestelako jarduera ofizialei buruz emandako araudia Espainian aplikatzeko. Batzorde fitosanitario nazionala. Ikuskaritza fitosanitarioko zerbitzua. Euskadiko izurrite interesgarri nagusiak.

19.– Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria: 2009/128/EE Zuzentaraua eta 1311/2012 Errege Dekretua. Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarrirako ekintza-plan nazionala. Produktu fitosanitarioak nola merkaturatu eta erabiltzen diren zaintzeko programak. Osasun-defentsarako bitartekoen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala.

20.– 30/2006 Legea, uztailaren 26koa, mintegiko hazi eta landareei eta baliabide fitogenetikoei buruzkoa. Mintegiko landareak eta haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu tekniko orokorra. Barietateen erregistroa.

21.– Lagun egiteko animaliak: identifikazioa eta erregistroa. Halakoak izateko arauak. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak. Legegintza eta eskumen-banaketa.

22.– 8/2003 Legea, Animalien Osasunari buruzkoa, eta 2016/429 (EB) Erregelamendua, animalien gaixotasun transmitigarriei buruzkoa. Gaixotasunetarako zainketa-, kontrol- eta jakinarazpen-sistemak. Animalien osasunaren arloko osasun-alerta koordinatzeko plana. Gaixotasunen aurkako kontingentzia-planak.

23.– Pentsuen higieneari, segurtasunari eta etiketei buruzko araudia. Europar Batasunean baimendu eta erregistratzeko prozedurak. Aplikatu beharreko araudia.

24.– Gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu eratorriei aplikatu beharreko arauak. Kategorizazioa. Bilketa eta garraioa. Destino baimenduak. Trazabilitatea.

25.– Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatearen kontrol ofizialerako 2021-2025eko plana: antolaketa, edukiak. Agindua, 2016ko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten baita. Ebazpena, 2021eko apirilaren 14koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialeko plana.

26.– Abereen hautaketa. Abeltzaintzako arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko programa nazionala. Europar Batasuneko esparru zootekniko berria.

27.– Animalien babesa eta ongizatea abeltzaintzako ustiategietan eta garraioan.

28.– Ustiapen-koadernoa eta haren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategietan.

29.– Animalien osasuna. Europar Batasunean eta Espainian, OIE-Epizootien Nazioarteko Bulegoan nahitaez adierazi beharreko gaixotasunak.

30.– 2016/2031 (EB) Erregelamendua, landare-izurriteen aurkako babes-neurriei buruzkoa. Izurrite-motak. 1054/2021 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez, batetik, Landareen Operadore Profesionalen Erregistroa, pasaporte fitosanitarioak emateko baimena duten operadore profesionalek bete beharreko neurriak eta ugalketarako landare-materialaren operadore profesionalen betebeharrak ezartzen eta arautzen baitira, eta, bestetik, nekazaritzaren arloko zenbait errege-dekretu aldatzen baitira. Neurriak, operadoreen erregistroa, ziurtagiri fitosanitarioak.

## XXV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-SEKTOREKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskalako 4 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalan sartzeko tituluak:

– Nekazaritza Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua, edo

– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun

izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– B2 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Nekazaritza Ingeniaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako

lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza Ingeniaritzaren edo Mendi Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza Ingeniaritzaren edo Mendi Ingeniaritzaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 042101 | Zuzenbidea |
| 051202 | Bioteknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 051201 | Biokimika |
| 081101 | Animalien zientzia eta ekoizpena |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 091601 | Farmazia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

XXVI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ARRETA SOZIOLABORALEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako 47 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 44

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 39

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 3

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko C1 maila.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– 5 urteko esperientzia izatea gizarte-zerbitzuen eremuan, Gizarte-zerbitzuen arloko goi-ikuskaritzari buruzko irailaren 14ko 238/2010 Dekretuaren 8. artikuluarekin bat etorriz.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Arreta Soziolaboraleko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo

diploma), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 042101 | Zuzenbidea |
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |
| 031406 | Soziologia |
| 041302 | Lan-harremanak eta giza baliabideak |
| 092301 | Gizarte-lana |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzkoa. Testu kontsolidatua.

2.– 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa, hein batean Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatu zituena. Adingabeen babes juridikoa. Babesgabetasun-egoeratarako ekintzak. Tutoretza eta adopzioa. Testu kontsolidatua.

3.– 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena.

4.- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa. Testu kontsolidatua.

5.– 12/2009 Legea, urriaren 30ekoa, Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituena.

6.– Eusko Legebiltzarraren 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa.

7.– 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.

8.– 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa.

9.– 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Helburua, printzipioak eta prestazioak. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren antolamendua. Administrazio publikoen eskumenak.

10.– 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baita 5/2000 Lege Organikoaren erregelamendua.

11.– 220/2022 Errege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaz nazioarteko babesaren arloko harrera-sistema arautzen duen erregelamendua onartzen baita.

12.– 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena (lege horrek arautzen ditu atzerritarrek Espainian dituzten eskubideak eta askatasunak eta horien gizarteratzea). 903/2021 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua.

13.– 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko heziketa-zentroei buruzkoa.

14.– Deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneak Euskadin. 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa.

15.– 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Gizarte-bazterketa eta babesgabetasuneko arriskuarekin edo egoerekin lotutako prozedurak, prestazioak eta zerbitzuak.

16.– Euskadiko Adikzioen VII. Plana (2017-2021).

17.– Gazte Justiziaren V. Plana (2020-2024): IV. Planaren ebaluazioaren laburpena eta ondorioak, printzipioak, joerak, ildo estrategikoak eta kudeaketa-eredua.

18.– Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (2018-2022). Oinarrizko diagnostikoa, printzipioak eta jarduketa-ardatzak.

19. – Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025).

20.– Haur eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia (2022-2025). Diagnostikoa, helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak.

21.– Etorkinak Gizarteratzeko Foroa: osaera, eskumenak eta funtzionamendu-araubidea. Biltzen. Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua: definizioa, funtzioak eta lan-arloak.

22.– Drogak: definizioa eta kontzeptu orokorrak. Sailkapena. Droga-kontsumoa azaltzen duten teoriak eta ereduak. Droga-kontsumoari lotutako ezaugarri indibidualak eta sozialak.

23.– Jokabide-adikzioak. Kausak. Ondorioak. Tratamendua. Babes-faktoreak.

24.– Alkohola eta tabakoa: kontsumoaren ondorioak. Generoa eta alkohol-kontsumoa. Araudia. Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programak.

25.– Kokaina, heroina, kalamua, anfetaminak, speeda eta estasia. Kontsumitzeko moduak. Osasunaren gaineko ondorioak.

26.– Enplegu-zerbitzu publikoek ematen dituzten zerbitzuak eta erabiltzen dituzten enplegu-politikako tresnak.

27.– Dirulaguntza publikoak: emateko prozedurak, dirulaguntzen kudeaketa, itzulketak eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

28.– Enpleguaren Euskal Estrategia 2030.

29.– Europar Batasunaren finantzaketa-programak gizarte- eta enplegu-politiketarako.

30.– Autoenplegua, ekintzailetza eta orientazio-, ekintzailetza- eta berrikuntza-zentroa.

31.– Enplegurako lanbide-heziketaren sistema eta prestakuntza-espezialitateen katalogoa.

32.– Lan-erreforma eta kontratu-modalitateak.

33.– Lan-merkatua Euskadin eta etorkizunean izango duen bilakaera.

34.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua: izaera, helburuak, eginkizunak, egitura eta antolamendua.

35.– Lanbideren dirulaguntzen plan estrategikoa: helburu estrategikoak, gako estrategikoak, dirulaguntzen ildoak eta deialdiak.

36.– Gizarte-bazterketa baloratzeko tresna. 385/2013 Dekretua.

37.– Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko oinarrizko betekizunak. Laguntza horiek kudeatzeko eskumena duten administrazioak.

XXVII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO ARRETA SOZIOLABORALEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako 236 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 225

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 73

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 147

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 11

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 8

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Ingeleseko, frantseseko edo alemaneko C1 maila.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– 5 urteko esperientzia izatea gizarte-zerbitzuen eremuan, Gizarte-zerbitzuen arloko goi-ikuskaritzari buruzko irailaren 14ko 238/2010 Dekretuaren 8. artikuluarekin bat etorriz.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Arreta Soziolaboraleko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 042101 | Zuzenbidea |
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |
| 031406 | Soziologia |
| 041302 | Lan-harremanak eta giza baliabideak |
| 092301 | Gizarte-lana |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Arreta Soziolaboraleko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XXVIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LARRIALDIETAKO ETA METEOROLOGIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako 3 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053301 | Fisika |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 053101 | Kimika |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Larrialdietako edo Meteorologiako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren,

hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053301 | Fisika |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 053101 | Kimika |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Larrialdiei aurre egiteko euskal sistema.

2.– Espainiako babes zibilaren antolamendua.

407/1992 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, herri-babeseko oinarrizko araua onartzen duena

(1992/05/01eko BOE, 105. zk.).

17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalarena (2015/07/10eko BOE, 164. zk.).

PCI/488/2019 Agindua, apirilaren 26koa, Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak onartutako Babes Zibilerako Estrategia Nazionala argitaratzen duena (2019/04/30eko BOE, 103. zk.).

Ebazpena, 2020ko abenduaren 16koa, Idazkariordetzarena, 2020ko abenduaren 15eko Ministro Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez Babes Zibileko Larrialdien Estatuko Plan Orokorra onartzen baita (2020/12/17ko BOE, 328. zk.).

Ebazpena, 2014ko maiatzaren 14koa, Idazkariordetzarena, abiazio zibileko istripuetako biktimei eta haien ahaideei laguntzeko Koordinazio Protokoloa onartzen duena (2014/05/26ko BOE, 127. zk.).

627/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, trenbide-istripuen biktimei eta haien ahaideei laguntza eskaintzeari buruzkoa (2014/07/19ko BOE, 175. zk.).

3.– Euskadiko babes zibilaren antolamendua.

24/1998 Dekretua, otsailaren 17koa, Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen osaera, eginkizunak eta antolamendua arautzen dituena (1998/03/03ko EHAA, 42. zk.).

15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzekoa (2012/07/06ko EHAA, 132. zk.).

1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena (2017/05/05eko EHAA, 84. zk.).

Legegintzako dekretu honen huts-zuzenketa: 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena (2021/01/28ko EHAA, 215. zk.).

6/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (2021/01/29ko EHAA, 21. zk.).

21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen dekretua (2019/02/22ko EHAA, 38. zk.).

4.– Larrialdi-planak: definizioa, motak eta edukia.

153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, «Larrialdiei aurregiteko bidea-LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena (1997/07/21eko EHAA, 138. zk.).

1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baita berrazterketa berezi bat egitea «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planean (2015/01/22ko EHAA, 14. zk.).

EAEko uholdeen ziozko larrialdien plan berezia (Gobernu Kontseiluak 2015/01/13ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

EAEko baso-suteetarako larrialdi-plan berezia (Gobernu Kontseiluaren 2016/12/27ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

Itsasertzaren kutsadurari aurre egiteko Euskadiko larrialdi-plan berezia - «Itsasertza» (Gobernu

Kontseiluaren 2019/04/09ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

EAEko arrisku sismikorako larrialdi-plana (Gobernu Kontseiluaren 2007/10/30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

EAEko arrisku erradiologikoari aurre egiteko larrialdi-plan berezia (Gobernu Kontseiluaren 2014/06/24ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

EAEko errepide eta trenbideetan salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan berezia (Gobernu Kontseiluaren 2001/07/30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

EAEko larrialdi aeronautikoen plan berezia (Gobernu Kontseiluak 2022/02/01eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartua).

840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena (2015/10/20ko BOE, 251. zk.).

5.– Larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren taktika operatiboak: definizioa, sailkapena, aktibazio-prozedurak.

Larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren taktika operatiboak, agindu honen bidez onartuak: Agindua, 2020ko abenduaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua (2020/12/18ko EHAA, 253. zk.).

6.– 112ari buruzko Estatuko legeak.

903/1997 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, 112 telefono-zenbakiaren bidezko larrialdi-deiei arreta emateko zerbitzura telekomunikazio sareen bitartez sartzeko bidea arautzen duena (1997/06/27ko BOE, 153 zk.).

7.– Euskal Autonomia Erkidegoko larrialdiak koordinatzeko zentroak: aurrekariak, funtzioak, antolamendua.

– 34/1983 Dekretua, martxoaren 8koa, ekintzak koordinatzeko zentroak sortzekoa - SOS-DEIAK.

– Agindua, 1994ko maiatzaren 19koa, Herrizaingo sailburuarena, Ertzaintzan Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari Laguntzeko Zerbitzua (LAZLZ) sortzen duena.

8.– Babes zibileko boluntarioak larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman.

24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzea arautzen duena.

9.– Euskal Meteorologia Agentzia.

311/2003 Dekretua, abenduaren 16koa, Euskal Meteorologia Agentzia sortzekoa (2003/12/24ko EHAA, 251. zk.).

10.– Salgai arriskutsuak zisterna-ibilgailuetan garraiatzen izandako istripuetako esku-hartzea: Gida operatiboa.

11.– Sua: Oinarrizko kontzeptuak. Errekuntza-prozesua, su-motak.

12.– Fenomeno meteorologiko kaltegarriak aurreikusteko, zaintzeko eta haien aurrean jarduteko

protokoloa.

13.– Segurtasuna itsasoan, itsasertz-kostaldean eta barne-uretan.

2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Merkataritza Itsasketari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak: Itsas salbamendua kanpo-uretan, kostaldean, itsaslabarretan, hondartzetan eta barne-uretan.

14.– mendiko, landako eta hirien kanpoaldeko bilaketak eta erreskateak.

– Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemak mendirako, landarako eta hirien kanpoalderako dauzkan taktika operatiboak: Faseak, aktibazio-prozedurak, garapen taktikoa, intzidentearen zuzendaritza.

15.– Bilaketa- eta salbamendu-zerbitzu aeronautikoen eta itsas zerbitzuen nazioarteko eskuliburua.

16.– Kartografiari eta orientazioari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Mapa, oinarrizko elementuak. Koordenatu-sistemak. Posizionamendu globaleko sistema (GPS). Geometria. Katastro-erreferentzia.

17.– Agintea eta kontrola larrialdietan.

Aginte- eta kontrol-sistema. Definizioa. Helburuak. Ezaugarriak, funtzioak eta egitura.

18.- Errepide-tuneletako segurtasuna.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 29ko 2004/54/EB Zuzentaraua, Europa barneko errepide-sareko tuneletarako gutxieneko segurtasun-eskakizunei buruzkoa.

– 635/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, Estatuko errepide-tuneletako segurtasuneko gutxieneko betekizunei buruzkoa.

19.– Plan eta proiektuen lurralde-antolamendua eta ingurumen-inpaktua.

– 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.

– 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.

– Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroak (LAG).

EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko lurralde-plan sektoriala (isurialde kantauriarra eta mediterraneoa).

1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.

– 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko lege orokorra.

– 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

– 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

– 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren legearen testu bategina onartzen duena.

20.– Atmosferako muga-geruza eta kutsadura.

Prozesu zurrunbilotsuak. Azalerako energia-trukeak. Muga-geruzaren aldakuntzak eta profilak. Zirkulazio termikoki induzituak. Egonkortasun-motak. Airearen kutsadura. Kutsatzaileen dispertsioa. Dispertsio-ereduen tipologia eta ezaugarriak. EAEko aire-kalitatearen sarea.

21.– Meteorologia sinoptikoa eta mesoeskalarra.

Latitude ertainetako sistema meteorologikoak. Aire-masak. Fronteak. Depresioak. Jet korrontea. Ziklogenesia. Egitura frontala eta frontogenesia. Sistema mesoeskalarrak. Konbekzio-sistemak. Fenomeno orografikoak. Muturreko fenomeno meteorologikoak.

22.– Eguraldiaren analisia, zaintza eta iragarpena.

Aldagai meteorologikoak. Eguraldia zaindu eta behatzea. Behaketak prozesatzea eta diagnostikoa egitea. Mapa sinoptikoak aztertu eta interpretatzea. Radar bidezko datuak aztertu eta interpretatzea. Satelite bidezko datuak aztertu eta interpretatzea. Eguraldiaren toki-bilakaera. Iragarpenak egiteko prozesua eta metodologiak. Kontzeptu-ereduak.

23.– Ingurunearen, geografiaren eta geologiaren ezaguera.

Euskal espazio geografikoaren ezaugarriak. Euskal espazio geologikoaren ezaugarriak. Ingurunearen ezaguera (erliebea, paisaia, lurraldea, komunikabideak, toponimia, portuak). Sismologiako nozioak. Informazio geografikoko sistemak.

24.– Hidrologia aplikatua.

Ziklo hidrologikoa. Behatzeko metodoak. Prezipitazioen neurketa. Lurrunketa, ebapotranspirazioa eta lurzoruko hezetasuna. Ur-mailaren eta -emarien neurketa. Lurpeko urak. EAEko ibaiak eta arroak. EAEko sare plubiometrikoa eta edukiera-sarea. Modelizazio hidrologikoa. Euri- eta ibai-uholdeak. Datuen kontrola eta kalitatea. Datuak biltegiratu, datuetarako irispidea eta datuak zabaltzea.

25.– Kalitatea eta behaketa-sareak.

Kalitatearen kudeaketa. Kalitatean eragina duten faktoreak. Datuen homogeneotasuna. Metadatuak. Sareen kudeaketa. Aldagai meteorologikoen laginketa. Datuak murriztea. Frogak. Kalibrazioa. Interkonparazioa. Sareen kokapena, instrumentazioa eta diseinua. EAEko EMAS sarea.

26.– Agrometereologia.

Euskal nekazaritzaren ezaugarriak. Aldagai agrometeorologikoak. Estazio agrometeorologikoen ezaugarriak (finkoak eta mugikorrak). EAEko nekazaritzarako eta basoetarako arrisku meteoklimatikoak. Izotzaldiak. Txingorraldiak. Lehorteak monitorizatzea eta iragartzea. EAEko baso-suteen faktore aitzindariak. Sute-arriskuen indize meteorologikoak. Kanadako FWI.

27.– Ozeanografia eta itsas meteorologia.

Zirkulazio ozeanikoak. Ozeanoaren egitura bertikala. Itsas uraren ezaugarriak. Neurketa ozeanikoak. Mareak. Olatuak. Korronteak. Olatuen modelizazioa. Euskadiko ozeanografia operazionaleko sistema. Itsasoa eta kostaldea behatzeko euskal sarea. EAEko itsasoko eta kostaldeko arriskuak.

# XXIX. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LARRIALDIETAKO ETA METEOROLOGIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako 9 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 8

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053301 | Fisika |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 053101 | Kimika |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |

| | |
|---|---|
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Larrialdietako edo Meteorologiako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako

lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 104101 | Nautika eta itsas garraioa |
| 053101 | Kimika |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 071603 | Ontzigintzako eta ozeanoko ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Larrialdietako eta Meteorologiako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

XXX. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako 4 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

Sarbide orokorraren modalitatea: 4

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 032101 | Komunikazioa |
| 032102 | Kazetaritza |
| 041403 | Publizitatea eta harreman publikoak |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Prentsa edo Argitalpenetako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa,

gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaren, Kazetaritzako lizentziaren edo Publizitateko eta Harreman Publikoetako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaren, Kazetaritzako lizentziaren edo Publizitateko eta Harreman Publikoetako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma):

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 032101 | Komunikazioa |
| 032102 | Kazetaritza |
| 041403 | Publizitatea eta harreman publikoak |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 031201 | Politika eta kudeaketa publikoa |
| 041303 | Kudeaketa eta administrazio publikoa |
| 031202 | Nazioarteko harremanak |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 042101 | Zuzenbidea |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Informazio Zientzietako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Komunikazioaren hartzailea. Gizarte- eta masa-komunikabideak. Bilakaera eta garapena. Gaur egungo gizarteetako eginkizuna. Teoriak. Gizarte-komunikazioaren hartzaileak. Audientzia, publikoa eta masa. Audientziaren hautaketa-prozesuak, baheketak, berrinterpretazioa. Komunikazio-eraginkortasuna.

2.– Komunikabideen eragina iritzia sortzeko orduan. Iritzi- eta hauteskunde-inkestak. Espazio publikoaren eraketa eta demokrazia. Iritzi publikoa. Kontzeptuaren jatorria eta bilakaera. Iritzi publikoa eratzeko prozesu psikosoziologikoak. Ebaluazioaren definizioa eta metodoak. Propaganda eta iritzi publikoa. Propagandaren izaera, motak eta efektuak.

3.– Herritarra, komunikazio politikoaren hartzailea den aldetik. Komunikazio politikoaren gizarte-efektuak. Komunikabideak, komunikazio politikorako tresnak diren aldetik. Teknologien aplikazioa komunikazio politikorako tresna berrien garapenean. Komunikabideek alderdi politikoekin eta botere publikoekin dituzten harremanak.

4.– Kazetaritza garaikidearen ezaugarriak eta korronteak. Kazetaritzaren bilakaera eta joerak XX. mendean (Europa eta AEB). Erreferentziazko tradizio handiak. Masa-komunikabide berrien agerpena: irratia, zinema eta telebista. Masa-komunikabideen gizartearen kontsolidazioa. Estatuen eginkizuna informazioari eta gizarte-komunikabideei begira. Ikus-entzunezko baliabideen goraldia eta garapena. Komunikabideen kontzentrazioaren fenomenoa. Multimedia-talde handiak.

5.– Diskurtsoak eta elkarrizketak. Audientzia. Diskurtsoaren tipologia eta egitura. Hizlariaren protokoloa. Hitzezko eta hitz gabeko hizkuntzak. Protokolo-diskurtsoak. Prentsako, irratiko eta telebistako elkarrizketak.

6.– Internet kazetaritzan sartzea. Tradiziozko industriarako ondorioak. Kazetarien lanbidearen gaineko efektuak. Prentsa elektronikoa. Ezaugarriak. Edukien sorkuntza eta egituraketa. Diseinua. Hipertestua. Multimedia-loturen aukerak.

7.– Internet komunikazio-kanal gisa: Sarearen ezaugarri orokorrak. Egunkari digitalak. Audientzia eta irispidea. Tradiziozko prentsa komunikabide digitalen agerpenaren aurrean. Egunkari digitalen egitura eta edukiak. Gaurkotasunaren kontzeptua egunkari digitaletan. Irakurleekiko elkarreragina. Informazioa eta komunikazioa sozializatzea: bitakorak, foroak, posta-zerrendak, weblogak eta bestelakoak.

8.– Web 2.0. Definizioa. Elkarreragina. Gizarte-sareak. Facebook (profilak, orrialdeak, taldeak) eta Twitter: sorrera, garapena, desberdintasunak. Beste sare batzuk (Tuenti, Myspace, Linkedin eta beste batzuk). Bilatzaileak. Web barneko kokapena (SEO, SEM...). Blogak (erantzukizuna, iturriak, fidagarritasuna). Youtube. Beste irudi-kanal batzuk (Vimeo, Bliptv eta beste batzuk). Flickr irudiak. Wikiak. RSS. Foroak. Etiketak (Tag).

9.– Komunikazio digitala eta 2.0 teknologiak administrazio publikoetan: herritarrek parte hartzeko tresnak, bilatzaileetako kokapena. Gizarte-sareak administrazio publikoetan: jardunbide egokiak, jabetza intelektuala, pribatutasuna. Interneten dimentsio etikoa.

10.– Publizitatearen araubide juridikoa Espainian. Komunikabideen finantzaketa. Tarifak. Kontzentrazioa. Euskadiko publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legea.

11.– Publizitatea komunikazio-prozesu gisa. Publizitate-mezua: alderdi soziologikoak, psikologikoak eta ekonomikoak. Publizitate-prozesua: elementuak eta etapak. Publizitate-lengoaia. Sustapena eta babesletza. Marketina. Sormen-plana. Briefing. Publizitate-euskarriak. Baliabideen plana. Publizitate-agentziak. Kontzentrazioa. Tradiziozko publizitaterako aukerak: publizitate-estrategia berriak. Erakunde-publizitatea. Publizitate-kanpainen diseinua eta egikaritzea.

12.– Antolakundeen komunikazioa. Komunikazio korporatiboaren oinarriak. Erakunde-komunikazioaren historia, izaera eta kontzeptua. Erakunde-komunikazioaren esparruak eta formak. Administrazio publikoen komunikazio- eta publizitate-kanpaina instituzionalak.

13.– Komunikazio-kabineteak. Egitura eta funtzioak. Lan-sistemak. Prentsa-bulegoetako

informazio idatziak, ikus-entzunezkoak eta Internet bidezkoak. Erakunde-ordezkariak eta kazetariak harreman jartzeko estrategiak. Komunikazio-plana. Kontzeptua. Komunikazio-plana prestatzea. Egitura. Martxan jartzea. Kazetariekiko tratua. Prentsa-oharra. Prentsa-txostena. Prentsaurrekoak prestatzea.

14.– Krisialdietako komunikazioak kudeatzea. Tipologia. Arriskuak identifikatzea eta prebentzio-plana egitea. Krisialdien kudeaketa eta kontrola.

15.– Informazioaren, komunikazioaren, publizitatearen eta propagandaren kudeaketa instituzionala Administrazio publikoan: barneko eta kanpoko komunikazioen helburua, estrategia eta tresnak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erakunde-komunikazioaren zerbitzura: herritarrekin komunikatzeko bitarteko eta tresna berriak.

16.– Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzua. Antolamendua eta funtzioak. Argitalpen-jarduera. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako argitalpenen printzipio orokorrak. Argitalpenak merkaturatzea eta erregistratzea. Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren webgunea.

17.– Argitalpenen edizioan eragina duen araudia. Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua: argitalpen ofizialetarako erabilera. Euskaren erabilerari buruzko araudia. Jabetza intelektuala: Testu- eta irudi-eskubideak, eskubideak lagatzeko modalitatea, edizio-kontratua, copyright eta copyleft. Argitalpenen lege-gordailua: Definizioa eta ezaugarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko prozedura. Identifikazio-sistema bibliografikoak: ISBN (International Standard Book Number), ISSN (International Standard Serial Number), CIP (Cataloging in publication), DOI (Digital Object Identifier).

18.– Inprimakiak: motak eta zatiak. Motak: Liburuak, aldizkariak, liburuxkak, diptikoak/triptikoak, mapak, beste formatu batzuk. Liburuaren kanpoaldeko zatiak: Zerrenda, azala, gainazala, hegala, tapa, bizkarra, ebakidurak, babesorria, kaxa. Liburuaren barnealdeko zatiak: Kortesiazko orrialdeak, atari-aurrea, atari kontrako orrialdea, azala, kreditu- edo eskubide-orrialdea, eta haren edukia, aurkibidea, eskaintza, hitzaurrea, edukia, ilustrazioak, grafikoak. Liburuaren amaierako zatiak: Gehigarria, eranskina, aurkibidea, glosarioa, bibliografia, huts-zerrenda, kolofoia.

19.– Diseinua, testuen maketazioa eta kostuaren kalkulua. Edizio-programa nagusiak. Testua koadernotan banatzea. Papera eta tinta: Motak eta ezaugarriak. Argitalpen-kalkulua. Ediziorako oinarri teknikoen plegua egitea. Argitalpen-kostua kalkulatzea eta publikoarentzako salmenta-prezioa esleitzea.

20.– Edizio-prozesu teknikoa.. Argitalpen-prozesuaren funtsezko urratsak: diseinua, inprimaketa-aurrea, proben zuzenketa, inprimaketa, azaleztatzea. Probak eta xaflak: prentsakoak, koloretakoak, xaflan zuzenean grabatzea. Inprimaketa-motak: offset bidezkoak, litografia, sakongrabatua, digitala, eskarien araberakoa. Manipulazioa: arrailtzea, zulatzea, tolestea, alboz jarrita elkartzea, trokelaketa, bernizadura. Azaleztatzea: motak eta ezaugarriak, zatiak, faseak.

21.– Zuzenketa argitalpen-prozesuan. Zuzenketa-motak, metodoa eta tresnak. Zuzenketa-motak, metodoa eta tresnak. Jatorrizkoak eta inprimaketa-probak zuzentzea: Ortotipografia eta irakurgarritasuna (gramatika, zuzenketa ortotipografikoa eta maketaziokoa).

# XXXI. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako 6 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 4

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-titulu hauek:

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 032101 | Komunikazioa |
| 032102 | Kazetaritza |
| 041403 | Publizitatea eta harreman publikoak |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako

moduan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Prentsa edo Argitalpenetako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaren, Kazetaritzako lizentziaren edo Publizitateko eta Harreman Publikoetako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaren, Kazetaritzako lizentziaren edo Publizitateko eta Harreman Publikoetako lizentziaren aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma):

| | |
|---|---|
| 021101 | Ikus-entzunezkoak, irudia eta multimedia |
| 032101 | Komunikazioa |
| 032102 | Kazetaritza |
| 041403 | Publizitatea eta harreman publikoak |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 031201 | Politika eta kudeaketa publikoa |

| | |
|---|---|
| 041303 | Kudeaketa eta administrazio publikoa |
| 031202 | Nazioarteko harremanak |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |
| 042101 | Zuzenbidea |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Informazio Zientzietako lizentziaduna– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Prentsa eta Argitalpenetako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

## XXXII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan Arriskuen Prebentzioko Eskalako 4 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Halaber, deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

– 600 orduko prestakuntza lan-arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, 3 espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Lan Arriskuen Prebentzioko teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, diploma, ingeniaritza teknikoa eta arkitektura teknikoa), gehienez 10 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 031406 | Soziologia |
| 042101 | Zuzenbidea |
| 031301 | Psikologia |
| 091201 | Medikuntza |
| 091301 | Erizaintza |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073101 | Arkitektura |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |
| 102201 | Prebentzioa eta lan-segurtasuna |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Lan-arriskuen Prebentzioko Eskaletako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Lan-arriskuen prebentzioari buruzko xedapen orokorrak.

1.1.– 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

1.2.– Enpresa-jarduerak koordinatzea.

1.2.1.– 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.

1.2.2.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 918. Enpresa-jarduerak koordinatzea (I). 2011. urtea. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionala (INSST/LSOIN)

1.2.3.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 919. Enpresa-jarduerak koordinatzea (II). 2011. urtea. INSST/LSOIN.

1.2.4.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 1.052. Enpresa-jardueren koordinazioa: efizientzia-irizpideak (I). 2015. urtea. INSST/LSOIN.

1.2.5.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 1.053. Enpresa-jardueren koordinazioa: efizientzia-irizpideak (II). 2015. urtea. INSST/LSOIN.

1.3.– Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua.

1.3.1.– 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena.

1.3.2.– Kanpoko prebentzio-zerbitzuaren kalitate-irizpideen gida teknikoa - 2012. urtea. INSST/LSOIN.

1.4.– Prebentzio-zerbitzuen jarduketa sanitarioak.

1.4.1.– 306/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, aurrezaintzako zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena.

1.4.2.– 843/2011 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, osasun-jarduera eta prebentzio-zerbitzuak garatzeko baliabideen antolamenduari buruzko oinarrizko irizpideak ezartzen dituena.

1.5.– Euskal Autonomia Erkidegoan - EAEn Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko

Alorreko Lanbidearteko Akordioa.

1.6.– Laneko arriskuen prebentzioa enpresetan eta ETEetan integratzea.

1.6.1.– Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzeko gida teknikoa. 2008. urtea. INSST/LSOIN.

1.6.2.– Dokumentuak sinplifikatzeko gida teknikoa - 2012. urtea. INSST/LSOIN.

1.6.3. – Enpresan laneko arriskuen prebentzioa garatzeko oinarrizko jarraibideak - 2013. urtea. INSST/LSOIN.

1.6.4. – Enpresan laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezartzeko eskuliburua. 2006. urtea. Osalan.

1.7.– Aldi baterako laneko enpresak.

1.7.1.– 216/1999 Errege Dekretua, otsailaren 5ekoa, aldi baterako laneko enpresen alorreko segurtasunari eta osasunari buruzko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

1.8.– Lan-enklabeak.

1.8.1.– 290/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko lantokiak arautzen dituena.

1.9.– Lantokien irekieren komunikazioak.

1.9.1.– TIN/1071/2010 Agindua, apirilaren 27koa, lantokietan jarduerak irekitzeari edo berriz hasteari buruzko jakinarazpenek izan behar dituzten baldintzei eta datuei buruzkoa.

1.10.– Lan-istripuak: kontzeptua, motak, ikerketa.

1.10.1.– Lan-istripuak ikertzeko eskuliburua. 2005. urtea. Osalan.

1.10.2.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 1046. Istripuak ikertzea: lekukotzak biltzea. 2015. urtea. INSST/LSOIN.

1.10.3.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 274. Istripuak ikertzea: hutsegite-zuhaitza. 1991. urtea. INSST/LSOIN

1.10.4.– Laneko bide-segurtasuneko gida praktikoa. 2016. urtea. Osalan.

1.11.– Gaixotasun profesionalak: kontzeptua eta ikerketa

1.11.1.– 1299/2006 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta horien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen dituena.

1.11.2.– Gaixotasun profesionalen kasuak ikertzeko prozedura. 2019. urtea. INSST/LSOIN.

1.12.– Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia integratzea.

1.12.1.– Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan integratzeko jarraibideak. Ezarpen-tresnen bidezko eguneraketa. 2019. urtea. Osalan.

1.12.2.– Arriskuak ebaluatzeko eta amatasuna babesteko jarraibideak - 2011. urtea. INSST/LSOIN.

1.12.3.– Laneko arriskuen aurreko jarrera eta portaeretan eta haietatik eratorritako kalteetan eragina duten genero-faktore nagusiak. 2021. urtea. Osalan.

2.– Xedapen espezifikoak.

2.1.– Laneko segurtasuna.

2.1.1.– Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko seinaleztapena.

2.1.1.1.– 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun eta osasunerako seinaleen gutxieneko baldintzei buruzkoa.

2.1.1.2.– Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleei buruzko gida teknikoa - 2009. urtea. INSST/LSOIN.

2.1.2.– Lan-eremuak.

2.1.2.1.– 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

2.1.2.2.– Lan-eremuen erabilerari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2015. urtea. INSST/LSOIN.

2.1.3. - Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.

2.1.3.1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 9ko (EB) 2016/425 Erregelamendua, norbera babesteko ekipamenduei buruzkoa, Kontseiluaren 89/686/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.

2.1.3.2.– 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

2.1.3.3.– Langileek norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeko gida teknikoa - 2022. urtea. INSST/LSOIN.

2.1.4.– Lan-ekipamenduak erabiltzea

2.1.4.1.– 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lan-ekipamenduak erabiltzerakoan, segurtasunari eta osasunari dagokienez, bete behar dituzten gutxieneko xedapenak finkatu dituena.

2.1.4.2.– Lan-ekipoen erabilerari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2021. urtea. INSST/LSOIN

2.1.5.– Meategietako jarduerak.

2.1.5.1.– 1389/1997 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, meatze-jardueretako langileen segurtasuna eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak onartzen dituena.

2.1.6.– Arrisku elektrikoa.

2.1.6.1.– 614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

2.1.6.2.– Arrisku elektrikotik babesteari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2020. urtea. INSST/LSOIN.

2.1.7.– Atmosfera leherkorrak

2.1.7.1.– 681/2003 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, lantokiko atmosfera lehergarrien ondorioz sortzen diren arriskuen aurrean dauden langileen osasun-babesari eta segurtasunari buruzkoa.

2.1.7.2.– Lantokian atmosfera leherkorretatik eratorritako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa – 2021. urtea. INSST/LSOIN.

2.1.8.– Makinak merkaturatzea eta martxan jartzea.

2.1.8.1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 17ko 2006/42/EE Zuzentaraua, makinei buruzkoa, 95/16/EE Zuzentaraua aldatzen duena (bat egitea) (EEEren esparruan erabiltzeko testua).

2.1.8.2.– 1644/2008 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, makinak merkaturatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak ezartzen dituena.

2.1.8.3.– Makinei buruzko 2006/42/EE Zuzentaraua aplikatzeko gida. 2010. urtea. Europako Batzordea.

2.2.– Higiene industriala.

2.2.1.– Eragile biologikoak

2.2.1.1.– 664/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, lantokian eragile biologikoen eraginpean egotetik sortutako arriskuen aurka langileak babesteari buruzkoa.

2.2.1.2.– Eragile biologikoen eraginpean egoteari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2014. urtea. INSST/LSOIN

2.2.2.– Eragile kantzerigenoak

2.2.2.1.– 665/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, lantokian eragile kantzerigenoen eraginpean egotetik sortutako arriskuen aurka langileak babesteari buruzkoa.

2.2.2.2.– Lanean eragile kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean egoteari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2017. urtea. INSST/LSOIN.

2.2.2.3.– 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, Amiantoarekiko esposizioaren arriskua dakarten lanei aplikatu behar zaizkien gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

2.2.2.4.– Amiantoaren eraginpean egoteari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2022. urtea. INSST/LSOIN

2.2.3.– Eragile kimikoak

2.2.3.1.– 374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, langileen segurtasuna eta osasuna laneko eragile kimikoei lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa.

2.2.3.2.– Eragile kimikoei lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2013. urtea. INSST/LSOIN.

2.2.4.– Bibrazio mekanikoak

2.2.4.1.– 1311/2005 Errege Dekretua, azaroaren 4koa, bibrazio mekanikoen eraginpean egoteagatik eratorritako edo erator daitezkeen arriskuen aurrean dauden langileen osasuna eta

segurtasuna babesteari buruzkoa.

2.2.4.2.– Bibrazio mekanikoei lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2009. urtea. INSST/LSOIN.

2.2.4.3.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 839. Bibrazio mekanikoekiko esposizioa. Arriskuaren ebaluazioa. 2009. urtea. INSST/LSOIN

2.2.5.– Zarata

2.2.5.1.– 286/2006 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, zaratarekiko esposizioari lotutako arriskuen aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa.

2.2.5.2.– Zarataren eraginpean egoteari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2009. urtea. INSST/LSOIN.

2.2.6.– Erradiazio optikoak

2.2.6.1.– 486/2010 Errege Dekretua, apirilaren 23koa, langileen osasuna eta segurtasuna erradiazio optiko artifizialen eraginpean egotetik babesteari buruzkoa.

2.2.6.2.– Erradiazio optiko artifizialei lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2015. urtea. INSST/LSOIN.

2.2.7.– Eremu elektromagnetikoak

2.2.7.1.– 299/2016 Errege Dekretua, uztailaren 22koa, langileen osasuna eta segurtasuna eremu elektromagnetikoekiko esposizioaren ondoriozko arriskuetatik babesteari buruzkoa.

2.2.7.2.– Lantokian eremu elektromagnetikoen eraginpean egotetik eratorritako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa – 2019. urtea. INSST/LSOIN.

2.2.8.– Produktu fitosanitarioen erabilera

2.2.8.1.– 1311/2012 Errege Dekretua, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena.

2.2.8.2.– Landare-osasunerako produktuak segurtasunez erabiltzeko gida. 2018. urtea. Osalan.

2.3.– Ergonomia.

2.3.1.– Eskuzko zamalanak.

2.3.1.1.– 487/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituena, kargak eskuz manipulatzeak langileei ekar diezazkiekeen arriskuei buruzkoak (dortsolunbarrak bereziki).

2.3.1.2.– Eskuzko zamalanei lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2009. urtea. INSST/LSOIN.

2.3.2.– Bistaratze-pantailak

2.3.2.1.– 488/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, bistaratze-pantailak dauzkaten ekipamenduekin egiten den lanari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.

2.3.2.2.– Bistaratze-pantailak dauzkaten ekipamenduen erabilerari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2021. urtea. INSST/LSOIN

2.3.3.– Mugimendu errepikakorrak

2.3.3.1.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 629: Mugimendu errepikakorrak: ebaluazio-metodoak, OCRA metodoa: eguneratzea. 2003. urtea. INSST/LSOIN.

2.3.4.- Jarrera behartuak

2.3.4.1.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 601: Lan-baldintzen ebaluazioa: jarrera-karga. REBA metodoa (Rapid Entire Body Assessment). 2001. urtea. INSST/LSOIN.

2.3.5.– Zahartzaroa eta lana: adinaren kudeaketa

2.3.5.1.– Adinaren kudeaketa eta laneko arriskuen prebentzioa. 2022. urtea. Osalan.

2.4.– Psikosoziologia industriala

2.4.1.– Antolakuntzako arrisku psikosozialak

2.4.1.1.– Gidaliburua: Arrisku psikosozialen eta antolamendukoen hastapenak. 2013. urtea. Osalan.

2.4.2.– Metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak

2.4.2.1.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 926. Faktore psikosozialak: ebaluazio-metodologia. 2012. urtea. INSST/LSOIN.

2.4.2.2.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 703: Arrisku psikosozialak ebaluatzeko COPSOQ metodoa (ISTAS21, PSQCAT21). INSST/LSOIN.

2.4.3.– Indarkeria: jazarpena, sexu-jazarpenaren eta sexuaren ziozko jazarpena.

2.4.3.1.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 854. Laneko jazarpen psikologikoa: definizioa. 2009. urtea. INSST/LSOIN.

2.4.3.2.– Lan-arloko sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko orientabideak. 2019. urtea. Osalan.

2.4.3.3.– 104/2021 irizpide teknikoa, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak arrisku psikosozialen aurrean egiten dituen jarduketei buruzkoa.

2.5.– Osasuna zaintzea.

2.5.1.– Osasuna zaintzea laneko arriskuak prebenitzeko: orientaziorako oinarrizko gida eta gida orokorra. 2020. urtea. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, Osalan.

2.6.– Eraikuntza

2.6.1.– Segurtasuna eta osasuna eraikuntza-lanetan

2.6.1.1.– 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetarako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.

2.6.1.2.– Eraikuntza-lanei lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2019. urtea. INSST/LSOIN.

2.6.1.3.– Eraikuntza-lanetan laneko arriskuen prebentzioa integratzeko oinarrizko jarraibideak - 2014. urtea. INSST/LSOIN.

2.6.1.4.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 1071. Segurtasuna eta osasuna kudeatzea proiekturik gabeko obretan (I): beste jarduera bateko lantoki batean. 2016. urtea. INSST/LSOIN.

2.6.1.5.– (Prebentzio-ohar teknikoa) POT – 1072. Segurtasuna eta osasuna kudeatzea proiekturik gabeko obretan (II): jabeen erkidego batean. 2016. urtea. INSST/LSOIN.

2.6.2.– Azpikontratazioa eraikuntzaren sektorean

2.6.2.1.– 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duena.

2.6.3.– Eraikuntzaren sektoreko VI. hitzarmen orokorra.

2.6.3.1.– Ebazpena, 2017ko irailaren 21ekoa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, Eraikuntzaren sektoreko hitzarmen kolektibo orokorra erregistratu eta argitaratzen duena.

2.7.– Industria

2.7.1.– Metalaren sektoreko hitzarmen orokorra

2.7.1.1.– Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, Metalaren sektoreko industriaren, teknologia berrien eta zerbitzuen Estatuko IV. hitzarmen kolektiboa erregistratu eta argitaratzen duena.

2.8.– Arrantza

2.8.1.– Segurtasuna eta osasuna arrantza-jardueran

2.8.1.1.– 1216/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, arrantza-ontzietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

2.8.1.2.– Arrantza-ontzien erabilerari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa - 2011. urtea. INSST/LSOIN.

# XXXIII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalako 49 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 47

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 14

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 32

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Halaber, deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-

ziurtagiria, 3 espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Lan Arriskuen Prebentzioko teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A1 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, diploma, ingeniaritza teknikoa eta arkitektura teknikoa), gehienez 20 puntu izan arte:

| | |
|---|---|
| 031406 | Soziologia |
| 042101 | Zuzenbidea |
| 031301 | Psikologia |
| 091201 | Medikuntza |
| 091301 | Erizaintza |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073101 | Arkitektura |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |
| 102201 | Prebentzioa eta lan-segurtasuna |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Lan-arriskuen Prebentzioko Eskaletako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

## XXXIV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO GIZA BALIABIDEETAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako 3 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Giza Baliabideetako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma):

| | |
|---|---|
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 041302 | Lan-harremanak eta giza baliabideak |
| 031406 | Soziologia |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 36 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Giza baliabideen plangintza Euskadiko Administrazioan. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren enplegurako plana.

2.– Antolaketa-sistema, giza baliabideak eta langileak. Giza baliabideak diferentzien kudeaketa gisa.

3.– Administrazioko lanpostuen bilakaera eta profil berriak.

4.– Zuzendaritza publiko profesionala: Giza baliabideetatiko ikuspegia.

5.– Lanpostuen analisia. Lanari eta langileari bideratutako estrategiak.

6.– Atazen analisitik abiatuta jardun-irizpideak eta lanpostu-profilak identifikatzea.

7.– Jarduna ebaluatzea. Irizpidea, diseinua eta metodoak.

8.– Telelana giza baliabideetatik ikusita: nola konprometitu telelaneko jarduerak.

9.– Administrazio publikoetako hautaketa-printzipioak.

10.– Administrazio publikoetako hautaketa-organoak.

11.– Hautaketa-prozedura (hautaketa-prozesu motak, hautaketa-tresnak eta probak egin, aplikatu eta baloratzea).

12.– Lanpostuen analisitik abiatuta iragarleak identifikatzea.

13.– Fidagarritasuna: kontzeptua eta zenbatespen-metodoak.

14.– Hautaketako baliozkotasuna: konstruktuaren baliozkotasuna, irizpidearen baliozkotasuna eta balio erantsia.

15.– Jokabide-elkarrizketa egituratua: Diseinua, fidagarritasuna eta baliozkotasuna.

16.– Prestakuntza-motak: (hasteko, jarduna hobetzeko, karrerarako, hautaketa-prozesuetarako).

17.– Prestakuntza-beharrak diagnostikatzea.

18.– Prestakuntza-planaren diseinua (helburuak, hartzaileak, metodologia, prestakuntza-modalitateak eta programazioa).

19.– Transferentziara bideratutako prestakuntza. Prestakuntzak antolakundean duen eragina

neurtzeko metodoak.

20.– Unibertsitateko irakaskuntzak eta haien kalitatea ziurtatzeko prozedura antolatzea.

21.– Bide-segurtasuneko prestatzaileen prestakuntza.

22.– Bide-segurtasuna: istripuak. Arrisku-taldeak eta -faktoreak.

23.– Ezagutzaren kudeaketa eta belaunaldiarteko erreleboko mentore-sistema.

XXXV. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO GIZA BALIABIDEETAKO ETA PRESTAKUNTZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako 12 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 9

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Giza Baliabideetako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma):

| | |
|---|---|
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 041302 | Lan-harremanak eta giza baliabideak |
| 031406 | Soziologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Giza Baliabideetako eta Prestakuntzako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

XXXVI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako 31 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 29

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 26

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |

| | |
|---|---|
| 084101 | Albaitaritza |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

- B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Medikuntzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Osasun Publikoko edo Epidemiologiako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko edo Epidemiologiako eskaletako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko edo Epidemiologiako eskaletako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma):

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 054201 | Estatistika |
| 054101 | Matematikak |
| 054988 | Beste matematika batzuk eta estatistika |
| 031406 | Soziologia |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Zaintza Epidemiologiko teknikaria edo Osasun Publikoko teknikaria – izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Osasuna: kontzeptua. Osasunaren determinatzaile sozialen eredua (Dahlgreen eta Whitehead) eta osasun-arloko desberdintasun sozialen kontzeptu-esparrua (Osasunaren Determinatzaile Sozialen Batzordea, Osasunaren Mundu Erakundearena).

2.– Osasun-arloko diferentziak eta desberdintasun sozialak. Ekitatea. Kontzeptuak. Euskadiko oinarrizko osasun-eremuetako bizi-itxaropena: desberdintasunak eta bilakaera.

3. – 2030 Agenda eta garapen jasangarrirako helburuak. Oinarrizko kontzeptuak. Funtsezko elementuak.

4.– Osasun publikoa: Kontzeptua, funtzioak, erantzukizunak eta printzipio orokorrak.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-laguntzaren sistemaren antolamendua. Osasun Sailaren eta Osakidetzaren funtzioak. Osasun Sailaren egitura orokorra. Organo periferikoak.

6.– EAEko osasun publikoa. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren arloak eta eginkizunak. Organo periferikoak. Egitura organiko eta funtzionalak. Osasun Publikoaren zuzendariordetzak. Osasun publikoko eskualdeak.

7.– Euskadiko 2013-2020ko osasun-plana.

8.– Estatistika deskribatzailea, probabilitatea eta inferentzia estatistikoa: gako-puntuak. Kausa-efektu erlazioa. Kausalitate-irizpideak.

Epidemiologia.

9.– Osasun publikoaren zaintza. Euskal Autonomia Erkidegoko Zaintza Epidemiologikoko Sistema. Euskal Autonomia Erkidegoko Zaintza Epidemiologikoko Sisteman erabiltzen diren informazio-sistemen oinarrizko ezaugarriak: Gaixotasun transmitigarrien zaintza (nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak –NABG–), minbiziaren erregistroa, ospitaletako alten erregistroa, hilkortasunaren erregistroa. EAEko osasun-inkesta (EAEOI).

10.– Epidemiologia: definizioa eta kontzeptua, helburuak. Metodo epidemiologikoaren ezaugarriak.

11.– Epidemiologiako maiztasun-neurriak. Intzidentzia eta prebalentzia kontzeptuak. Efektu-neurriak. Arrisku erlatiboa eta arrisku esleigarria.

12.– Azterketa epidemiologikoak: diseinua eta motak. Azterketa deskribatzaileak eta zeharkakoak. Kohorte-azterketak. Kasuen azterketak eta kontrolak. Interbentzio-azterketak.

13.– Gaixotasun transmitigarrien epidemiologia orokorra. EAEko zaintza-protokoloak: gaixotasun meningokoziko inbaditzailea zaintzeko protokoloak.

14.– Gaixotasun txertodunen epidemiologia. Txertaketen printzipio orokorrak: kontzeptua, oinarri immunologikoak eta sailkapena. Haurrentzako txertaketa-egutegia.

15.– EAEko biztanleen osasun-arazo nagusiak. Minbizia EAEn. Minbiziagatiko hilkortasunaren bilakaera EAEn. EAEko minbizi-baheketako programa.

Osasunaren sustapena.

16.– Osasunaren sustapena eta aplikazio praktikoa. Definizioa, oinarrizko kontzeptuak, estrategiak eta jardun-arloak.

17.– Politika publiko osasungarriak. Osasuna politika guztietan. Hiri-garapen jasangarri eta osasungarrirako estrategiak eta jardunbide egokiak.

18.– Osasuna sustatzen duten inguruneak. Kontzeptua. Inguruneen eragina pertsonen jokabidean: Osasuna sustatzen duten eskolen arrazoiak.

19.– Jarduera fisikoa eta egoneko bizitza. Gomendioak eta estrategiak. Eskola-bideak bizimodu aktiboago bat sustatu eta egoneko bizitza murrizteko adibide gisa.

20.– Osasun eta parte-hartze komunitarioa. Osasun komunitarioaren kontzeptuak eta oinarriak. Prozesu komunitario bateko lehen etapak: ezagutu-konektatzea eta diagnostikoa egitea. Eskola-jolastokiak eraldatzeko partaidetzazko proiektuak edo ibiltarientzako ibilbideak sortzeko proiektuak jarduera komunitarioen adibide gisa.

21.– Salutogenesia, osasunerako aktiboak eta Euskadi Aktiboa.

22.– Osasunerako trebetasun pertsonalak. Osasun-hezkuntzaren kontzeptua. Osasun-hezkuntza lantzea: interbentzio-arloak (osasun-arazoak, bizi-estiloak, bizi-trantsizioak) eta interbentzio-motak (aholkua, banakako heziketa eta taldeko heziketa).

Osasunaren babesa

23.– Elikagaien kontrola eta higienea. Elikagaien segurtasunaren esparrua Europar Batasunean. Elikagaiei buruzko legediaren, elikagaien higienearen eta kontrol ofizialen printzipio eta eskakizun orokorrak.

24.– RASFF - Elikagaien gaineko alerten sarea. Kudeaketa-sistema.

25.– Elikakatearen kontrol ofiziala. Kontrol ofizialeko plan nazionala. Euskadiko ikuskaritzak eta auditoriak. AKKPA/HACCP estandarra.

26.– Elikagai-establezimenduen errolda eta erregistroa. Establezimenduen erregistro autonomikoa eta orokorra (REACAV eta RGSEAA).

27.– Giza kontsumorako ura. Kontsumorako uraren hornidura eta kalitatea kontrolatzeko irizpide teknikoak eta sanitarioak. Euskadiko kontsumo-urak kontrolatu eta zaintzeko sarea.

28.– Legionellosia. Prebentzioa eta kontrola. Aplikatzekoa den araudia.

29.– Igerilekuen eta bainuguneen zaintza sanitarioa eta kontrola. Aplikatzekoa den araudia.

30.– Biozidak. Merkaturatze- eta erabilera-motak eta -baldintzak; 528/2012 Erregelamendua. Establezimendu eta zerbitzu bioziden erregistro ofiziala (ROESB).

# XXXVII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO OSASUN PUBLIKOKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako 57 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a.– Sarbide orokorraren modalitatea: 55

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 4

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 43

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 7

b.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |

| | |
|---|---|
| 084101 | Albaitaritza |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Medikuntzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Osasun Publikoko edo Epidemiologiako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko edo Epidemiologiako eskaletako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko edo Epidemiologiako eskaletako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma):

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 091301 | Erizaintza |
| 091601 | Farmazia |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia eta diploma):

| | |
|---|---|
| 054201 | Estatistika |
| 054101 | Matematikak |
| 054988 | Beste matematika batzuk eta estatistika |
| 031406 | Soziologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Zaintza Epidemiologiko teknikaria edo Osasun Publikoko teknikaria – izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio

hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XXXVIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LABORATEGIKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako 8 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan

daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak: kimika.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Analisi klinikoetako espezialistaren titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– Biokimika klinikoko espezialistaren titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Laborategiko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 22 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren,

hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 27 puntu izan

arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma edo ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 091401 | Ingeniaritza biomedikoa eta osasunekoa |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 084101 | Albaitaritza |

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Laborategiko fakultatibo espezialista– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren

organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

I.– LABORATEGIKO KALITATEA BERMATZEA.

1.– Laborategiak akreditatzeko aplikatutako gaitasun teknikoko arauak: UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 araua: Eskakizun orokorrak. Egiturari buruzko eskakizunak. Baliabideei buruzko eskakizunak. Prozesuei buruzko eskakizunak. Kudeaketa-sistemaren betekizunak. UNE-EN ISO 15189:2013 araua: Kudeaketaren eskakizunak. Eskakizun teknikoak. Akreditatzeko prozedura. Akreditazioaren irismena. Irismen malgua. ENAC NT 18 eta NT 19 dokumentuen aplikazioa.

2.− Ekipoak kalibratzea eta egiaztatzea. Laborategi kimiko eta mikrobiologikoetako trazabilitatea. Trazabilitate metrologikoa. Funtsezko kontzeptuak. Kalibrazio-jardueretako errorea eta ziurgabetasuna. Tolerantzia eta onarpen-irizpideak. Balantzak, material bolumetrikoa eta tenperatura-neurgailuak kalibratzea. Tenperatura kontrolatuko ekipoak ezaugarritzea.

3.– Metodo kimikoen ziurgabetasuna egiaztatu, balidatu eta zenbatestea: Metodo kimikoak egiaztatu eta balidatzeko ebaluatu behar diren parametroak. Saiakuntza kimikoetarako metodoen emaitzen ziurgabetasuna zenbatestea eta aurreikusitako erabilerara egokitzea. Ziurgabetasuna zenbatesteko kalkulu-sistematikak. Emaitzak eta ziurgabetasuna adieraztea.

4.– Saiakuntza kimikoetako emaitzen kalitatea bermatzea. Laborategietako erreferentziazko materialak, kontzeptua, motak, ezaugarriak eta erabilerak. Balioa bermatzea. Saiakuntza kimikoen kalitatea ebaluatzeko oinarrizko parametroak. Joerak ebaluatzeko sistematikak. Kontrol-grafikoak. Interkonparazio-ariketak: Motak, hautaketa eta emaitzen ebaluazioa.

5.– Aldez aurretik balidatutako ordezko metodo mikrobiologikoak edo metodo normalizatuak egiaztatzea: Detekzio-muga metodo kualitatiboetan. Zenbaketa-metodoen ziurgabetasuna berreskuratu, zehaztu eta zenbatestea.

6.– Mikrobiologiako emaitzen kalitatea bermatzea. Anduiak eta erreferentziazko materialak. Kalitatearen ebaluazioa: kalitate-kontrolaren sistematika: Barne-kontrola, metodo kuantitatiboetarako kontrol-grafikoak. Emaitzak onartzeko irizpideak. Interkonparazio-ariketak: Motak, hautaketa eta emaitzen ebaluazioa.

7.– Analisi klinikoetako emaitzen kalitatea bermatzea. Analitiken aurreko, analitiketan zeharreko eta analitiken osteko prozesuen kalitate-kontrola. Kontuan hartu beharreko parametroak. Kalitatearen adierazleak. Laborategien arteko konparazioak. Kalitatearen kanpo-ebaluaziorako programak, jardunaren ebaluazioa.

8.– Jaioberrietan gaixotasun endokrino-metabolikoak bahetzeko programa baten kalitatea. Helburuak eta kalitate-eskakizunak. Baimen informatua eta baimen ez informatua. Laginen kudeaketa, analisiak eta emaitzen jakinarazpena. Hondar-laginak zaindu, biltegiratu eta maneiatzeko protokoloak.

II.– KIMIKA ETA BIOKIMIKA KLINIKOKO LABORATEGIKO BERARIAZKO TEKNIKAK

9.– Metodo bolumetrikoak: azido-oinarria, erredoxa, konplexumetria. Metodo elektrokimikoak. pH, konduktimetria, elektrodo selektiboak. Elikagai-, ingurumen- eta klinika-laginak analizatzeko oinarriak,

motak eta aplikazioak.

10.– Metodo optikoak: turbidimetria, espektrofotometria UV-VIS eta infragorria. Oinarriak. Ekipoen oinarrizko osagaiak. Kalibrazioa eta kuantifikazio-metodoak. Teknika horiek elikagai-, ingurumen- eta klinika-laginen analisietan aplikatzea.

11.– Metalak zehazteko teknika instrumentalak. Oinarria. Ekipoen oinarrizko osagaiak. Detekzio-sistemak. Kalibrazioa eta kuantifikazio-metodoak. Teknika horiek elikagai-, ingurumen- eta klinika-laginen analisietan aplikatzea.

12.– Metodo kromatografikoak: Gasen kromatografia eta likidoen kromatografia. Oinarriak, motak. Detektagailuak; MS, MS/MS, QTOF akoplamenduak. Teknika horiek elikagai-, ingurumen- eta klinika-laginen analisietan aplikatzea.

13.– Immunoanalisi-teknikak: Elikagai-, ingurumen- eta klinika-laginak analizatzeko oinarriak, motak eta aplikazioak.

14.– Kimika klinikoan eta jaioberrien baheketan aplikatutako teknika analitikoak. Osasun publikoan interesa duten biomarkatzaileak eta abusu-drogak zehazteko aplikatutako tekniken oinarria. Jaioberrietan hauek bahetzeko teknika aplikatuen oinarria: Gaixotasun metabolikoak, sortzetiko hipotiroidismoa, fibrosi kistikoa eta zelula faltziformeen anemia. Erabaki-balioak ezartzeko sistematika.

III.– MIKROBIOLOGIAKO BERARIAZKO TEKNIKAK

15.– Kultibo-inguruneak. Kultibo-inguruneen motak, prestakuntza, kontserbazioa, eta errendimendu-saiakuntzak.

16.– Ura eta elikagaiak aztertzeko mikrobiologia-kultiboen bidezko teknika analitikoak: Mintzeko iragazketa, plakako zenbaketa, zenbakirik probableena. Presentzia/Absentzia. Emaitzak adieraztea.

17.– Biologia molekularreko teknikak. PCR proba eta denbora errealeko PCR proba. Ur eta elikagaietako mikroorganismo patogenoak identifikatzeko oinarriak eta aplikazioa.

18.– Ur eta elikagaien analisi mikrobiologikoa. Laginak garraiatu eta kontserbatzea. Laginak analisietarako prestatzea. Homogeneizazioa.

19.– Mikroorganismoen adierazleak. Kontzeptua eta interpretazioa, ur eta elikagaien analisietan agertuz gero. Ur eta elikagaietako mikroorganismoen adierazle nagusiak zehazteko teknikak: Koliformeak, escherichia coli, hesteetako enterokokoak, Clostridium perfringens. Aerobioak. Enterobakterioak.

20.– Ur eta elikagaien bidez transmititutako mikroorganismo patogenoak. Detektatzeko eta identifikatzeko kultibo- eta molekula-teknikak. Salmonella spp. Listeria monocytogenes. Campylobacter spp. Legionella pneumophila.

## XXXIX. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOKO LABORATEGIKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako 7 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

Sarbide orokorraren modalitatea: 7

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 5

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia- edo ingeniaritza-tituluak:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak: kimika.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Analisi klinikoetako espezialistaren titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– Biokimika klinikoko espezialistaren titulua.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Laborategiko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa,

gehienez 45 puntu izan arte:

b.1) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2) Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2) apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma edo ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma edo ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 091401 | Ingeniaritza biomedikoa eta osasunekoa |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 084101 | Albaitaritza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario –Laborategiko fakultatibo espezialista– izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Laborategiko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XL. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO ARRETA SOZIOLABORALEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako 3 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Arreta Soziolaboraleko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo diploma-tituluak:

| | |
|---|---|
| 092301 | Gizarte-lana |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Arreta Soziolaboraleko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Arreta Soziolaboraleko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta diploma):

| | |
|---|---|
| 092301 | Gizarte-lana |
| 011901 | Gizarte-hezkuntza |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia):

| | |
|---|---|
| 042101 | Zuzenbidea |
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa

alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Arreta Soziolaboraleko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Kidego Teknikoko Arreta Soziolaboraleko Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

# XLI. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO AZPIEGITURETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan ezarritakoari dagokionez, hau da Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalan sartzeko titulua: Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Herri-lanetako Ingeniarien kidego, eskala edo kategorian –A2 azpitaldea– edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoaren aukeretako Eraikuntza Zibilen, Hidrologiaren eta Hiri Garraio eta Zerbitzuen espezialitateetako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Herri-lanen Ingeniaritza Teknikoko Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Obra-kontratua Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean: Definizioa, aldaketa, zehaztapenak eta betearazpena.

2.– Zerbitzu-kontratua Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean: Definizioa, aldaketa, zehaztapenak eta betearazpena.

3.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea. Kontratazio-espedientea kontratu txikietan.

4.– Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura ingurumen-inpaktuaren deklarazioa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egiteko

5.– 112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena.

6.– Herri-lanen eraikuntza-laneko segurtasuna eta osasuna: Azterlanak eta planak. Segurtasunaren eta osasunaren koordinatzailea.

7.– Hirigintza-legedia. Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko Legea. Plangintza-tresnak: Lurralde-antolamenduaren gidalerroak, lurralde-plan sektorialak, plan bereziak eta erabilera-planak.

8.– Kostaldeei buruzko legedia. Kostaldeei buruzko 22/1998 Legea eta haren erregelamendu orokorra. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa. Zortasuna. Jabari publikoaren erabilera. Erreserbak, atxikipenak, baimenak eta emakidak.

9.– Portu-legedia. Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko 27/1992 Legea eta haren aldaketak.

10.– Portu-legedia. 236/1986 Dekretua, Portuko Lanei buruzko Araudia onartzen duena.

11.– 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.

12.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea. Garraio-, kontsumo- eta merkataritza-arloko tasak.

13.– Euskadiko garraio jasangarriaren 2030eko gidaplana.

14.– Euskadiko errepideen 2017-2028ko plan orokorra.

15.– Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sarea: Hitzaurrea eta erreferentzia-esparrua. Errepideen sailkapena eta irizpide orokorrak.

16.– Errepide-proiektuak: Trazadura aztertzeko oinarrizko datuak. Oinplanoko trazadura. Aurretiko bistako trazadura. Oinplanoko eta aurretiko bisatako trazaduren koordinazioa.

17.– Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko bide-zoruak dimentsionatzeko araua.

18.– Hormigoiak. EHE08 egitura-hormigoiaren jarraibidea: Betearazpena eta kontrola.

19.– Itsasoko klima. Informazio beharrezkoa eta eskuragarria. Shoaling, errefrakzioa, difrakzioa. Olatuen haustura.

20.– Olatuak aurreikustea eta hedatzea.

21.– Portu-babeseko obrak. Portuko dikeen funtzionaltasuna eta diseinua: ezponda-dikeak, bertikalak eta mistoak.

22.– Atrakatze-obrak. Atrakatze-obraren kontzeptua eta funtzioa. ROM 2.0-11.

23.– Portuko zolagainak eta betegarriak. Tipologia eta ezaugarriak. ROM 4.1-18.

24.– Dragatze-lanak eta betelanak. Dragatzeen eta betelanen sailkapena eta tipologia. Dragatze-ekipoak.

25.– Dragatze-proiektuen ingurumen-kudeaketa. Dragatzea ezaugarritzeko eta birkokatzeko jarraibideak itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoan (ILJP).

26.– Bateragarritasunaren txostena arautzen duena eta itsas estrategiekiko bateragarritasunaren irizpideak ezartzen dituen otsailaren 22ko 79/2019 Errege Dekretua, eta ondorengo aldaketak: martxoaren 29ko 218/2022 Errege Dekretua.

27.– Portuko obren proiektua. Alderdi teknikoak, edukia eta inplikazio administratiboak. Preskripzio tekniko partikularren agiriaren edukia.

28.– ROM programa (itsasoko obretarako gomendioak)

29.– Obren jarraipena. Obra-faseak. Itsas obren zuzendaritza. Kontrolak eta jarraipenak. Kalitate-kontrola.

30.– Nabigaziorako laguntzak eta itsas seinaleak.

31.– Itsasontzien matrikula eta zerrenda

32.– 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onartzen duena.

33.– Argiteria publikoa. Sarearen elementuak. Ezaugarriak. Energia aurreztea eta efizientzia. Galera elektrikoak.

XLII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO AZPIEGITURETAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalako 3 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan ezarritakoari dagokionez, hau da Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalan sartzeko titulua: Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Herri-lanetako Ingeniarien kidego, eskala edo kategorian –A2 azpitaldea– edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoaren aukeretako Eraikuntza Zibilen, Hidrologiaren eta Hiri Garraio eta Zerbitzuen espezialitateetako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |

| | |
|---|---|
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Herri-lanen Ingeniaritza Teknikoko Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Kidego Teknikoko Azpiegituretako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

XLIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO LABORATEGIKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Laborategiko Eskalako 3 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Laborategiko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia-, diploma- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Laborategiko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Laborategiko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Laborategiko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 051101 | Biologia |
| 051201 | Biokimika |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053101 | Kimika |
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |

| | |
|---|---|
| 091601 | Farmazia |
| 091301 | Erizaintza |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 091201 | Medikuntza |
| 051202 | Bioteknologia |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia):

| | |
|---|---|
| 091401 | Ingeniaritza biomedikoa eta osasunekoa |
| 051901 | Biomedikuntza |
| 084101 | Albaitaritza |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Laborategiko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Kidego Teknikoko Laborategiko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

# XLIV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO INGURUMENEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia-, diploma- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Ingurumeneko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, lizentzia, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia):

| | |
|---|---|
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Erradiazioaren izaera eta erradiazio-motak. Erradiazioaren eta materiaren arteko interakzioa. Magnitude eta unitate erradiologikoak. Erradiazioa detektatu eta neurtzea. Dosimetria. Erradiazioaren eta ingurumen biologikoaren arteko interakzioa.

2.– Energia nuklearraren legea. Instalazio nuklearrei eta erradioaktiboei buruzko erregelamendua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eskualdaketa. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eginkizun-gomendioaren erabakia.

3.– Instalazio erradioaktiboak. Sailkapena eta salbuespenak. Baimenak. Funtzionamendu-zehaztapenak. Ikuskatzeak. Instalazioetako langileak. Operazio-egunkaria, artxiboak, txostenak.

4.– Erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko erregelamendua. Praktiketarako dosiaren justifikazioa, optimizazioa eta muga. Eraginpeko langileen, ikasleen eta prestakuntzakoen ikasleen babes operazionala. Eremuen sailkapena. Esposizioaren ebaluazioa. Eraginpeko langileen osasun-zaintza.

5.– Diagnostiko medikoa egiteko xedez X izpien aparatuak instalatu eta erabiltzeari buruzko araudia. Ekipo eta instalazioak deklaratu eta erregistratzea. Instalazioen operazioa. Babes erradiologikoko zerbitzuak eta unitate teknikoak.

6.– Ekipoak eta material erradioaktiboa errepideetan garraiatzea. Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide-garraioari buruzko Europako Akordioan (ADR). Babes erradiologikoko neurriak. Pertsonala. Larrialdietako jarduketak.

7.– Biztanleen egoera arruntetako babes erradiologikoa. Larrialdi nuklear edo erradiologikoetako esku-hartzea. Aplikatu beharren irizpide erradiologikoak. Gertakari erradiologikoen jakinarazpena. Ingurumenaren zaintza erradiologikoa.

8.– Iturri erradioaktiboen babes fisikoa. Iturri erradioaktiboak sailkatzeko irizpideak. Babes-sistema eta funtzioak. Kategorien araberako babes-eskakizunak. Lekualdatu bitarteko babesa. Babes fisikorako plana.

9.– Segurtasun Nuklearreko Kontseilua. Funtzioak. Egitura. Gobernu-organoak. Pertsonala. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren estatutua.

10.– Hondakin erradioaktiboak. Hondakin erradioaktiboen plan orokorra. Kudeaketa. Sailkapena. Desklasifikazioa. Enresa - Empresa Nacional de Residuos Radiactivos SA.

11.– Iturri erradioaktibo zurtzak kontrolatu eta berreskuratzea. Enresari material erradioaktiboa transferitzea. Erradionuklido naturalak dituzten materialak erabiltzen dituzten jarduerak.

12.– Ekipo eta material erradioaktiboak fabrikatu eta merkaturatzen dituzten enpresak. Aparatu erradioaktiboen motak onartzea. X izpietako ekipoak saltzen dituzten eta haietarako laguntza teknikoa ematen duten enpresak.

13.– Euskal Autonomia Erkidegoko geografia fisiko orokorra: erliebea, arro hidrografikoak, klima, geomorfologia, lurzoruak eta landaredia. Lurpeko ura eta akuiferoak. Euskal Autonomia Erkidegoko lehorreko eta itsasoko ekosistema adierazgarrienak.

14.– Informazioaren teknologiak, informazio geografikoko sistemak eta haiek ingurumen-politiketan duten aplikazioa. Euskal Autonomia Erkidegoko gaikako kartografia eta ingurumeneko beste informazio-iturri espezifiko batzuk.

15.– Euskal Autonomia Erkidegoko naturaren kontserbazioa. Natura-balio nagusiak eta haien kontserbazio-egoera. Natura-intereseko espezieak eta espazioak. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua. Gaiari buruzko nazioarteko hitzarmenak. Naturagune babestuak eta haien kudeaketa. Espezie babestuak eta haien kudeaketa.

16.– Espazioak eta espezieak babesteko alderdi espezifikoak: itsasertzeko eta itsasoko ingurunea; ibai-ingurunea eta hezeguneak; basoak. Paisaia babestea. Espezie exotiko inbaditzaileen sarrera eta hedapena prebenitu eta kudeatzea. Genetikoki eraldatutako organismoen arloko araubide juridikoa eta kudeaketa.

17.– Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua. Ingurumen-ebaluazio motetako prozedurak eta metodologiak. Ingurumena zaintzeko programak, helburuak eta diseinua. Natura 2000 sarean eragina daukaten plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa: ingurumen-azterketen eduki espezifikoak; konpentsazio-neurriak.

18.– Kutsaduraren kontrol integratua, ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bakarra. Aplikatzekoa den araudia. Prozedura eta izapideak. Dokumentazio teknikoa. Teknika erabilgarri onenak eta isurtzeko muga-balioak. Aarhusko hitzarmeneko emisio eta transferentzia kutsagarriak erregistratzeko PRTR protokoloa. Jarraipena eta kontrola. Ingurumen-ikuskaritza. IMPEL eta REDIA.

19.– Klima-aldaketaren oinarrizko kontzeptuak. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko gaiko lege-esparrua. Klima-aldaketaren aurkako estrategiak eta tresnak. Emisio eskubideen salerosketako Europako sistema. Klima-aldaketaren ondorioen ebidentzia zientifikoa. Klima-aldaketaren ondorioen aurkako babesa eta egokitzeko estrategiak.

20.– Ingurumenaren arloko informaziorako irispidea eta parte-hartze publikoa. Aarhus Hitzarmena. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua.

21.– Ingurumen-erantzukizuna. Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua. Erantzukizun objektiboa eta subjektiboa. Prebenitu, saihestu eta konpontzeko betebeharra. Finantza-bermeak eta ingurumen-arriskuen analisia.

22.– Lurzoru kutsatuak: kontzeptu orokorrak, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak, lurzoruaren kalitatearen ikerketa, arriskuen analisia, lurzoru kutsatuak berreskuratzeko teknologiak.

23.– Lurzorua ez kutsatzeko eta, hala bada, zuzentzeko araudi autonomikoa. Lurzoruaren

kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko bitartekoak Kutsatzaileak eta ebaluatzeko gako-balioak Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozedurak. Salbuesteko prozedura.

24.– Euskadiko lurzorua babesteko 2030erako estrategia: Europako eta EAEko esparrua, helburuak, ildoak eta jarduteko gai-eremuak.

25.– Hondakinen arloko araudi orokorra. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta Lurzoru Kutsatuena, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko. Hondakinak lekuz aldatzeko araudia.

26.– Europako Batzordearen ekonomia zirkularreko ekintza-plana eta maila autonomikoan duen garapena. EAEko hondakinak kudeatzeko plana.

27.– Hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak. Kodetzea eta sailkatzea. Birziklatzeko sistemak eta balorizatzeko beste modu batzuk. Deuseztatzeko eta errausteko tratamenduak eta araudia.

28.– Atmosferaren kutsadura. Emisio-prozesuak, kutsatzaile motak eta osasunean, ekosistemetan eta materialetan duten eragina. Airearen kalitatearen, emisioen eta muga-balioen arloko araudia. Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak katalogatzea. Isuriak arazteko eta kontrolatzeko sistemak. Kutsatzaileen immisioa. Airearen kalitate-ebaluazioa.

# XLV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO INGURUMENEKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalako 5 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia-, diploma- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |

| | |
|---|---|
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Ingurumeneko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren

lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza, lizentzia, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 053301 | Fisika |
| 053101 | Kimika |
| 051101 | Biologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 053203 | Geologia |
| 071201 | Ingurumen-ingeniaritza |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |
| 082101 | Baso- eta mendi-ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia):

| | |
|---|---|
| 011101 | Pedagogia |
| 031301 | Psikologia |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa

alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Kidego Teknikoko Ingurumeneko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XLVI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Lan Arriskuen Prebentzioko Eskalako 10 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 5

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, diploma-, ingeniaritza- eta arkitektura-tituluak eta ingeniaritza teknikoko eta arkitektura teknikoko tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Halaber, deialdi honetako lanpostuek betekizun espezifiko hauek dituzte:

– 600 orduko prestakuntza lan-arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, 3 espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan Lan Arriskuen Prebentzioko teknikarien kidego, eskala edo kategorietan (A2 azpitaldekoak) edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, arkitektura, ingeniaritza, ingeniaritza teknikoa, arkitektura teknikoa eta diploma):

| | |
|---|---|
| 031406 | Soziologia |
| 042101 | Zuzenbidea |
| 031301 | Psikologia |
| 091201 | Medikuntza |
| 091301 | Erizaintza |

| | |
|---|---|
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073101 | Arkitektura |
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072401 | Meatzeen eta energiaren ingeniaritza |
| 071301 | Energiaren ingeniaritza |
| 102201 | Prebentzioa eta lan-segurtasuna |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Lan-arriskuen Prebentzioko Eskaletako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Kidego Teknikoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XLVII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-SEKTOREKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskalako 2 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia-, diploma- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 091601 | Farmazia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Nekazaritza-ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Albaitaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko Nekazaritza-ingeniaritza Teknikoaren aukeretako Nekazaritza- eta Abeltzaintza-ustiategien, Baratzezaintza eta Lorezaintzaren, Nekazaritza- eta Elikagai-industrien, Nekazaritzako Mekanizazioaren eta Eraikuntzen espezialitateetako edo Basogintzako Ingeniaritza Teknikoko Basogintza-industrien eta Baso-ustiapenen espezialitateetako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 091601 | Farmazia |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia):

| | |
|---|---|
| 042101 | Zuzenbidea |
| 051202 | Bioteknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 051201 | Biokimika |
| 081101 | Animalien zientzia eta ekoizpena |
| 091201 | Medikuntza |

| | |
|---|---|
| 053101 | Kimika |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

b.2) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Mintegiak. Motak. Produkzio-bitartekoak, instalazioak eta produkzio-teknikak, produkzio-orientazioen arabera: apaingarriak, baratzekoak, frutakoak, basokoak.

2.– 19/1995 Legea, nekazaritza-ustiategiak modernizatzekoa. Lehentasunezko nekazaritza-ustiategiak eta labore-unitate minimoak. Euskal Autonomia Erkidegoko erregulazioa.

3.– Abeltzaintzako espezieen identifikazioa eta erregistro ofizialak. Identifikazio-sistemak. Legedia.

4.– 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.

5.– 1305/2013 (EB) Erregelamendua: landa-garapenerako laguntzak. EAEko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programa. NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (2023-2027) Edukiak eta programak.

6.– Prezio- eta merkatu-politika. Nekazaritza-produktuen merkatuen antolamendu bateratua sortzen duen 1308/2013 (EB) Erregelamendua. Prezioen, laguntzen eta esku-hartzearen araubidea. Neurri horizontalak. Landa-garapenaren orientazioa.

7.– NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen lehenengo zutabea. Nekazaritza bermatzeko Europako funtsa (NBEUF/FEAGA) Laguntzen baldintzapena, modulazioa eta desakoplamendua. NPEren 2013ko erreforma. Oinarrizko ordainketaren erregimen berria eta beste ordainketa desaklopatu batzuk.

8.– NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen bigarren zutabea. Landa-garapena. Aurrekariak. LGENF-Landa-garapenerako Europako nekazaritza-funtsa, nekazaritza-funts gisa, eta EIE-Europako egitura- eta inbertsio-funtsa.

9.– Nekazaritza-politika erkidea eta baldintzapena. Araudia: Abenduaren 19ko 1076/2014 Errege Dekretua eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzekoa: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak. Euskal Autonomia Erkidegoko aplikazioa.

10.– Landa-garapenaren erronkak Euskadin. Landa-ingurunearen despopulazioa. Gazteen eta emakumeen eginkizuna. Landa-ingurunearen berrikuntza eta digitalizazioa. Erronka horiei aurre egiteko tresnak landa-garapeneko politikan.

11.– Esne gordina ekoizteko baldintza higieniko-sanitarioak eta haren trazabilitatea. Q letra. Kontrol-programa.

12.– Nekazaritza-ustiategien erregistroa. 203/2011 Dekretua, irailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustiategien erregistro orokorrari buruzkoa.

13.– Elikagaien kalitatea. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 21eko 1151/2012 (EB) Erregelamendua. Kalitate bereizia: jatorri-deitura babestua (JDB), adierazpen geografiko babestua (AGB), berezitasun tradizional bermatua (BTB). Ardoen, gazten eta bestelako elikagai eta nekazaritza-produktuen erreferentzia. Erkidegoko erregistroa. Euskadiko kalitate bereiziaren karakterizazioa.

14.– Ekoizpen ekologikoa. Euskadiko ekoizpen ekologikoaren karakterizazioa, bilakaera eta garapena. Euskadiko araudia eta kontrola. ENEEK-Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua. Ekoizpen integratua: ezaugarriak, araudia eta bilakaera.

15.– Eremu kalteberak. Nitratoek ura kutsatzea. Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera.

16.– Informazio geografikoko sistemak. 1077/2014 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, nekazaritzako lursailen informazio geografikoko sistema arautzen duena. Otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzekoa: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen

onuradunek bete beharreko baldintzak.

17.– Elikagaien kalitatea kontrolatzeko sistemak: Europar Batasuneko eta Euskadiko araudia. Trazabilitatea eta autokontrola. Kontsumitzaileari elikagaiez ematen zaion informazioari buruzko Europar Batasuneko legeak.

18.– Landare-osasuna Euskadin: Landare Osasunaren 43/2002 Legea, abuztuaren 24ko 739/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez xedapenak ematen baitira Europar Batasunak landareak izurrietatik babesteko neurriei eta arlo horretan egin beharreko kontrolei eta bestelako jarduera ofizialei buruz emandako araudia Espainian aplikatzeko. Batzorde fitosanitario nazionala. Ikuskaritza fitosanitarioko zerbitzua. Euskadiko izurrite interesgarri nagusiak.

19.– Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria: 2009/128/EE Zuzentaraua eta 1311/2012 Errege Dekretua. Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarrirako ekintza-plan nazionala. Produktu fitosanitarioak nola merkaturatu eta erabiltzen diren zaintzeko programak. Osasun-defentsarako bitartekoen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala.

20.– 30/2006 Legea, uztailaren 26koa, mintegiko hazi eta landareei eta baliabide fitogenetikoei buruzkoa. Mintegiko landareak eta haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu tekniko orokorra. Barietateen erregistroa.

21.– Lagun egiteko animaliak: identifikazioa eta erregistroa. Halakoak izateko arauak. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak. Legegintza eta eskumen-banaketa.

22.– 8/2003 Legea, Animalien Osasunari buruzkoa, eta 2016/429 (EB) Erregelamendua, animalien gaixotasun transmitigarriei buruzkoa. Gaixotasunetarako zainketa-, kontrol- eta jakinarazpen-sistemak. Animalien osasunaren arloko osasun-alerta koordinatzeko plana.

Gaixotasunen aurkako kontingentzia-planak.

23.– Pentsuen higieneari, segurtasunari eta etiketei buruzko araudia. Europar Batasunean baimendu eta erregistratzeko prozedurak. Aplikatu beharreko araudia.

24.– Gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuei eta produktu eratorriei aplikatu beharreko arauak. Kategorizazioa. Bilketa eta garraioa. Destino baimenduak. Trazabilitatea.

25.– Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatearen kontrol ofizialerako 2021-2025eko plana: antolaketa, edukiak. Agindua, 2016ko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten baita. Ebazpena, 2021eko apirilaren 14koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialeko plana.

26.– Abereen hautaketa. Abeltzaintzako arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko programa nazionala. Europar Batasuneko esparru zootekniko berria.

27.– Animalien babesa eta ongizatea abeltzaintzako ustiategietan eta garraioan.

28.– Ustiapen-koadernoa eta haren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategietan.

29.– Animalien osasuna. Europar Batasunean eta Espainian, OIE-Epizootien Nazioarteko Bulegoan nahitaez adierazi beharreko gaixotasunak.

30.– 2016/2031 (EB) Erregelamendua, landare-izurriteen aurkako babes-neurriei buruzkoa. Izurrite-motak. 1054/2021 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez, batetik, Landareen Operadore Profesionalen Erregistroa, pasaporte fitosanitarioak emateko baimena duten operadore profesionalek bete beharreko neurriak eta ugalketarako landare-materialaren operadore profesionalen betebeharrak ezartzen eta arautzen baitira, eta, bestetik, nekazaritzaren arloko zenbait errege-dekretu aldatzen baitira. Neurriak, operadoreen erregistroa, ziurtagiri fitosanitarioak.

XLVIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINTZA-SEKTOREKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskalako 11 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 6

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu-, lizentzia-, diploma- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 091601 | Farmazia |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan

daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Nekazaritza-ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Albaitaritzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektoreko teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko Nekazaritza-ingeniaritza Teknikoaren aukeretako

Nekazaritza- eta Abeltzaintza-ustiategien, Baratzezaintza eta Lorezaintzaren, Nekazaritza- eta Elikagai-industrien, Nekazaritzako Mekanizazioaren eta Eraikuntzen espezialitateetako edo Basogintzako Ingeniaritza Teknikoko Basogintza-industrien eta Baso-ustiapenen espezialitateetako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 072101 | Elikagaien zientzia eta teknologia |
| 084101 | Albaitaritza |
| 051101 | Biologia |
| 081103 | Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landa-inguruneko ingeniaritza |
| 081102 | Nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaietako ingeniaritza |
| 072103 | Elikagaietako ingeniaritza |
| 081201 | Baratzezaintza eta lorezaintzako ingeniaritza |
| 091601 | Farmazia |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia):

| | |
|---|---|
| 042101 | Zuzenbidea |
| 051202 | Bioteknologia |
| 052101 | Ingurumen-zientziak |
| 051201 | Biokimika |
| 081101 | Animalien zientzia eta ekoizpena |
| 091201 | Medikuntza |
| 053101 | Kimika |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Kidego Teknikoko Nekazaritza- eta Abeltzaintza-sektoreko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XLIX. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO INDUSTRIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Industriako Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Industriako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Industria-ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 25 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Industriako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,083 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Industriako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko Industria Ingeniaritza Teknikoaren aukeretako Kimika Industrialaren, Elektrizitatearen, Elektronika Industrialaren, Mekanikaren edo Ehungintzaren espezialitateetako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Industriako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,151 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 10 puntu lor daitezke):

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako Ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

– 3 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |
| 073102 | Ingeniaritza geomatikoa, topografia eta kartografia |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Industria Ingeniaritza Teknikoko Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Industriako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Kidego Teknikoko Industriako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Industriaren Legea. Segurtasun eta kalitate industrialak. Erregistro Integratu Industriala. Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren Legea; industria-jarduerak hasteko, funtzionatzeko, aldatzeko eta eteteko araubidea; Industria Erregistroa.

2.– Sektore Elektrikoari buruzko Legea. Garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta argindar-instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen errege-dekretua. Egiaztapen elektrikoak eta erregulartasuna horniduran.

3.– Sorkuntza elektrikoa eta autokontsumoa: energia berriztagarriko iturrien, kogenerazioaren eta hondakinen bidez energia elektrikoa ekoizteko jarduera. Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak.

4.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko Legea. Garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta gas naturalaren instalazioak baimentzeko prozedurak.

5.– Energia-efizientzia. Eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko prozedura. EAEko eraikinen energia-efizientzia ziurtatzea. Energia-auditoretzak. Energia-hornidurаren efizientzia sustatzea. Energia-jasangarritasuna EAEn.

6.– Diseinu Industrialaren Babes Juridikoari buruzko Legea. Patenteen Legea eta Erregelamendua; Marken Legea eta Erregelamendua. Jabetza industrialaren arloko nazioarteko jabetza. Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

7.– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) enpresan. Komunikazio-sareak, LAN, WAN, intraneta, estraneta. Automatizazioa, robotizazioa eta IKTen erabilera fabrikazioan (CAD, CAM, CIM). Intraneta: bilakaera eta eragina enpresan.

8.– 4.0 industria. Teknologia gaitzaileak: Adimen artifiziala, gauzen Interneta, Big Data. Errealitate birtuala/areagotua, zibersegurtasuna, robotika. Ezaugarriak, aplikazio-sektore nagusiak, funtzionalitatea eta etorkizuneko joerak.

9.– Bidaiarien hiri-garraioa. Autobus-geltokiak. Bidaiarien aldageltokiak. Hiri-mugikortasun jasangarriko planak. Disuasio-aparkalekuak. Metropoli-garraioaren agintaritzak. Edukiera handiko hiri-garraioko sistemak.

10.– Salgaien garraioa. Salgaien logistika eta garraio intermodala. Euskal Autonomia Erkidegoko zentro logistikoak. Salgai arriskutsuak.

11.- Itsas garraioa. Trafikoen egitura eta bilakaera. 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. Bilboko eta Pasaiako portu-agintaritzak, eta autonomia-erkidegoaren eskumeneko portuak.

12.– Aireko garraioa. Trafikoen egitura eta bilakaera. 1008/2008 (EE) Erregelamendua, EBn aire-zerbitzuak ustiatzeko arau komunei buruzkoa. Aireportuak kudeatzeko EAEko eredu integratua.

13.– Garraio-eskaria. Elastikotasunak. Garraioaren barneko eta kanpoko kostuak. Inbertsioen ebaluazio-irizpideak. Kostu-mozkinen analisia. Garraioaren finantzaketa eta tarifak.

14.– Ibilgailuen Azterketa Teknikoa. Ibilgailu automobilak konpontzeko tailerrak. Homologatzea ibilgailu motordunak eta horien atoiak, makina autopropultsatuak edo atoian eramatekoak, nekazaritzako ibilgailuak eta horien sistemak, zatiak eta piezak. Ibilgailu historikoak.

15.– Goi-tentsioko instalazio elektrikoen baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko erregelamendua eta jarraibide tekniko osagarriak.

16.– Gas-erregaiak banatzeko eta erabiltzeko erregelamendu teknikoa eta jarraibide tekniko osagarriak. Gas-erregaien sare eta harguneei buruzko erregelamendua.

17.– Petrolio-instalazioen erregelamendua. Biltegiratze-parkeak. Ibilgailuak hornitzeko instalazioak. Instalatzaileak edo konpontzaileak; enpresa instalatzaileak edo konpontzaileak. Ibilgailuei erregaiak txikizka hornitzea EAEn.

18.– Substantzia arriskutsuekin gerta daitezkeen istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak.

19.– Suteen aurkako babes-instalazioen erregelamendua. Suteen aurka babesteko ekipoen eta sistemen ezaugarriak eta instalazioa.

20.– Proiektuen kudeaketa. Obren zuzendaritza. Obren jarraipena.

21.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea. Obra-kontratua. Zerbitzu-kontratua.

22.– Trafikoa kudeatzeko proiektuak ebaluatzeko metodologia.

23.– Bide-segurtasuneko neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.

24.– Garraio-sistema adimendunak (ITS).

25.– Trafiko-istripuak berregitea.

26.– Euskadiko industria. Ekonomian duen partaidetza. Industria-sektore nagusien aldagaiak aztertzea: Balio erantsia, inbertsioa, merkataritza-balantza, enplegua.

27.– Kontabilitatea enpresan. Egoera-orri finantzarioak: Balantzea eta emaitzen kontua. Aktibo eta pasiboko ondare-masak. Finantzaketa-iturriak eta oinarrizko finantza-oreka. Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria. Cash-flowa.

28.– Enpresaren kontzeptua. Enpresaren arlo funtzional bereizgarrienak: Hartzen dituen jarduerak eta edukia. Enpresa txiki eta ertaina. Enpresa multinazionalak. Enpresa-taldeak.

29.– Klima-aldaketa eta haren ondorioak. Klima-aldaketari buruzko legeria. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena. Isurien merkataritza. Klima-aldaketaren efektuak prebenitzea eta haietara egokitzea.

30.– Politika teknologikoa enpresan. Enpresaren estrategia teknologikoa diseinatzeko gakoak (produktua-merkatua-teknologia). Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza. Zaintza teknologikoa.

## L. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO KIDEGO TEKNIKOKO INDUSTRIAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Industriako Eskalako 6 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6 d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Kidego Teknikorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Kidego Teknikoko Industriako Eskalan sartzeko tituluak: ikasketa-eremu hauetako gradu- edo ingeniaritza-tituluak edo ingeniaritza teknikoko titulua:

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Industria-ingeniaritza Teknikoko lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da betekizun hori, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A2 azpitaldeko Industriako teknikarien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,056 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Kidego Teknikoko Industriako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko Industria Ingeniaritza Teknikoaren aukeretako Kimika Industrialaren, Elektrizitatearen, Elektronika Industrialaren, Mekanikaren edo Ehungintzaren espezialitateetako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Kidego Teknikoko Industriako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,170 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta

gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, ingeniaritza eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 071502 | Industria-teknologietako ingeniaritza |
| 071302 | Ingeniaritza elektrikoa |
| 071404 | Industria elektronika eta automatikaren ingeniaritza |
| 071503 | Ingeniaritza mekanikoa |
| 071101 | Industria-kimikaren ingeniaritza |
| 072301 | Ehun-ingeniaritza |

– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, arkitektura teknikoa, diploma eta ingeniaritza teknikoa):

| | |
|---|---|
| 073101 | Arkitektura |
| 073201 | Arkitektura teknikoa |
| 073202 | Ingeniaritza zibila |
| 073102 | Ingeniaritza geomatikoa, topografia eta kartografia |
| 041301 | Administrazioa eta enpresa |
| 031101 | Ekonomia |
| 041201 | Finantza eta aktuariotza |
| 041202 | Finantzak eta kontabilitatea |

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Industria Ingeniaritza Teknikoko Erdi-mailako Teknikarien Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren

organismo autonomoetako Kidego Teknikoko Industriako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Kidego Teknikoko Industriako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

LI. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO KUDEAKETA-INFORMATIKAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako 10 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 6

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 3

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalan sartzeko tituluak: Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria eta Sareko Informatika Sistemen Administrazioko goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Kudeaketa-informatikako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,152 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Aplikazio Informatikoak Garatzeko goi-mailako teknikarien eta Sistema Informatikoen Administrazioko goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,277 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Gehienez 10 puntu emango dira titulu hauengatik, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluez bestelakoak badira:

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko: Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria eta Sareko Informatika Sistemen Administrazioko goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

– 3 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko: Web Aplikazioen Garapeneko goi-mailako teknikaria eta Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Informatikako Laguntzaile Teknikoen Kidegoan eta Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Aplikazio Informatikoak Garatzeko goi-mailako teknikarien aukeran karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

Oinarrizko teknologia.

1.– Sistema informatikoak. Definizioa eta kontzeptu orokorrak: arkitektura, osagai fisikoak, hardware erredundantzia, eskuragarritasun handia, klusterra eta karga-kulunka sistemak.

2.– Zerbitzariko sistema eragileak: oinarriak, kudeaketa, zerbitzuak, erabiltzaileak, segurtasuna, komunikazioak. Windows Server eta Linux. Zerbitzarien birtualizazioa.

3.– Bezero-postuko sistema eragileak. Sistema eragile jabeduna (Windows) eta sistema eragile irekiak (Linux): kontzeptu eta funtzio nagusiak. Banaketak.

4.– Gailu mugikorretarako sistema eragileak: iOS eta Androiden oinarrizko kontzeptuak.

5.– Biltegiratze-sistemak: fitxategiak antolatzea eta erabiltzea. RAID diskoak. NAS eta SAN biltegiratze-sareak. Biltegiratzearen birtualizazioa.

6.– Datu-baseak: kontzeptu orokorrak: motak, antolamendua eta sarbidea. Diseinu logikoa eta

fisikoa. Eredu erlazionala: ezaugarriak eta osagaiak.

7.– SQL galdeketa-lengoaia. Datuak definitzeko lengoaia DDL (Data Definition Language). Datuak manipulatzeko lengoaia DML (Data Manipulation Language).

8.– Bulegoen automatizazioa: Bulegotika, informatika pertsonala. Azken erabiltzailearen aplikazioak –testu-tratamendua, kalkulu-orria, aurkezpenak eta datu-basea–.

Sareak, komunikazioak eta Internet.

9.– Sare lokalak: Kontzeptuak, arkitektura, topologia, transmisio-bideak, elementuak eta sarbide-metodoak. Kableatu-sistemak. Sareko elektronikaren oinarrizko kontzeptuak: errepikagailuak, kontzentratzaileak, zubiak, kommutadoreak, bideratzaileak, pasabideak. Hauen arteko bereizketa: LAN, VLAN eta WAN.

10.– IP sareak: OSI eredua eta FTP, ICMP, SSH, TCP/IP eta UDP protokoloak. DNS edo domeinu-izenen sistema.

11.– Hari gabeko sareak. Wifia: Ezaugarri funtzionalak eta oinarrizko teknikak. Bluetooth, RFID eta NFC. Mugikortasuna eta 3G, 4G, LTE eta 5G sareak.

12.– Internet sarea: ezaugarriak. Interneten oinarritutako zerbitzuak. Interneten erabiltzen diren lengoaiak eta teknologiak: HTML edizioa, CSS, XML eta JavaScript estilo-orriak sortzea. Web nabigatzaileak.

13.– Webguneak: irisgarritasuna (1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa), erabilgarritasuna eta analitika. UNE-EN 301549 Arauaren irisgarritasun-baldintzak, W3C gomendioak.

14.– Posta elektronikoa: SMTP protokoloa eta POP3 eta IMAP zerbitzariak.

Antolaketa eta kudeaketa

15.– Taldeko lana eta lantaldeak: kontzeptuak eta motak. Lankidetza-tresnak eta sare sozialak.

16.– Cloud Computing. Hodei pribatuen, publikoen eta hibridoen definizioa eta kontzeptu orokorrak.

17.– 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena Administrazio Elektronikoaren eremuan. Hitzaurrea. 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. artikuluak. Eranskina (Terminoen Glosarioa).

Segurtasuna eta datuen babesa

18.– Segurtasun fisikoa eta logikoa sistema informatikoetan. Sarbideen kontrola. Kontzeptua eta definizioak: benetakotasuna, konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna, osotasuna eta trazabilitatea.

19.– Informazioa babesteko eta berreskuratzeko sistemak. Informazioa biltegiratze-euskarrietan kontserbatzeko prozedurak eta metodoak. Backup-sistemak. 3-2-1 araua.

20.– Mehatxuak eta ahuleziak kudeatzea. Definizioak eta kontzeptuak: HOAXak, SPAM, Phising, Ramsonware, Birusa eta beste software gaizto (malware) aurreratu bat, mehatxu iraunkor aurreratuak. Suebakiak eta proxyak erabiltzea.

21.– Zibersegurtasuna. Definizioak eta kontzeptuak: SIEM, IDS, IPS lanabesak. Komunikazio mugikorretarako neurri espezifikoak: MDM kontzeptua eta BYOD estrategiak.

22.– Erabiltzaileen identifikazioa. Definizioak eta kontzeptuak: LDAP, Single sign-on. Sistema korporatiboetarako urruneko sarbidea: telelana, VPN, lanpostuen birtualizazioa VDI.

23.– 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunaren Eskema Nazionala (ENS) arautzen duena. II. eta III. kapituluak eta IV. eranskina.

24.– Informazioaren segurtasuna kudeatzeko prozesua, Eusko Jaurlaritzak herritarrei ematen dizkien zerbitzu elektronikoen segurtasuna (GureSek).

LII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO KUDEAKETA-INFORMATIKAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako 10 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 4

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalan sartzeko tituluak: Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria eta Sareko Informatika Sistemen Administrazioko goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Kudeaketa-informatikako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,104 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Aplikazio Informatikoak Garatzeko goi-mailako teknikarien eta Sistema Informatikoen Administrazioko goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,312 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Gehienez 20 puntu emango dira titulu hauengatik, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluez bestelakoak badira:

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko: Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria eta Sareko Informatika Sistemen Administrazioko goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko: Web Aplikazioen Garapeneko goi-mailako teknikaria eta Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Informatikako Laguntzaile Teknikoen Kidegoan eta Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Aplikazio Informatikoak Garatzeko goi-mailako teknikarien aukeran karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kudeaketa-informatikako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

LIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako 10 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 8

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalan sartzeko tituluak: Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikaria, Laborategi Klinikoko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria, eta Kimikako eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Laborategiko kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,152 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko Eskalako edo Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kimika Industrialeko goi-mailako teknikarien, Diagnostiko klinikoko laborategiko goi-mailako teknikarien, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,277 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) Gehienez 10 puntu emango dira titulu hauengatik, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluez bestelakoak badira:

– 5 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko: Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikaria, Laborategi Klinikoko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria, Kimikako eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

– 3 puntu emango dira honako honetan: Produktu Farmazeutikoak, Bioteknologikoak eta Antzekoak Fabrikatzeko goi-mailako teknikaria, eta haren baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoan –Laborategiko laguntzailea– edo Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko Eskalako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

I.– Laborategia.

1.– Laborategiak akreditatzea. UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 araua. Egiturari buruzko eskakizunak. Prozesuaren eskakizunak. Kudeaketa-sistemaren betekizunak. Laborategiko akreditazioaren, ziurtapenaren eta jardunbide onen kontzeptuak.

2.– Laborategiko ekipoak kudeatzea. Ekipoen eta materialen mantentze-lanak, egiaztapenak eta kalibrazioa. Patroiak eta erreferentziazko materialak. Trazabilitate metrologikoaren kontzeptua. Laborategiko material bolumetrikoa. Laborategiko pisatze-tresnak. Laborategiko tenperatura-ekipoak.

3.– Laborategiko kalitatea. Saiakuntza-metodoen kalitate-parametroak: zehaztasuna, doitasuna, sentikortasuna, selektibotasuna, detekzio-muga, kuantifikazio-muga, sendotasuna. Kanpoko eta barruko kalitatea ebaluatzea. Kontrol-kartak. Datuak onartzea eta baztertzea. Emaitzak adieraztea.

4.– Laborategiko segurtasuna: Substantzia kimikoak manipulatzeko arriskuak eta prebentzioa. Mikrobiologiako laborategiko arriskuak eta prebentzioa. Eragile kimikoen sailkapena.

5.– Laborategiko oinarrizko eragiketak: Pisatzea, soluzioak prestatzea, kontzentrazioa adieraztea. Analisi kimikorako teknikak: disoluzioak, patroiak eta erreaktibo adierazleak baloratzea. Mikrobiologiako laborategiko materiala prestatzea. Esterilizazioa.

6.– Metodo bolumetrikoak, grabimetriko-elektrokimikoak, espektrofotometrikoak eta kromatografikoak. Kontzeptu nagusiak eta aplikazioak.

7.– Mikrobiologiako kultibo-inguruneak eta ingurune erreaktiboak: osagaien funtzioa. Motak: orokorrak, selektiboak, aberastekoak eta diferentzialak. Prestaketa, kalitate-kontrola eta biltegiratzea.

8.– Mikroorganismoak: adierazleak, definizioa eta aplikazioa. Uretan eta elikagaietan mikroorganismo-adierazleak detektatu, zenbatu eta identifikatzeko teknikak. Oinarria eta aplikazioa.

II. – Elikadura- eta ingurumen-osasuna.

9. – Kontsumoko urak: edateko ura arazteko eta banatzeko prozesua. Parametro mikrobiologikoak eta fisikokimikoak. Kontsumoko uraren arrisku mikrobiologiko eta kimiko nagusiak.

10.– Bainatzeko urak. Bainatzeko uren gaineko arauak eta arrisku nagusiak.

11.– Legionella: Legionellaren ezaugarriak. Hozte-dorreetako eta beste ingurune batzuetako arriskuak. Prebentzioa.

12.– Autokontrol-sistemak. Oinarri teorikoak. AKKPA/HACCPn oinarritutako autokontrola elikagai-establezimenduetan. Igerilekuetako eta hozte-dorreetako autokontrola.

13.– Agerraldi epidemiologikoak: Elikagai-agerraldi nagusiak eta ezaugarriak.

14.– Elikagai-establezimenduen ikuskapena: Prestakuntza. Ikuskapen-zati nagusiak. Ikuskapen-aktak betetzea.

15.– Jantoki kolektiboak: Definizioak. Jantoki kolektiboak arriskuaren arabera sailkatzea. Higiene- eta osasun-eskakizun nagusiak.

16.– Elikagaiak kontserbatzeko sistemak: hoztea, izoztea, bero-tratamendua, ontziratzea. Kasu bakoitzeko biltegiratze-baldintzak.

17.– Elikagaien etiketak eta trazabilitatea: Nahitaezko etiketatzea. Trazabilitatearen kontzeptua.

LIV. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO LABORATEGIKO ETA OSASUN- ETA INGURUMEN-IKUSKARITZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako 8 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 4

2. hizkuntza-eskakizunarekin: 4

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalan sartzeko tituluak: Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikaria, Laborategi Klinikoko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria, eta Kimikako eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Laborategiko kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,104 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko Eskalako edo Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Kimika Industrialeko goi-mailako teknikarien, Diagnostiko klinikoko laborategiko goi-mailako teknikarien, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,312 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Gehienez 20 puntu emango dira titulu hauengatik, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluez bestelakoak badira:

– 10 puntu emango dira titulu hauetako bakoitzeko: Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria, Analisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategiko goi-mailako teknikaria, Laborategi Klinikoko eta

Biomedikoko goi-mailako teknikaria, Kimikako eta Ingurumen Osasuneko goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

– 5 puntu emango dira honako honetan: Produktu Farmazeutikoak, Bioteknologikoak eta Antzekoak Fabrikatzeko goi-mailako teknikaria, eta haren baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoan –Laborategiko laguntzailea– edo Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko Eskalako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gainditŭta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango

zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

# LV. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO ARRANTZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalako 4 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalan sartzeko tituluak: Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria, Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria eta Akuikulturako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Arrantzako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,152 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Itsas Nabigazio, Arrantza eta Garraioko Goi-mailako teknikarien edo Itsasontziko Makinak eta Instalazioak Ikuskatu eta Kontrolatzeko Goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,277 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu titulu bakoitzeko, gehienez 10 puntu izan arte, titulu hauengatik, betiere eskalan

sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa bada: Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria, Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria, Akuikulturako goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nabigazio, Arrantza eta Itsas Garraioetako goi-mailako teknikarien edo Itsasontziko Makinak eta Instalazioak Ikuskatu eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikarien aukeretako karrerako funtzionario izateko edo A arrantza-ikuskatzaile edo B arrantza-ikuskatzaile lan-kontratudun finko izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

2.– 6/1998 Legea, martxoaren 13koa, Itsas Arrantzari buruzkoa.

3.– 3/2001 Legea, martxoaren 26koa, Estatuko itsas arrantzari buruzkoa. Arrantza-sektorearen antolamenduaren eta arrantza-produktuen merkaturatzearen arloko arau-hausteak, 102., 103. eta 104. artikuluak.

4.– Arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren arloko eskumenak: Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketa Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan.

5.– 67/1982 Dekretua, Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren antolamenduari buruzkoa. EAEko arrantza-ikuskaritzaren antolamendua. Aplikatu beharreko legeak, eskumenak eta aplikazio-eremua.

6.– Itsaski-bilketa eta algak eta arribazoiak bildu eta merkaturatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko itsaski-bilketaren antolamendua. Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko molusku bibalbioen ekoizpen-eremuen sailkapena. Arrantza eta itsaski-bilketa Euskal Autonomia Erkidegoko biotopoetan eta eremu babestuetan.

7.– Agindua, 2012ko irailaren 3koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bitartez, batetik, kudeaketa-plan bat ezartzen da, saiakuntza gisa, Donostiako Igeldoko Itsasargiaren eta Orioko Anarri Tontorraren artean kokatzen den eremuan lanperna (Pollicipes pollicipes) ustiatzeko, eta, bestetik, zenbait debeku ezartzen da lanpernak biltzeko; eta Agindua, 2019ko maiatzaren 7koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena. Honen bitartez, lanperna (Pollicipes pollicipes) ustiatzeko plana onartzen da Gorlizko Billano lurmuturraren eta Bakioko Birjilandaperen arteko itsasertzean.

8.– 198/2000 Dekretua, urriaren 3koa, Itsasoko Kirol-arrantzaren Arautegia onartzeko dena.

9.– 41/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, angularen arrantzari buruzkoa.

10.– 107/2005 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, angularen arrantzari buruzko dekretua aldatzen duena.

11.– EAEn aingira berreskuratzeko kudeaketa-plana.

12.– FAO, ICCAT eta ICES/CIEM. Zer diren eta arrantza guneak.

13.– EB 1241/2019 Erregelamendua, ekainaren 20koa, arrantza-baliabideak kontserbatzeari eta itsasoko ekosistemak neurri teknikoekin babesteari buruzkoa: 1. artikulutik 27.era eta 4. eranskina.

14.– AAA/253/2015 Agindua, azaroaren 17koa, Kantauriko eta ipar-mendebaldeko arrantzategi nazionaleko erroldetako itsasontzientzako kudeaketa-plana ezartzen duena.

15.– 212/2000 Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasbazterrean arrantza-tresna xumeekin egiten den arrantza arautzen baita, azaroaren 30eko 244/2004 Dekretuak aldatua.

16.– 143/2021 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantza-erakustaldiei eta marinel- edo arrantza-turismoari buruzkoa.

17.– 1379/2013 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 11koa, arrantzako eta akuikulturako produktuen sektoreko merkatuen antolaketa erkidea ezartzen duena: 1. artikulutik 5.era eta 4. kapitulua.

18.– Kontseiluaren 1224/2009 EE Erregelamendua, 2009ko azaroaren 20koa, arrantza-politika erkidearen arauak betetzen direla bermatzeko Erkidegoko kontrol-araubidea ezartzen duena: 9-31, 58-64, 82-87 eta 92-93 artikuluak.

19.– Arrantzako eta akuikulturako produktuetan kontsumitzaileentzako informazio-transmisioa eta trazabilitatea kontrolatzeko programa nazionala 1224/2009 EE Erregelamenduaren esparruan.

20.– 418/2015 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, arrantza-produktuen lehen salmenta arautzen duena.

21.– Euskal Autonomia Erkidegoan ohikoenak diren merkataritza-espezieak identifikatzea.

22.– Euskal flota, sailkapena, arrantza-modalitateak, banaketa geografikoa, tonaje-tarteak.

23.– Erauzketa-arrantzaren produkzio primariorako higiene-kontrol ofizialaren programa 2021-2025

24.– Akuikulturako Produkzio Primarioaren Animalien Osasunaren eta Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa 2021-2025.

25.– 875/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, aisialdirako itsasontziak gobernatu ahal izateko titulazioa arautzen duena.

26.– Ebazpena, 2021eko maiatzaren 12koa, Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiarena, aisialdirako itsasontziak gobernatu ahal izateko titulazioa arautzeari buruzko urriaren 10eko 875/2014 Errege Dekretuaren VII. eranskina aldatzen duena.

27.– 201/2004 Dekretua, urriaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoan urpekaritza profesionala arautzeko dena.

28.– Agindua, 2006ko martxoaren 13koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita sakonera txikiko urpekari profesionalaren titulua lortzeko ikastaroari dagokion prestakuntza-programa.

## LVI. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO ARRANTZAKO ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalako 2 plaza eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa dutela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalan sartzeko tituluak: Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria, Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria eta Akuikulturako goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Arrantzako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,104 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Itsas Nabigazio, Arrantza eta Garraioko Goi-mailako teknikarien edo Itsasontziko Makinak eta Instalazioak Ikuskatu eta Kontrolatzeko Goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,312 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

10 puntu titulu bakoitzeko, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa bada: Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria, Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria, Akuikulturako goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nabigazio, Arrantza eta Itsas Garraioetako goi-

mailako teknikarien edo Itsasontziko Makinak eta Instalazioak Ikuskatu eta Kontrolatzeko goi-mailako teknikarien aukeretako karrerako funtzionario izateko edo A arrantza-ikuskatzaile edo B arrantza-ikuskatzaile lan-kontratudun finko izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Arrantzako Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

# LVII. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO HAZIEN ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO PROZESU BEREZIRAKO

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta hizkuntza-eskakizunik gabe.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalan sartzeko tituluak: Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria, Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria eta Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi-mailako teknikaria.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, gehienez 120 puntu lor daitezke.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, gehienez 80 puntu lor daitezke, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Apartatu bakoitzeko zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lanaldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Hazien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,152 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 22 puntu emango dira.

a.2) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako teknikarien edo Natura- eta Paisaia-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,277 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 40 puntu emango dira.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 12 puntu lor daitezke):

b.1) 5 puntu titulu bakoitzeko, gehienez 10 puntu izan arte, titulu hauengatik, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa bada: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria, Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria, Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

b.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikarien edo Natura-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikarien aukeretako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3) 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu 1 ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango

zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.

6.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– 30/2006 Legea, mintegiko hazi eta landareei eta baliabide fitogenetikoei buruzkoa. Merkatu-barietateak. Ekoizpena eta merkaturatzea. Arau-hausteak eta zehapenak.

2.– Hazien eta mintegi-landareen ekoizpenari buruzko erregelamendu orokorra. Aplikazio-eremua. Merkatu-barietateen erregistroa. Europar Batasunetik edo hirugarren herrialdeetatik datozen haziak eta mintegiko landareak Espainian sartzeko arauak.

3.– Barietateen erregistroa. Merkatu-barietateen eta babestutako barietateen erregistroa. Katalogo nazionalak eta komunitarioak. Landare-lorpenen babesa.

4.– Mintegiko landareak eta haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu tekniko orokorra: Hazien eta mintegiko landareen kategoriak. Ziurtapeneko barietateak. Ekoizpen-prozesua. Zigilua. Kontrol aurreko eta osteko saiakuntzak. Merkaturatzea. Soltekoak.

5.– Landareen operadore profesionalen erregistroa. Operadore-motak. Operadoreak erregistratzeko eta instalazioak inskribatzeko prozedura. Erregistroaren edukia. Erregistratutako operadore profesionalak aurkeztu beharreko deklarazioak.

6.– Ugalketarako landare-materialaren ekoizleak. Ekoizle-motak. Ekoizteko baimenerako eskaera. Ekoizleei baimena emateko baldintzak.

7.– Pasaporte fitosanitarioa: formatua, edukia eta egitea. Trazabilitatea. Pasaporte fitosanitarioa egiteko baimena duten operadore profesionalen eskakizunak eta betebeharrak. Kontrol ofizialak.

8.– Hazi-laginak hartzea. ISTA arauak.

9.– Zereal-haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (I). Espezieak eta kategoriak. Hazien ekoizpena.

10.– Zereal-haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (II). Loteen eskakizunak. Kontrol aurrekoa eta ostekoa. Ekoizleak. Merkaturatzea.

11.– Hazitarako pataten haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (I). Espezieak, barietateak eta kategoriak. Ekoizpena.

12.– Hazitarako pataten haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (II). Zigilua. Kontrol aurrekoa eta ostekoa. Ekoizleak. Merkaturatzea.

13.– 177/2018 Dekretua, abenduaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hazitarako patatak ekoiztekoa. Eremu geografikoen mugak. Herrien sailkapena. Hazitarako patata ereiteko baimena emateko prozedura. Ikuskaritza.

14.– Bazka-landareen haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (I). Espezieak, kategoriak eta barietateak. Ekoizpena.

15.– Bazka-landareen haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (II). Kontrol ostekoa. Ekoizleak. Merkaturatzea.

16.– Baratze-landareen haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (I). Espezieak, kategoriak eta barietateak. Ekoizpena. Kultiboen deklarazioak.

17.– Baratze-landareen haziak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (II). Haziak zigilatzea. Kontrol aurrekoa eta ostekoa. Ekoizleak. Merkaturatzea.

18.– Barazkien zuhaitz-landareen eta barazki-ugalketarako haziez beste material batzuen ekoizpena eta merkaturatzea kontrolatzeko erregelamendu teknikoa (I). Generoak eta espezieak. Eskakizunak.

19.– Barazkien zuhaitz-landareen eta barazki-ugalketarako haziez beste material batzuen ekoizpena eta merkaturatzea kontrolatzeko erregelamendu teknikoa (II). Hornitzaileen kontrola eta kontrol ofizialak.

20.– Landare apaingarriak ugaltzeko materialen ekoizpena eta merkaturatzea kontrolatzeko erregelamendu teknikoa (I). Ugalketako materialen eskakizunak eta ugalketako materialen hornitzaileen eskakizunak. Merkaturatzea eta etiketatzea.

21.– Landare apaingarriak ugaltzeko materialen ekoizpena eta merkaturatzea kontrolatzeko erregelamendu teknikoa (II). Hirugarren herrialdeetan ekoitzitako materialak. Kontrol-neurriak.

22.– Mahatsondo-mintegiko landareak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (I). Kategoriak eta barietateak. Ekoizpena.

23.– Mahatsondo-mintegiko landareak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (II). Ugalketarako materialen baldintzak. Kontrolak. Kanpo-merkataritza.

24.– Fruta-arbolen mintegiko landareak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (I). Aplikazio-esparrua eta esparru horretatik kanpo geratzen dena. Kategoriak eta barietateak. Ugalketako materialetarako eta fruta-arbolen zuhaitz-landareetarako eskakizunak. Kontrolak. Hornitzaileak. Etiketatzea, zigilatzea eta enbalatzea.

25.– Fruta-arbolen mintegiko landareak kontrolatzeko eta ziurtatzeko erregelamendu teknikoa (II). Merkaturatzea. Europar Batasunetik kanpoko eta barneko merkataritza. Fruitu gorriak kontrolatu eta

ziurtatzea. Kategoriak, osasun-eskakizunak eta lurzoruari buruzkoak. Landako belaunaldiak. Laginketak eta saiakuntzak.

26.– 289/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, basogintzako ugalketa-materialak merkaturatzeari buruzkoa (I). Ugalketarako baso-materialak ekoiztea.

27.– 289/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, basogintzako ugalketa-materialak merkaturatzeari buruzkoa (II). Ugalketarako baso-materialak merkaturatzea.

28.– 289/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, basogintzako ugalketa-materialak merkaturatzeari buruzkoa (III). Kontrol-neurriak.

29.– 1311/2012 Errege Dekretua, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena (I). Aplikazio-eremua. Administrazio eskudunak eta kide anitzeko organoa.

30.– 1311/2012 Errege Dekretua, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena (II). Erabiltzaile profesionalen eta saltzaileen prestakuntza. Izurriteen kudeaketa integratuko aholkularien gaikuntza-titulua.

LVIII. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOKO HAZIEN ESKALAN ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESURAKO

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalako plaza 1 eskaintzen da txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean eta 3. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duela.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Laguntzaile Teknikoen Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 15,64 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek eta hauen baliokide guztiak dira Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalan sartzeko tituluak: Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria, Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria eta Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi-mailako teknikaria.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

Eskainitako lanpostuen zerrendan —oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia— hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

Gehienez 100 puntu lor daitezke (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan B edo C1 taldeko Hazien kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,104 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan emandako zerbitzu hauek:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako teknikarien edo Natura- eta Paisaia-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako teknikarien aukeretako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,312 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 45 puntu emango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (gehienez 30 puntu lor daitezke):

c.1) Titulu hauek baloratuko dira (gehienez 20 puntu lor daitezke):

10 puntu titulu bakoitzeko, betiere eskalan sartzeko alegatutako tituluaz bestelakoa bada: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Enpresen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria, Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria, Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi-mailako teknikaria, eta haien baliokide guztiak.

Titulu bakoitzaren baliokideak zein diren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunean kontsulta daitezke (https://www.todofp.es/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/equivalencias.html).

c.2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Enpresen

Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikarien edo Natura-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko goi-mailako teknikarien aukeretako karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3) 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalako lan-poltsetan egoteagatik. Azpiapartatu honetan, gehienez ere puntuazio hori lortu ahal izango da.

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

– Microsoft Access 2010.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, bai aplikatuko da artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiegi ordezkatuta baitaude Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Hazien Eskalan, eta lehentasuna emango zaie.